


Richard - Fyfe





H-84701 ZRV  
GUIRISTINOKI 3384

BICITCECO ETA HILTCECO

MOLDEA,

EDICIONE BERRIA,

IRACURTCE BALIOS BATQUEZ.

EMENDATUA.



AVIGNONEN,

SEGUIN, IMPRIMATÇAILEAREN BAITHAN.

1862

## APPROBATION.

Nous, FRANÇOIS LACROIX, Évêque de Bayonne, autorisons Monsieur F. Seguin, imprimeur à Avignon, à imprimer le livre basque intitulé : *Guiristinoki bicitceco eta hiltceco moldea.*

Bayonne, le 8 mai 1862.

† FRANÇOIS,  
Évêque de Bayonne.

# IRACURTÇAILEARI.

---

Eguiazco guicon arguituec, eta erreligionearen intresac maite dituzten guciec, eçagutcen dute meditacionearer premia, eta egun guciez frogatcen dituzte haren abantailac. Eguia eternalen ahanztea da hain bertce bekhatu eta desordren ithurburua. Erreflexione esacsac galarazten ditu hain bertce arima. Erreflexione usuen medioz hazten eta bortizten da fedea, arbuyatcen gaizkia, berthuteari estecatcen, ukho eguiten munduari, osoki emaiten Jaincoari. Nola bada hain erretchi uzten da debalde meditacione hori hain probotchosa ari-macotçat, hain baitezpadacoa? Guciec aurkitcen dute dembora, astia lurreco intres iragancorren gainean serioski pentsatceco, heyen ahalaz ongui arrimatceco; eta memento bat ex hartu nahi pensatceco serioski arimaz, eternitateaz. Cer dire bada mundu huntaco intres

ezdeusac bethierecoen aldean ? Çuc , iracurtçaile maitea , bertcela eguiçu. Lakhet içan çacu erreflexione seriosen eguittea erreligioneco eguaia handien gainean. Balia çaitet liburu ttipi chume huntaz meditacioneco gostuaren hartceco eta ahalaz seguitceco. Hemen aurkituco dituçu guiristinoki bicitceco gauça beharrenac. Capitulu bakhotcha laburra da. Ez badeçakeçu dêna iracur , eguin pharte bat. Bainan iracur aldi güciez , phausa edo bara çaitet aski maiz guehienic hunkitcen çaituzten hitcen edo gaucen gainean : horrela Jaunaren graciac arguituco du çure izpiritua , moldatuco eta gueroago hobeago eguiñen cure bihotça. Horrela Saindutu dire eta orai ere Saindutzen hambat arima. Ah ! ni dohatsu liburu hau eta meditacionea maitharazten badautçut !

—

# EGUNAREN GUIRISTINOKI IRAGATECO MOLDEA.

ATÇARRI çaren beçain Iaster Jaincoari bihotça altcha dioçoçu ; eguiçu gurutcearen seinalea eta aipha çatçu , Jesusen , Mariaren eta Josefen icenac ; erroçu çure buruari : menturaz egun hau eternitateaz içanen da seguitua ; nola behar dut beraz phasatu egun hau ?

Beztitcean beguira çatçu modestiaric corrotcenaren erreguelac ; erraçu *Pater* eta *Ave Maria* , edo eguiçu bertee cembait othoitz , eta eman çaité debocionerekin çure goiceeo othoitçaren eguiten .

Goiceco othoitçaren ondoan , edo ahal duçunean , eguiçu oren erdi baten , cdo bederen oren laurden baten meditacionea ; gutiac dire egun gueiez oren erdi bat baino guehiago dosteta funsgabetan ,

eta ezdeuskerietan galtcen ez dutenac ;  
eta doidoiaco fortuna baten ilhumabetan  
bici den presuna batec bere familiaren  
hazteco eguneco oren eta memento gu-  
ciac emplegatu behar baditu , lanean  
hari delaric meditacione hori eguin de-  
çake , lana bera eta ikhusten dituen  
gauça guciac Jaincoaren perfeccioenen  
eta munduko funsgabetasunaren contsi-  
deratceco suyet edo motibotçat cerbitça  
daitezke.

Lanaren aitcinean çure İana Jaincoari  
ofri dioçoğu Jesusec çure salbatceco ya-  
san duen nekhearen batasunean ; tra-  
bailatcean çure chede principala ez bedi  
içan diru irabaztecoa , bainan bai Jain-  
coari obeditcea , placer eguitea , eta çure  
bekhatuez penitentia eguiteco pena ha-  
ren sofritcea ; çure lanean Jaincoari maiz  
bihotça altcha dioçoğu , eguinez fedezco ,  
esperantçazco , amodiozco , edo bertce  
halaco cembait acta , nihor ohart ez di-  
teten maneran ; çure la ongui badoha ,  
benedica çäcu laguntcen çaituena : gaizki

badoña , errecribi caeu Jaincoac çure pa-  
cientcia frogatceco nahi duen mortifica-  
ciona hori ; molde hortan eguiten ditut-  
çun lanez merecimenduzco tresoric han-  
dienac ardietsico ditutçu : cembatac sal-  
batu direnac beren nekhe icerdiac Jain-  
coari maiz ofrituz ! combatac ceruan  
gora altchattuac beren estatuco egui-  
bide mendreenen bethetceco içan duten  
leyaltasunaren gatic ! Obra cder batçu  
dire , duda gabe , Elicetan egotea , ohoit-  
çaren eguitea ; baldin ordean ohoitcean  
egoteco çure etcheco lanac uzten badi-  
tutçu , çure ohoitça ez çayo Jaincoari  
agradatcen ; Izpiritu Sainduac handizki  
laudatcen du iruten haritcen cen , eta  
bere etcheco lan chebez occupatcen cen  
emazteki borthitz hura.

Yanean, edanean, loan eta çure diber-  
timenduetan , ez duçu placera bilhatu  
behar placera gatic , bainan çure osassu-  
naren conserbatceco eta Jaincoaren cer-  
bitçuan haren emplegatceco chedea içan  
behar duçu ; artha içan caeu bercciki

compainia et errecreacione onhestac,  
eta perilos ez direnac hautatceco, eta ez  
seculan colpatceco caritatea, garbitasu-  
na, eta bertce berthuteac; cure sentsuco  
presunekin errecreatu behar çare, bertce  
sentsuco presunac ez ditutçu hantatu  
behar premiaz baicen, eta orduan ere  
mintçatu behar çazcote ahal beçain mo-  
destki, serioski eta laburski.

Ez deçaçula, ahal baduçu, egunic utz  
Meça saindua entçun gabe, eta ez ba-  
çaitçu possible meçan causitcea; meca  
iskila aditcean bihotcez apheçari yunta  
çaite, eta meça gogoz entçun çacu,  
hartaco eginez, nihor ohartu gabe,  
meça erreyalki entçutean eguiten ditut-  
çun othoitçetaric cembait.

Egun guciez arrosarioa erranen duçu,  
cure Ainguera beguirailari eta cure Pa-  
troin sainduari cembait othoitz eguiten  
dioçutelarie.

Mahainean yartcean eta mahainetic  
altchatcean hartaco catichiman diren  
othoitçac eguiñen ditutçu, *Angelus* egü-

nean hiruretan , eta *Ave María* orena aditcean erraten duçularic.

Confesatu behar çare bederen ilhabete guciez , arrietaco besta buruetan , eta çure sor egunean ; communionearen usutas-suna , édo bakhantasuna çure confesorac erreguelatuco du.

Igandeac eta bestac sanctifica çateç Herrico meça nausian , bezperetan , prediku eta catichimetan aurkitcen çarelaric ; mundutarren bilkhuetaric ihes egui-nez ; debocionezco iracurtce eta bertce obra onetan egun hora iragaten duçularic.

Eguna akhaba çäçu arratseco othoitçaz ; eguiten duçularic çure conscientciaren examina chehe bat çure hutsen eçagut-ceco , eta hetaz Jaincoari barkhamendu escatceco , gau hartan hil behar bacine beçala.

Bilhuz çaité modestiarekin , har çäçu ur benedicatua , etçan çaité çure arima Jaincoaren escuetan eçarri ondoan , eta lokhar çaité cembait pentsamendu sain-dutan .

## MEÇA SAINDUCO OTHOITÇAC.

*Meça behar beçala entçuteco Preparacionea.*

CURE aldare sainduaren oinetan ahuspez emanic, adoratcen çaitut, Jainco bothere guciac ditutçuna; fermuki sinhesten dut entçuterat nohan meça dela Jesu-Christo cure Seine-Jaincoaren gorphutz eta odolaren sacrificioa, ofritceco manera hala berecoa ez içan arren, harc berac Calbarioco mendian guicon guiençat ofritu çuen sacrificio hora bera. Eguidaçu gracia sartceco, ô ene Jaincoa! Apheçaren escuz, hau çuri digneki ofritceco behar ditudan disposicionetan. Ofritcen darotçut, bat eguiten naicelarie Jésu-Christoren cta haren Eliçaren intentionekin: I. Cure Mayestate dibinoari;

çor çayoen homaia eta ohore soberanoa errendatceco. 2. Eguin darozkigutçun on eta ongui guciez eskerracbihurtceco. 3. Munduko bekhatu gucientçat eta bereciki encentçat çuri satisfaccioneguiteco. Finean, arimaco salbamenduarentçat eta gorphutceco biciarentçat behar ditudan laguntçac eta sokhoriac çure ganic ardiesteco. Çure ganic gracia hauc guciac uste ditut, Jesu-Christo çure Semearen merecimenduen bidez; ceinac nahi baitu berac içan, sacrificio adoragarri hunen Apheça eta bictima.

*Meçaren hastean, eta Confiteor erratean.*

ENE bekatuene yakiteco eta eçagutceco, ô ene Jaincoa! behar ez duçun arren arren ene aithorric eta confesioric, eta ene gaichtakeria guciac ene bihotcean irakhurteen ditutçun arren, confesatcen darozkitçut halere ceruaren eta lurrazen aitcinean: aithortcen dut ofentsatu çitudala gogoz, hitcez eta obraz. Ene bekatuac handiac dire, bainan çure

misericordiec neurriric ez dute. Urrical nakiçu, ô ene Jaincoa! orhoit çaité çure escuco obra, çure odolaren precioa naicela.

Birgina saindua, Ceruco Ainguerauc, Parabisuco Saindu eta Saindac, guretçat othoitz eguiçue; eta nigarrezco eta miseriazco haran huntan dolhamenetan gau-decen orduetan, gracia escaçaçue guretçat, eta ardiets dieçaguçue bekhatuen barkhamendua.

*Introïtean.*

JAUNA, euc Patriarkhei eta Profetei inspiratu diotçotçute, çure Seme bakhotcha lurrerat yaisten ikhusteco, hain desira khartsuac, indaçu heyen khar saindutic pharte bat; eta eguiçu, bicitce mortal hunen embräçuen erdian, ene baithan senti deçadan çurekin bat içateco lehia saindu bat.

*Kyrie eleisonetan.*

DOLHAMEN eta suspira doblatuez, ô ene Jaincoa! errekeritcen çaitut, eguidaçu

misericordia, eta memento guciez, bici naiceno erran banieçaçu: *Jauna! nauçun urricari*: ez liteke oraino aski ene bekhatuen nombrearentçat eta handitasuna-rentçat.

*Gloria in excelsis ean.*

**C**ERUA baino gorago çaren Jainco guciz botherexua! Cerua eta lurra betheac dire cure loriaren mayestateaz; Ceruco eta lurreco creatura guciei orai yuntatcen natçayote izpirituz eta bihotcez çure obra gucien glorificatceco; bainan ordainez eman dieçadaçu munduac ecin eman deçaken bakea: çuri choilhi, ô ene Jaincoa! çor çalzkitçu laudorioac, ohoreac, eskerrac eta loria mende gucietaco mendetan. Halabiz.

*Oremus etan, edo Oracionetan.*

**A**GRADA bekizkitçu, Jauna, guretçat eguiten çalzkitçun othoitçac: igutçu, Eliça çurc esposac, Apheçaren ahoz, gure sagoretan, galdeguiten darozkitçun graciac eta berthuteac. Ez dugu merecitcen

(hala da) entçunac içatea; bainan contsidera çäçu gracia horiec escatcen darozkitçugula Jesu-Christo, çure Semearen bidez, ceina çurekin bici baita eta erreguinateen baitu menderen mende gucietan. Halabiz.

*Epistolan.*

EPISTOLA huni beguiratcen diot, ô ene Jaincoa! çure borondateac irakhasteco egortcen darotaçun guthun batî beçala. Othoi, indaçu manatcen darotaçunaren complitceco indarra. Çuc ceronec, Jau-na, profetei eta apostoluei inspiratu diotçutçute, iscribuz utci darozkiguten eguiac: heyen arguitaric pharte indaçu eta pitz çäçu ene bibotcean, hec erretcen cituén susacratu hura; maita çaitçadan eta cerbitça, hec beçala, ene bici gucian.

*Evanyelioan, chutituric.*

CHUTITCEN naiz, ô Legueguile soberanoa! çuri markatceco Ebanyelio sainduan diren eguiac handiac, ene odolaz ciguilatcerat prest naicela. Eguiac horiec

enebihoteean ceronec, ohoi, Jauna, barneraingo graba çatçu. Horiec betçate erreguela ene gogoetac, ene hitçac eta ene obrac. Ez dut guehiago seguitu nahi eure maximez bertceric: mintea caite, Jauna, huna non aditcen çaitudan, sehi baten sumentimendu oso berarekin; in-dacu çure erranen complitceco hambat indar nola baitut fermutasun heyen sinhesteco.

### Credoan.

JAINCO bothere gucia ducuna, Ceruaren eta lurraren Creatçailea, sinhesten ditut cinez eta fermuki que Eliçari irakbatsiae diren gauça guciae; prest naiz, Jauna, ene odolaren ichurtcera çuc eman de-rautaçun fedearen sustengatceco infide-len edo hereticoen dichiduac, ez lausen-guac ez litezke gai ene cordocatceco; mundutarren trufa eta mesprecio guciec ez naute guibelatuco enc sinheste egui-azcoari lekhucotasunaren bihurtcetic, arriscu suerte gucien erdian haltoki eta

aguerian erran neçake orai erratera nohan gauça bera : erraçu *Credo.*

*Ofertorioan.*

**C**REATURA hilcor, eta bekhatzuz cargo bat baicen ez naicen arren, ofritcen rozkitçut Apheçaren escuz, ô eguiaz Jainco bici eta eternala ! ogui hori arno hori, ceinac içan behar baitu gambiatuac çure Seme Jesu-Christore gorphutcerat eta odolerat. Errecibi çäcu, Jauna, ecin erranezco sacrificio hau amultsuki eta goçoki, eta sofri çäcu ofrenda saindu hori yunta dioçadan, ene gorphutçaz, arimaz, onthasunez, biciaz, eta ditudan guciez eguiten darotçudan, sacrificioa. Egiçu nitaz, ô ene Jaincoa ! creatura berri bat ; ogui hori eta arno hori çure bothereaz gambiatcerat çohacen beçala.

*Apheçac bere erliac garbitcean.*

**G**ARBI naçaçu, Jauna, sacrificatua içate- rat doatçun Bildoxaren odolean ; notha gucietaric chahutua, eta çure graciaren

espos arropaz beztitua, çure ganat escu  
churi eta bekhatu gabeac altcha detçä-  
dantçat, eta esperaintça içan egün batez  
erricibitua içateco, çure hautatuei Ce-  
ruan preparatu, diçuten basket sacra-  
tuan.

*Ichilduric Apheçac erraten dituen Othoïtçac.*

AGRADA bekiçu, ô ene Jaincoa, çure icen  
sainduaren ohoretan, eta gloriarentçat,  
gure abantailetan ; eta çure Eliça sain-  
duarenetan, ofritcen çaitçun sacrificioa;  
haren intentcione beretan sarthuric,  
huna non galdetcen daroskitçudan, Eli-  
çac orai, Apheçaren bidez, eskatcen da-  
rokıtçun gracia guciec hortaracotz bat  
eguiten naiz Apheçarekin, accorda diet-  
çagunteun amoreac gatic Jesu-Christo  
gure Jaunaren bidez eta icenean.

*Prefacioa.*

ORDU da, ô ene arima ! alcha gaitecen  
behere huntaco gauça guciez gorago. Tira  
çatçu, Jauna, tira çatçu gure bihotçac  
çure ganat : sofri çacu çor çaizkıtçun

laudorioac eta eskerrac errendatceco , yunta detçagun gure boz flacoac , Izpiritu dohaxuen alegrantciazco eta extasiasco aire yustuarekin , eta desterruco lekhu huntan erran dieçaçugun hec gloriaren egoitçan cantatcen darotçutena : *Saindua, Saindua, Saindua da armadetaco Jainco Jauna: içan bedi glorificatua cruelaco gorenean.*

*Sanctus erran ondoan.*

**A**ITA bethierecoa , artçainetaco Artçain soberanoa ! çure Eliça conserba eta goberna çäçü , finca çäçü eta heda lurraren baster guciatarat. Izpiritu bat eta bihotz batemoçute Cristau gucici. Fenedica çäçü gure Alta saindua , gure Aphezpicua , gure Erregue , gure Erretora , eta çure Eliçaren sinhestean bici diren guciae.

*Lehemticico Mementoan.*

**J**AUNA , orai çure erresuman çarena , orhoit çaité nitaz çure misericordian , eta Sacrificio saindu lunen merecimenduz indatçu necesario ditudan berthute gu-

ciac. Eta batec berteearentçat othoitz eguitea manatu darocucunaz gueroz , Jauna , othoi , adi çatçu eta entçun humilki eta confidentciarekin eguiten darozkitçudan othoiteac ene ahaideentçat , adiskideentçat , arimaco eta gorphutceco ongui eguileentçat . Ene bihotz guciaz halaber gomendatcen darozkitçut ene exayac eta tratamentu gaichto cembeit eguin ahal darotaten guciac ; ahantz bekizkitçu heyen bekhatuac , eta neureac : ene bihotcetic khen çatçu khirastasun eta gaitcirizco guciac ; eta desira araz dieçadaçu eta ardiex araz heyen amo dia . Mundu guciac senti beça Sacrificio hunen ona . O ene Jaincoa ! igucu guciei bake eguiazco bat , ceinac , elkharrekin unionean atchikitcen gaituela , bethicotz baigaitu unionean emanen Birgina - Amarrekin , çure Apostoluekin , eta sineam eternitate gucian çurekin .

*Apheçac Calitçaren eta Ostiaren gaineun  
escuac çabalduac daduzcanean.*

**H**EDA çäçü, Jauna, ene gainerat çure  
ezcu dibinoa, posessionetan sartceco ene  
bihotcean eta ene sentsuetan; ene bai-  
than correitceco çure contra den gucia;  
ni consecratceco çure Aita Jaincoari,  
çure baithan eta çutaz; eta ni moyan  
hortaz libratceco debruaren escuetaric  
eta damnacione eternaletic.

*Ostia saindua altchatcean.*

**O**JESUS, ene salbatçailca, eguiazeo Jain-  
coa eta eguiazeo Guiconā, sinhesten dut  
cinez eta fermuki Ostia sainduan errealki  
hor çarela, adoratcen caitut hor, ene  
Jauna eta Jaincoa çarena. Iguçu, niri eta  
hemen garen guciei, mysterio adora-  
garri hantx cor darotçugun debocion-  
ea, amodioa eta eçagutça.

*Calitça altchatcean.*

**A**DORATCEN dut Calitz hantx, ô ene Jesus  
dibinoa! ene crospenaren precioa, eta

uiçon gucienna. Odol adoragarri horta-  
ic chorta bat yauxterat utz çacu ene ari-  
naren gainerat, içan dadintçat garbitua  
bekhatu gucietaric, eta sustatua çure  
imedioaren khar sacratuaz.

*Jaincoa altchatu ondoan.*

Ez darotçugun guehiago oguia eta arnoa  
ofritcen, bainan bai Jesu-Christo çure  
Semearen Gorphutz adoragarria, ô ene  
Jaincoa ! haren passionearen, phizte-  
ren; cerurat igatearen orhoitçapenetan:  
gure escutic, Jauna, erreccibi çatçu, eta  
bethe gaitçatçu çure graciez.

*Bigarren Mementoan.*

ORHOIT çaité halaber, Jauna, Purgato-  
rioan diren arima gaichoez: dohatsuki  
cureac dire eta çure esposac ere dire. Be-  
reciki gomendatcen darozkitçut ene ahai-  
deenac, adiskideenac, arimaco eta gor-  
phutceco ongui eguileenac, eta othoit-  
cen beharra guehien dutenac.

Nobis quoque peccatoribus *erratean.*

GUCIA bekhatore naicelaric , ausartatcen naiz galdetcerat gracia bera enetat ; erran nahi da , ô ene Salbatcailea ! çure glorian pharte pichca bat. Mila bekhatuz bangocucena galdu dudala, ikhusten dut ta aithortcen çure presentcian , ô ene Jaincoa ! Ene merecici beguiratcen badioçute , ez duket esperantçaric plaçatua içateco Erresuma harten , ceinetarat Apostoluec , Martyrec eta Birgina sainduec ecin ardietsi baitute heltcea , bethi sofrituz eta berthute guiristinozco guciа pratican emanez baicen. Nola beraz ausarta ere othe naiteke , Jauna , esperantça içaterat ? Çure odolac eguiten du ene fidantcia gucia. Barkha dietçakidatçu ene saltac , eta penitentcia eguiazco batez digne errenda naçaçu hartarat heltceco.

Pater *erratean.*

CREATURA ezdeus eta dohacabe bat bai- cen ez naicen arren , halere , Jainco han- dia ! ausartatcen naiz çu ene Aita deitce-

at , ceren hola nahi duçun : eguidacu  
gracia , o ene Jaincoa ! ez deçadan nihoiz  
re gal çure umearen calitatea. Içan bedi  
zure icena sanctificatua ceru-lurretan.  
Erreguina çäcu orai beretic çure graciaz  
ene bihotcean , çurekin erreguina deca-  
dantçat eternitatean çure glorian ; eta  
çure borondatea compli decadantçat lur-  
rean , sainduec complitcen duten beçala  
Ceruan. Ene Aita çare , indaçu beraz ,  
othoi , ceruco Ogui hora , ceinetaz hazten  
baiditutçu çure haurrac. Barkhamendu  
accorda dieçadaçu , nic çure amoreac ga-  
tic bihotz onez ofentsatu nautenei accor-  
datcen diotedan beçala , eta ez deçaçula  
permeti nihoiz tentamendu batecere ga-  
rhai neçan : aitcitic , çure graciaz lagun-  
duric , eguiçu bentçu detçadan ene sal-  
lameñduaren exai guciac.

Agnus Dei *erratean*.

JAINCOAREN hildotsa , munduko bekha-  
tuez cargatu nahi icatu duçuna , gurbi  
çatçu eta borrrha neurc guciac çure odo-

lean ; hain khario erosi duçan bakea içateco, digne errenda neçaçunctçat. Indaçu bake hora çurekin , bake hora proximoarekin, bake hora neure buruarekin ; inspiratcen darotaçularic humiltasun osoena ; eta eue haithan ithotcen ditutçularic mendecuzco desira guiac.

Domine non sum dignus *erratean*.

Ah Jauna ! sobra baicen ez da eguaia ez dudala mereci çure errecibitcea ; indigne errendatu naiz osoki ene bekhatuez : guciez urriki dut eta dolore , ceren damus-tatu baitçaituzte eta çure ganic urrundu bainaute ; çure hitz bakharbatec senda deçake ene arima : ez neçaçula abandona, ô ene Jaincoa ; eta çure escutic atchic naçaçu.

*Apheçaren Communionean, nore berac com-muniatcen ez duenan errealki.*

O ENE Jesus maitagarria ! egun çure Harragui sainduaz hacia içateco çoriona ez badut ; sofri çäcu errecibi çaitçadan bederen izpirituz eta bihotcez , eta çurekin

bat eguin nadin fedez, esperantçaz eta aritateaz. Sinhesten dut çure baithan ; çure baithan dut ene esperantça eta maite zaitut ene bihotz guciaz.

Ala dohatsu baininteke, ene Salbat-aile maitea, çure ganat hurbiltceco, çure mahain sainduan presentatceco, çure Gorphutz sacratua errecibitceco, eta çure odola edateco estatuan banintz! Ah! cer frankia, cer contsolacione, cembat gracia ez dioçute emaiten hetaz hazzten ditutçunei!

» *Norc berac communiatcen duenean horren orde eguin behar dire communioneco Actac.*

*Ostia pichcac Apheçac biltcean.*

JAUNA, eure graciariic mendreena hain guehiagoki baliosa da; ya erran dut; ez dut mereci çure mahainean çure haurren herruncan yartcea; bainan permeti dieçadaçu bil detçadan bederen erortcen diren papurrac, Kanancarrac galdetcen çuen begala. Eguiçu ez deçadan çure

inspiracionetaric batere negliya ; ecen neglientcia horrec obliga çaitçake guciez escas eguiterat.

*Post-Communionean.*

CONTSUMITU dire guciac , ô Jauna ! ene beguien aitcinean sacrificaturic çatoz. O ene Jaincoa ! ez naiz nihoiz gueldituco çuri laudoriozco sacrificioa errendantctic : eta guciz bihotz cu ofentsatuaz doloratu , çaurthu eta humiliatu baten sacrificioa ofritcetic.

*Azken Oracionetan.*

NAHI duçu , Jauna , arteric utci gabe gure othoitçac adreça dietçatçugun ; cernen dugun bethi çure graciен beharra : ichur çäcu gure gainerat eta iguçu othoitçaren izpiritua , ceina baita humiltasunezco , confidentciazco eta amodiozco izpiritu bat : hortaz errekeritcen çaitugu Jesu-Christo çure Semeaz , ceinac çurekin erreguinatcen baitu glorian.

*Benediccionaren aitcinean.*

TRINITATE guciz saindu eta adoragarria, Aita, Semea eta Izpiritu Saindua, Jainco choil eta bakhar bat carena; cutaz sacrificio hau hasi dugu, cutaz finitzen dugu: agrada bekieu, eta ez gaitcatcula egor cure benediccionea gabetaric.

*Azkeneco Ebanyelioa erralean.*

VERBO eternala, gauça gucien Eguilea, deimborac bethe cirenean gure gatic Guicon eguinie, Sacrificio miragarri hau establetu duçuna; eskerrac humilki errendatzen darozkitcugu erren egin darocun gracia, hunen entçuteco, hunen efetu salbagarriac, erreccibi detçaguntcat, Ainguera eta Saindu guicie, hortaz lauda betçaitçate bethi ceruan, eta gu has gaitecen cu hortaz benedicatzen lurrean, comportatzen garelaric egungo egunean cure legucaren arabera. Barkha dieçadaçu, ô ene Jaincoa enc izpirituko barrayamendua eta enc bihotceco hotzta-suna, cutaz occupatua eta çurçat susta-

tua, içan behar çuten moment hortan. Ahantz bekizkitçu, Jauna, ene bekhatuac, ceinentçat Jesu-Christo çure Semea, Aldare hunen gainean iminolaturic heldu baita : eta ez decaçula permeti askondicozcoa içan nadin, çure hemendio harat ofentsatceco ; bainan eguiçu, çuncenki comportatcen naicelaric, bethi beguira dieçaçudan ene gogoeten, ene hitcen, eta ene obren erreguelari eta azken finari beçala. Halabiz.

---

## COFESATCECO MOLDEA.

---

Ez, othoi, behinere gorde bekhaturic ahal-guez cofesioan : ez, othoi, behinere cofesa contricionea Jaincoari galdetu gabe arthario handienarckin.

CONFESIO on bat eguin nahi duena hartarat aitcinetic preparatu behar du, eta examina errechkiago eguiteco bat banazca curritu behar ditu Jaincoaren eta

Elizaren manamendua etazpi bekhatu apitalac, gogorat ekharrri behar ditu çatu dituen occasioneac, tentacioneac, anac, eguitecoac, eta bereciki bere estatuco eta oficioco eguimbideac, eta costumaz edo usantçaz eguiten dituen bekhatuac.

*Examinaren aitcineco Ohoitça.*

Argui gucien arguia çaren yuye guciz arguitua! arguçaçu ene izpiritua çure argui dibinoaren arraioez; lagun naçaçu ene contcientciaco lece ilhunetarat yaus-ten; sararaz naçaçu ene bihotceco ple-guric estalienetan, eta eguiçu examina huntan eçagut detçadan ceronec ene bai-than eçagutcen, eta egun batez yuya tuco ditutçun falta nombre gabeac, eta hekien ixustasuna berritcen duten circunstantcia guciac.

**CONCIENTCIAREN EXAMINA.**

*Jaincoaren lehembicico Manamendua.*

Manamendu hunen contra bekhatu eguiten dute, ahalkez, edo bericela con-

fesioan bekhatuac estaltcen eta estatu  
hartan communiatcen dutenec , accio-  
nez , solas gaichtoez , edo sobraniazcoez ,  
Eliçac , Iur sainduac , edo bertce cerbait  
gauça Jaincoari contsecratua denic pro-  
fanatcen , edo mespreçatcen dutenec ;  
sorguin , azti , edo asmatçailetan sinheste  
dutenee ; ametsetan , çorionezcoac edo  
çorigaitcezcoac direlaco egunetan fede  
emaiten dutenec ; Eliçac aprobatcen ez  
dituen accione , hitz , edo obserbacione  
suerte batçuetan fidantzia eçartcen dute-  
nec eta oguia , ura , edo bertce cer nabi  
den Eliçaz benedicatua denic usaia pro-  
fanoetaco cerbitçarazten duten guciec .  
Fedeac irakhasten darozkigun eguietaric  
cembait sinhetsi nahi ez dutenec , edo  
hetaz bere nahitara dudatcen dutenee .  
Bere salbamenduaren esperantça galt-  
cen , edo Jaincoaren misericordian sobra  
phausatuz combertitcea egunetic egu-  
nera luçatcen dutenec , eta bere indarre-  
tan sidatuz , edo Jaincoaren laguntçan  
sobra condatuz , bekhatuzco occasionean

yartcen direnec. Jaincoaz ete bere salbamenduaz orhoitu gabe dembora hainitz pasatcen dutenec. Fedea , caritatea , castitatea , edo bertce cembait berthute colpatcen duten presuna libertinac erreprenitcen ez dituztenec. Munduaren ahalkez , mundutarren trufen beldurrez berthutezco obretaric guibelatcen direnec. Jaincoaren probidentciaz murmuratcen , edo errencuratcen direnec. Botuac arinki , edo complitceco chederic gabe eguiten , eta obligatuac direlaric atchikitcen ez dituztenec. Yan aitcineco , eta yan ondoco , goiceco eta arraxeco othoitçac , eta penitentcia neglientciaz uzten , edo lehiarekin eta atencioneric gabe eguiten dituzten guciec. Penitentcia arinen içateco , edo bicitceco molde bera seguitceco esperantçan Confesor largoenac bilhatcen dituztenec.

*Bigarren Manamenduaz.*

Manamendu hunen contra bekhatu eguiten dute.... Arnegu eguileec , yura-

mentu guçcurraren gainean , eta eguiaren gainean premiaric gabe , eguiten duten guciec. Blasfemioa , edo inyuriozco hitz bat Jaincoaren , sainduen , edo erreligionearen contra erraten dutenec. Imprecacioneac eguiten dituztenec erran nahi da hasarreturic , edo mihitz choilki erraten dutenec , bere buruei , edo bertcei desiratcen diotela , leher eguitea , deabruac eramatea , ozpinac bolatcea , edo bertce cembait incuntru gaichtotan heltcea.

### *Hirurgaren Manamenduaz.*

Manamendu hunen contra bekhatu eguiten dute..... Igandetan eta beztetan , premiaric , edo Eliçaren permisioneric gabe lanean haritcen direnec , eta bertceac harrarazten dituztenec , egun saindu hautan meça osoa , edo pharte bat bere faltaz huts eguiten dutenec , eta barraiadura borondatezcoekin meça entçuten dutenec ; Eliçaco oficioetaco demboran ostatuan edo plaçan yaten , edaten , edo

yocoan hariteen direnec; meçanausian, oezperetan predicuetan eta catichiman causitcen ez direnec, edo hautan causitcen direlaric arren, yocoan, dantçan, ostatuan, edo bertce cembait dosteta unsgabetan gaineraco dembora emplegatcen dutenec.

*Laugarren Manamenduaz.*

Manamendu hunen contra bekhatu eguiten dute..... Burhasoac trufatcen edo mezpreçatcen dituztenec; burhasoei çorrozki behatcen, edo ihardesten diotenec, hekien yotcera ausartatcen direnec, edo yotceaz mehatchatcen dituztenc; burhasoac desobeditcen, edo gogo gaichtoz, eto errencurac eguinez baicen obeditcen ez dituztenec, bere gabeetan eta çahartcean lagundu gabe uzten dituztenec, edo hei ematen diotenean laguntça iroi eguiten diotenec; burhasoac hil ondoan, hekien chedeac compliteen ez dituztenec eta hekientçat othoitçac eguin arazten ez ditutzen guciec; osoba, içaba, eta bertce

alhaide , eta aitcindariac bere adinaren eta autoritatearen arabera ohoratcen ez dituztenec. Nausiac eta etchecoandreac obeditcen eta errespetatcen ez dituzten sehiac; etcheco onthasunac , bereac balitzte beçala , conserbatcen ez dituztenec , eta etcheco berriac campoan condatcen eta condarazten dituztenec. Bere umeac hazten , beztitcen , instruitcen , Eliçaco oficioetarat egortcen , hutsetan correitcen , bekhatuzco ocasionalic beguiratcen ez dituzten eta exemplu gaichtoez , edo atçartasun escasez Jaincoarer ofentsatceco bidea bere umeei emater dioten burhasoec.

*Bortzgarren Manamenduaz , ceinetan cerratcen baitditut imbidia , colera eta abaricia.*

Manamendu hunen contra bekhatu eguiten dute..... Conseilu , edo exemplu gaichtoz Jaincoaren ofentsatceco ocasionea einten dutenec , eta bereciki caritatearen , castitatearen edo hertce cembai

berthuteren contra mintçatcen direnec. Errataula deshonestac yenden bistarat aguertcen dituztenec. Chede gaichtoric ez içan arren , bilhuzki , modestiaric gabe , edo erguelki beztituac , eta cofiatuac ibiltcen diren , edo aire mundano , eta arraitasun sobrarekin guiçonkien aitcinean aguertcen diren emaztekiec. Lagunac eguin ez duen gaizkia erraten dutenec edo eguin duena eta gordea cena eçagutarazten dutenec , lagunaren contraco cantac cantatcen , edo cantarazten dituztenec , eta maiz haukien gucien aditçaileec. Proximoaren galtçeaz axe-guin dutenec, hari gaitça desiratcen, hitz gaichtoac erraten , colpe ematen edo emanarazten diotenee; haren onaz yelosten ; edo imbidiaz tristatcen direnec ; hari aspertu nahiz hauei eñaten , edo chede berean antolamendua errefusatcen dutenec ; bere exaiari gaitcic nahi ez diotela erraten dutelaric , hura mintçatcen eta salutatcen ez dutenec. Colcran edo bicitasunean ematen direnec. Ontha-

sun biltcea gatic bere buruei gauça necesarioac ere errefusatcen diotçatanec, eta amoina eguin ahal deçaketelaric eguiten ez dutenec. Bere sabelean ekhartcen duten frutuaren hil arazteco bidea, edo moyenac hartcen dituzten, edo haren contserbatcecoa negliatcen dituzten emaztekiec. Hiltcea desiratcen, eta hiltceco, edo osasunari bidegabe eguiteco arriscutan ematen direnec.

*Sei eta bederatcigarren Manamenduez.*

Manamendu haukien contra bekhatu eguiten dute..... Gogoeta, edo desircunde liçunac bere nahitara gogoan atchikitcen dituztenec: hitz libroac erraten, canta arinac cantatcen, edo aditceaz axe-guin hartcen dutenec. Behatce, ukitce edo bertce cembait accione dishonest bere gainean, edo bertce norbaiten gainean, eguiten edo errecibitcen dutenec, emaztekia emaztekiarekin edo guïçonkia guïçonkiarekin içanic ere. Adiskidetasun sobra libroac, libertinen compainiac,

dantcac , eta urrundanic ere castitatearen colpatcera ekhar detçaketen diberti-menduac hantatcen dituztenec. Pintura edo figura, eta bertce cer nahi den gauça dishonesti axeguinekin behatcen diotene. Amodioaz mintço diren liburuac iracurtcen dituztenec. Modestia gutire-kin beztitcen direnec. Elkharren arteco deshonezkeriez saindutasuna desohorat-cen duten senhar emaztcc.

*Çazpi eta hamargarren Manamenduaz.*

Manamendu haukien contra bekhatu eguiten dute..... Bertceren onthasuna bortchaz edo fineciaz hartcen dutenec , eta inyustuki içatea desiratcen dutenec. Ichilca burashoen onthasuna saltcen edo emaiten dutenec. Salerosian laguna en-ganatcen dutenec. Hauci makhur edo çucencontrácoez bertceneraz yabatcen direnec , eta hartaco paper faltsoac egui-ten edo eguiazcoac gordetcen dituztenec. Cilhegui ez diren prestamuac eguiten dituztenec. Dakitelaric ez direla pagatceco

estatuan içanen, prestamuac hartcen dituztenec. Corren pagatcea, alchátcera emanac errendatcea, sehiei eta languilei soldata eta yornala ematea luçatcen dutenec. Yoco debecatuetan haritcen direnec; yocoan malecia eguiten, eta yocoan bere edo partidaren ahalaz guehiago eçartcen dutenec. Gauça causituac beretcen dituztenec; edo norenac diren yaki-teco eguiimbidetan ematen ez direnec. Dembora galtcen, edo lanean bere indarra estaltcen duten sehiec eta languileec. Manuz, conseiluz, lagunduz, consentimenduz ohoin estalki baliatuz, edo bertcela ebascoetan edo bidegabeetan cuxatcen edo pharte hartcen dutenec. Proximoaren gauçac deseguiten, hausten edo urratcen dituztenec; eta haren bidegabeac, hartaco botherea edo cargua dütelaric guibelatcen ez ditutzen guciec.

*Cortigarren Manamenduaz.*

Manamendu hunen contra bekhatu eguiten dute.... Gueçurra erraten dute-

iec. Lagunez funxic aski gabe yuyatcen, edo suspitchac arinki eguiten dituztenec. Yuyearen aitcinean eguiaren contra mintçatcen direnec, edo dakiten eguiia erraten ez dutenec. Secretuan yakin duten gauça salhatcen dutenec.

Azkeneco bi manamenduac cerratuac dire seigarren eta çazpigarren manamduetan.

### *Eliça Ama Sainduaren Manamenduez.*

Jaincoaren manamduetan cerratuez bertce alde, manamendu haukien contra bekhatu eguiten dute..... Confesatu gabe urthe osoa uzten dutenec. Arraçoinaren adineraz gueroz bazco demboran bere herrian communiatu gabe egoten direnec. Sori ez den egunetan haragui edo urin eguiten dutenec. Hogoi eta bat urthe complituz gueroz, Eliçac manatu barurac hausten dituztenec, edo colacionean sobra yaten dutenec, eta colacionecco yanharietan Diocezaco usaia seguitcen ez dutenec. Eliçan iracurtcen

diren Monitorio edo escumicuentçat errespeturic ez dutenec.

*Bekhatu Capitalez.*

Urguiluaz hobendun dire..... Bere buruac sobera estimatcen , eta laguna mezpreçatcen dutenac. Gormandiçaz hobendun dire..... Sobra yaten edo edaten dutenac , eta yanhariac sobera gostac , edo garastieguiac bilhatcen dituztenac. Alferkeriaz hobendun dire..... Laneco nagi direnac , ohean sobera egoten direnac , eta yocoan edo dosteta alferretan dembora emplegatcen dutenac.

Bertce laur bekhatu capitalac eçarri dire bortz eta seigarren manamenduetan.

Norc bere estatuco eta oficioco eguibideac arthoski examinatu behar ditu ; hetan eguiten diren hutsac maiz ondore tristeenez seguituac dire.

**CONFESIOCO OTHOITÇAC.**

**CONFESIO** on bat eguin nahi duena bezperatic hasi behar da contcientciaren

examina chehe baten eguiten , eta Con-  
fesoraren oinetarat hurbildu baino lehen  
egon behar da bere bekhatuez berriz  
orhoitcen , eta hetaz Jaincoari barkha-  
nendu escatcen. Bekhatu cembeitez  
ahalke denean consideratu behar du :  
1. Ahalke escasez Jaincoa ofentsatu due-  
lacotz , abalkea içan behar dela bekha-  
tuaren lehembicico penitentcia ; 2. Sa-  
craleioric handiena eguinen duela baldin  
ahalkez bekhatu mortal bakhar bat gor-  
detcen badu ; 3. Confesorari leialki gor-  
detcen duen secretuaz seguratua delaric  
arren , aithortcera ecin ausarta deiteken  
bekhatua, yuyamenduco egunean, mun-  
du guciaren bistan aguertuco dela ; eta  
eternitato gucico Ifernuaz seguitua iça-  
nen dela , baldin extitasunekin eta urri-  
calmendurekin adituco duen Jesu-Chris-  
toren Ministro bati ez badio bere estatua  
descubritcen. Erreflexione haukien me-  
dioz bere ahalkearen bentçutcera ent-  
seyateen delaric, eta ofentsatu duen Jain-  
coaren ontasuna , Jaincoarentçat içan

duen eskergabetasuna , bere bekhatuez erreberritu duen Jesu-Christoren Passio-nea eta heriotcea ; galdu duen Parabisua eta merecitu duen Ifernua contsideratu ondoan , Jaincoari galdeguinen dio bere bekhatuen eçagutreco , declaratceco , eta higuintceco gracia , bihotcez eguiten di-tuelaric seguitcen diren othoitz hauc.

*Confesioaren aitcineko Othoitça.*

O Jainco guciz adoragarria ! nic bam-bat moldez ofentsatu çaitudana ! ez dut çure ganic mereci fagoreric chumeena. Ene errebelamenduac sobra dire itsu-siac , eta ene eskergabetasuna sobra da beltça. Ene sentsu guciez bekhatu eguin dut; çure legue guciac hautsi içan ditut, eta çure amodio samurraren deitce ezti, gombidatce amultsu guciac mezpreçatu içan ditut. Yustu da beraz , Jauna , laidoa laidoarentçat , mezrecioa mezrecioa-rentçat bihur dieçadaçun , eta ni bethi bekhatu eguiten haritu naicen beçala , bethicotz çure colera eta mendecu gu-

cien objeta içan nadin. Bainan , Jainco urricalmendutsua ! cer içanen duçu ni bethicotz galduric , eta tormenta pean ni seculacotz emanic ? Çure handitasun mu-garrigabeari cer gloria iratchikico dioçu ni eternitateko surat condenaturic ? Au-sartciaric handienarekin çure contra alt-chatu içan den creatura ez deus bati barkhatceac guehiago lorificatuco çaitu. Ecin bertcez baicen ez gaitutçu gaztigat-cen , eta barkhatcen datça çure atsegui-nic handiena. Ez çare contentatcen çure gana heldu den bekhatorearen errece-bitceaz , çure ganic urrunduac dabiltçan gaichtaguinic handienei ere beren be-khatu gucien barkhamendua osritcen dioçute , eta yuramenturekin seguratcen ditutçu çure ganat itçultcen diren oren eta memento guciez hekien bekhatu gu-ciac ahantcico ditutçula. Orhoit çaité be-raz ene esperantça cordocatua sustengat-cen duen promes contsolagarri hortaz. Eguia da , Jauna , hunkitua eta dolerez çaurthua den bihotz bati choilki promes

hori eguiten dioçula , eta helas! enea  
gucia gogortua eta munduarekin yosia  
da: bainan norc çuc baicen gambia ne-  
çake? Nola çure ganat ethor naiteke , ce-  
ronec ekhartcen ez banauçu? Neroni aski  
eta sobra nintcen ene buruaren eritceco,  
neroni aski eta sobra nintcen ene ari-  
mari colpe mortalaren emateco ; bainan  
çuc choilki senda neçakeçu , eta galdu  
dudan bicia bihur dieçakedaçu. Ezesta  
çatçu heraz ene pasioneen gathe dor-  
pheac, hautz çatçu çure manu adoragar-  
rien bortcha , eta çure fagore gucien  
despit, creaturen amodio ixuaz errean den  
bihotz hau , eta sorraraz çacu ene bai-  
than izpíritu berri bat, eta bihotz berri  
bat, ene bekhatu guciac eçagut , declara,  
eta higuin detçadan , ceronec eçaguteen  
eta higuintcen ditutçun beçala. Prest  
naiz , ene Jauna eta ene Yabe soberanoa,  
prest naiz çure borondatearen complit-  
cera ez naçaçula , othoi , abandona , ur-  
rical bekiçu çure Semc maitearen odol ,  
preciatuaz erosia den arima hau , eta

eguiçu , berac bekhatoreen fagoretan establitu duen mainhu sacratu huntaric egun ilkhi nadin bekhatuaren notha guietaric garbitua.

O Birgina saindua , Jaincoaren Ama eta Jaincoaz landan ene esperantça eta contsolamendu gucia ! Orhoit çaité bekhatoreen iheslekhua eta misericordia-ren Ama çarela ; eguiçu beraz bici phasatuco criuna gucien belztasuna ene nigarrez borra deçadan , eta ardiets dieçadaçú çure Seine maitearen ganic ethor-kiçunean bekhaturic ez eguiteco gracia. Promes darotçut ene habituda , pasione , eta yaidura guciei guerlaric biciena eguiñen diotedala , eta berriz erortcera ekhar neçaketen occasione guciei atçartasunic handienarekin ihes eguiñen diotedala. Emplega çacu ene fagoretan çure arartecotasun botherexua , eta içanaraz dieçadaçú deliberacione hunen complitceco indarra.

*Confesioaren oudoco Othoitçac.*

O ene Jaincoa eta ene Aita amulxua  
eçagutcen dut ez naicela gai çuri behar  
beçala eskerren emateco egun eguin da-  
rotaçun fagore bereciaz. Ceruaren eta  
çure contra altchatu içan naiz, eta çure  
gracia guciac osticatu içan ditut. Çure  
colera eta mendecu gucien objeta içatea  
inereci nuen, eta halaric ere ez nauçu  
abandonatu. Cer diot? ene ondoan ibili  
içan çare, eta haur prodigo, ardi erre-  
belatu hau çure ganat ekhararaci duçu,  
Ceronec ene bihotça gambiatu duçu eta  
ene bekhatu nombre gabeac urrikirekin  
confesatu ditudan memento berean, he-  
kien gucien barkhamendua eman daro-  
taçu. Ez naiz beraz behinere gueldituco  
çuri eskerrenbihurtctic. Ene bicitceco  
oren eta memento guciez laudatuco eta  
benedicatuco çaitut. Egun beretic ukho  
eguiten diot munduari eta munduco  
usaia guciei, çu choilki maitatuco çaitut,  
eta çuri, ceronec eman darotaçun bihotz  
hau oso osoa ofrendatcen darolçut.

O Birgina gloriosa , ene Ama maitea !  
egun heldu naiz çure ganat , eta çure  
oinetan ahuspez ematen naiz. Lagun na-  
çaçu , othoizten çaitut , çure Seme ba-  
kharrari eskerren ematen. Eguiçù , ha-  
ren Ebanyelioa içan dadin ene pentsa-  
mendu , hitz , eta accione gucien erre-  
guela , eta çure amodio sainduan bici eta  
hil nadin.

---

## COMUNIONE SAINDUAN EGUITECO OTHOITÇAC.

LEHENBICICORIC , beiratu behar duçu çure  
ganat heldu dela cerua , lurra eta gauça  
guciac creatu dituen , Jainco mayestate  
handitaco hura , ceinaren aitcinean Ain-  
gueruac eta Serafinac ikhara saindu ba-  
tean baitaude.

Bigarrenean , beha çäçu norenganat  
heldu den : çure ganat , ceina ez baitçare  
haux eta herraux baicen , ceinac hanbat  
gaizki eguin baitioçu.

Hirurgarrenean , ikuhs çäçu certarat heldu den : çure ganat heldu dela çuri bere graciem emaiterat , çuri çure be-khatuen barkhatcerat , eta hitz batez er-rateco , heldu da amodioz osoki çu be-thetcerat.

Laurgarrenean , eçagut çäçu cein behar handitan çaren Jaincoaren errecebittceco : ceren hura baita çure arimaren hazcurria , bere gosean haren asetceco , çure eritasunetaric sendatcea eta tentacioneen contraco indarra.

*Comunione Sainduaren erreccibitceco aitcinean egualeko lehenbicico OTHOITÇA.*

ENE Jainco ona , ceronec egun deitcen nauçu çure ganat , çure graciac ene bi-hotça berotcen duclaric , çure erreccibitceco nahicunde handi eta kharxuetarat. Ohore eta ontasun handi hori eguin nahi darotaçunaz gueroz , çato beraz ene ari-marat , eta ceronec aphain dieçadaçu halaco guisaz , çure nahitarat osoki nausi içan çaitecen , ceronec eguin eta berre-

guin duçun obraz ; eta nic ere neure al-  
detic iduki çaitçadan neure bihotçaren  
gainean Jaincozco ciguilo bat beçala.

*Humiltasunezco Acta.*

ORDEAN, Jauna, nola ni hurbilduko naiz  
çure ganat ! çure handitasunari beguira  
eta ene ez deustasunari , çure chahuta-  
sunari eta ene liçuntasunari , çure sain-  
dutasunari eta ene maleciari ? Jondoni  
Joani-Batista , hain saindu handia , ama-  
ren sabelean bekhatutic garbitua celaric,  
ez cela gai cioen çure çapata lokharria-  
ren urratceco ; Jondoni Petiri , Aposto-  
luen printceac , cioen : Jauna , cohaz ene  
ganic , guicon bekhatoros bat naiz . Eta  
bada ni guciz bekhatoros handiagoa ,  
nola ausartatuco naiz , Jauna , çure ganat  
hurbiltcerat ? Neure baithan ez dut deus  
ere causitcen bekhaturic eta maleciaric  
baicen , neure pasione nahasien nahas-  
mendu gaichtoric baicen . Ene gutticiac  
eta ene gogoeta çarrac içatu dire ene  
bicitcearen leguea eta erreguela . Ez dut

egundaiño behar den penaric hartu çure amodioarentçat; ez naiz çure yusticiaren beldur içatu; ez nau çure legueari çor diodan ikhustateac guibelatu gaiski eguitetic; egundaiño ez darotçut eskerric ongui eman çure ganic errecebítu ditudan ontasunez. Ene bicitce gucia çure contraco guerla bat içatu da; bethi çu niri ongui eguiten, eta ni çuri gaizki eguiten; çu bethi ene bilha, eta ni bethi çure ihesi! Ah! Jauna, eta nola bada hunelaco creatura dohacabe bat ausartatuco da çure gana hurbiltcerat?

Trica çaité hemen aphur bat çure aphaltsunaren eta çure indignitatearen gainean penxatcen duçula, eta guero erraçu confidentzia handi batekin:

Ah! Jauna, aditu dut çure boz estia, ceinac deitcen bainau çure ganat, erraten darotaçula: Çatozte ene ganat, nekhatuac eta sobra cargatuac çaretenaç, eta nic soleïtuco çaituztet. Erran duçu, ene Jaincoa, ez duçula bekhatorearen

heriotcea nahi , bainan bai conberxio-  
nea; ex duçu , Jauna , bekhatorea çu ga-  
nic urruntcen , bainan bai çu ganat  
deitcen. Erran duçu ez çarela mundurat  
yustuen deitcerat ethorri , bainan bai  
bekhatoreen ; ez dutela sendoeç miricu  
beharric , bainan bai eriec. Ene Salbat-  
çaile maitea , çure ontasunean eta çure  
urricalmendu händian neure esperantça  
eta ustantça gucia émanic , heldu naiz  
eria miricua ganat : senda naçaçu ; heldu  
naiz bekhatorea yusticiazco ithurrirat :  
garbi eta saindu neçaçu. Bädakit Publi-  
cano bekhatorosaren nigarrci guehiago  
beguiratu cinduela , Pharisuaren apairu  
supherrari baino ; ez cinituela Magdale-  
naren nigarrac arbuyatu , bainan bai  
barkhatu cinioela , eta çure adiskidant-  
çan hartu. Huna non naicen , Jauna , çure  
misericordiaren oinetan , neure bekha-  
tuen doloreac erdiratu eta porroscaturi-  
caco bihotz batekin. Eguia da ; ez dut  
Magdalenac beçambat nigar çure oinen  
garbitceco , bainan çuc ichuri duçu odo-

lic aski ene eta mundu guciaren bekhatuen chahutceco eta barkhatceco.

*Aita eternalari eguiteco Othoitça.*

AITA ceruhoa, nola obra onic gabe neure baithan aurkhitcen bainaiz, eta ez baitut deus ere çuri neure bekhatuez satisfacione eguiteco; escaintcen daroskitçut çure Seme Jesusen merecimenduac, ceinac baitire handiago ene eta mundu guciaren bekhatuac baino. Escaintcen darotçut neure erospenaren precioa, eta ene Salbatçaiileac bere heriotce dorpheaz enetçat eguin darotçun pagamendua. Jauna, ahal çatçu çure beguiac horren bisayaren gainerat, eta ikhüs çacu horren gorphutça hil guisa aldarearen gai-nean, eta horren odol sari-gabea, khalitçaren barnetic oihuz dagotçula. Entçun çacu çure Seme maitearen eta gure Anaiaren odolaren boça, ceinac bere heriotcean Galbariotic beçala, orai alda-retaric erraten baitarotçu: Aita, barkha dioçoçute, ecen ez dakite cer hari diren;

bekhatoros gaichtoentçat gracia eta misericordia galde tcen darotçula , ceina gurutceficatu baitugu gure bekhatuez.

*Fedezco Acta.*

O JESUS , ene Salbatçailea ! sinhesten dut, feder bici batez , eguiazki eta errealki Aldareco Sacramendu handi horretan çarela ; hor ene izpirituac adoratcen du ene beguiec ikhusten ez dutena , nola baita , çure yaincotasuna , çure guicon tasuna , çure arima , çure gorphutça , çure odola , çure izpiritua eta çure m errecimenduac. Phitz çäçü ene fedea m isterio handi eta adoragarri horren gainean , ô ene Jesus ! çor darotçudan go goeta eta beldur sainduarekin çure gana hurbil nadintçat.

*Amodiozco Acta.*

CURE amodioac eman çaitu , ene Jesus , oguiaren eta mahax armoaren iduriaren azpian , ene ganat ethortcea gatic ; m isterio hortan çure amodioaren indar gucia eracusten duçu. Othoizten çaitut bada ,

ene Jesus , çure bihotça enetçat sultan eman duen amodio berac , enea ere çuretçat bero deçan. Ah ! bihotz hotça , bethi hormatua içanen othe haiz ? Maitha çac , hic ere , hi hain borthizki maithatu hauen Jesus bera. Ochala Jesusen amodio sacratuac erre baleça ene bihotça , eta irex osoki !

Gai ez naicelaric , nahi çaitut errecribitu , ene Jesus , ceren baitakit eman nahi çazkidala , eta çure baithan aurkhituco dudala ene herbaltasun gucien sendatcea. Ene Salbatçaile maitea , ez nuke nahi comunione hau eguin usantça edo ardura batez ; othoi , gracia eguin dieçadaçu bada amodio bero batez , munduko creaturez osoki hux nadintçat , eta çutaz bethe : ceina adoratcen eta maihatcen baitçaitut , çuretçat gucia haxberapenez bethea naicela.

*Ofrendazco. Acta.*

ESCAINTCEN darotçut , ene Jaincoa , orainic eguiterat nohan comunione hau ,

çure amodioa gatic , eta çuri placer eguitca-gatic. Badakit , ene Sabatçaile maitea , comunione saindua hainitz onhesten duçula , hiltceracoan hitz amodiozco samur eta hunkigarrietan aditu guinuen beçala , erraten cinuela : Orhoit çaitsezte nitaz hori eguinen duçuen gucian. Eguiten dut beraz , ene bihotceco Jainco maitea , çue ene arimarat ethortceco duçun guticiari axeguin emaiteco , çurekin yuntatceco , bekhatuari ihes eguiteco , berthutearen obrentçat indarren hartceco , eta neure ezdeustasunaren eçagutceco.

*Andredena Mariari eguiteco Othoitça.*

O BIRGINA gloriosa ! ene Salbatçailearen eta ene Eroslearen Ama , duçun pietate bekhatoros guphidagarri huntaz : ô Trinitate Sainduaren lore ederra , eguiçu enetçat othoitz , çure medioz besarca deçadan , amodio oso batez , çure Seme ene Salbatçailea , eta eguin nadin harren goracoko arima bat. O ceruco Ainguero do-

haxuac ! othoi , lagun neçaçue; parabisuco Saindu eta Sainda guciac, neretçat othoitz eguiçue , ene Jaincoaren gogora comunione hau eguin deçadantçat.

*Bikotz altchapena Jesusi.*

ÇATO , ene Jaun maitea , çato , eta osoki bethe çäçu ene baithan eguin gogo duçun obra miragarria.

O ene bihotceco Jainco maitea ! ez deçaçula guehiago luça ene ganat ethortcea.

Ah ! ene Jaincoa , ala nic baitut guticia handia çure ene baithan errecibitceco !

Aithortcen dut ez naicela creatura ahitu bai baicen , bainan çu oneguia çare , ene behar handiec ene ganat ethortcetic'guibelatceco.

Çato , othoi , ene Sabaltçaille maitea , çu berantexia nago.

Ene Jaincoa , çato ene arimarat , eta saindu eguin çäçu.

Ene Jaincoa , ene bihotçaren yabe eguin çaité eta garbi çäçu.

Ene gorphutcean sar çaitet eta beguira  
çaçu, eta ez naçaçula seculan çure amo-  
diotic utz urruntcera.

O su sacratua! erre çäçu cer ere cau-  
sitcen baituçu ene baithan çure gogora  
ez denic, eta çure graciari eta çure amo-  
dioari traba eguin ahal dioçokenic.

O ceruco mana! indaçu çure gustu  
ona, munduco placer gucientçat higuin-  
lça oso bat içan deçadan.

Erraçu guero *Confiteor*, eta hiruretan:

**J**AUNA, ez naiz ni gai çure errecibitceco;  
bainan erraçu çure hitz saindua, eta ene  
ırıma içanen da sendatua.

Sinhesten dut, ene Jaincoa, fede bici  
oatez, Ostia saindu horretan dela çure  
çaitet gucia.

Adoratcen çaitut ahal den humiltasun  
eta ohore handienarekin, Jainco amodio  
ianditacoa.

## COMUNIONE ONDOCO OTHOITÇAC.

O AMODIO sari gabecoa ! ontasunezco ixasoa , ithurri ecin agor çaitetzkena , ene barnean ohoratcen eta adoratcen çaitudan Ostia Sacratua , bihotz bat gutiegui da çure maithatceco , Jesus dibinoa , eta boz bat halaber gutiegui da çure ontasun handiaren laudatceco .

O ene Salbatçaillea , eta ene Jesus mai-tea ! ala nic çuri çor handia baitarotçut , ni beçalaco creatura pobre bati eguin dioçun bisitaz !

Eguin darotaçun ontasun eta ohore handi horren eçagutçadantçat , çutazco escaintça bat eguiten darotçut çuri ceroni .

Ez , ez dut guehiago bici nahi , bainan Jesus nahi dut ene baithan bici dadin .

Jesus enea da , eta ni harrena eternitate gucico .

O amodica ! ô amodioa , seculan ez  
guehiago bekhaturic !

Ez çaizkit seculan ahantcico , Jesus  
ene Sabatçaileac eta ene Jainco maiteac  
eguin darozkidan ongui eta ontasun ecin  
erran beçain handiac.

*Adoracionezco Acta.*

AH ! Jauna , çu creatura miserable hu-  
nen ganat ethortcea , sobera gracia egui-  
tea da ; Aingueruei baino guehiago eguin  
darotaçú. Hec ez dute çu ceruan ikhus-  
teco eta adoratceco dohaxutasuna baicen ;  
bainan ni çure içaiteaz hazten nauçu ;  
ongui-eguin handi bat da hori enetçat ,  
eta çure amodioaren gaindidura bat nahi  
içatu baituçu sarthu ene gorphutcean.  
Ene baithan çare , ene Jesus , adoratcen  
çaitut , hala nola Aingueruec ceruan egui-  
ten baitçaituzte ; eta nago çure aitcinean  
beldur saindu eta aphaltasun handi ba-  
tekin.

*Eskerrenbihurtceco Acta.*

BIRGINA Saindua , que çure sabel sacra-

tuan ekharri duçun Jesus bera da orai ene baithan. Cergatic ez dut bada ni hambat amodio eta garbitasun nola çuc? Lagun naçaçu, othoi, çure Seme amul-xuac eguin darotan gracia handi huntaz eskerren ematen. Ceruco Ainguerauc, parabisuco Saindu eta Sainda guciak, çuekin batatcen naiz, Jesusi eskerren bihurtceco eguin darotan graciaz. Çuc-ceronec eman darotaçun Semea bera es-caintcen darotçut, ontasun handi horren eçagutçatçat.

*Eskerren bihurtceco Acta.*

JESUS adoragarria, eguiia da beraz ene baithan çarela! naicen bada ni ere, othoi, choilki çure baithan; ez çaitecela seculan ilkhi sarthu çaren bihotz hortaric.

Enc bihotça, othe dakic maithatcen? orai hemen erre behar haiz; sunxi hadi dahaxuki Jesusen amodioaren labe sacratu horretan. Ene arimaren Salbatçaille maitea, gambia naçaçu çure ganat, ez nadin ni guchiago bici, bainan çu bici

aitecen ene baithan : ene penxamendu, ene hitz eta ene obra guciaç , diten niri man çaitan Jesusenac , eta ez eneac. Aguintcen darotçut , ene Jesus , bethi çure aldera leyal içanen naicela ; ez dut adiskidantçaric nahi içan guehiago çure gloriaren exayekin ; ukho eguiten diotet munduari , eta haren atseguin falxoei , debruari , eta axeguin tentacione edo seguida gaichtoei , eta çure manamendu choilei yarraiki nahi natçaye.

AZKENEAN ardiexi dut eta neure baithan dut ene arimac maithatcen duena, ex dut loxaric urrunterat utz deçadan. Ez , ez , gaurguero nahi dut ene bihotça içan dadin haren egon-lekhu ; bainan ene nahi-cundea eta ene dohaxutasuna seguratuagoac içan daitecen , amarratuco ditut borthizki amodioaren gatheaz ; eta gal ez deçadantçat , çaintçaletçat emaiten dut modestia neure beguietan , eta ichiltasuna neure mihian. Badakit ene Jesus maiteac ez duela bihotz erdi edo phichca

bat nahi ; çucen da beraz eman dioçadan neure bihotz osoa. Ez bakharric bihotça, Jesus gueiz maithagarria , bainan oraino emaiten darotçut neure arima , neure gorphutça eta naicen gucia. Har çäçu beraz çurea dena, eta bat eguin neçaçu halaco guisan çürekin , munduco cernahic çure ganic urrun ez eçaketen beçala.

**E**SKERRAC bihurtcen darozkitçut , eta çaitut laudatcen , Aita guciz ahalxua eta saindua , ceren gai ez nintcelaric , ni beharra eta hebaina nahi içatu bainaçu bazcatu eta ase çure Seme Jesu-Christoren gorphutz eta odol sari gabecoaz.

Othoizten çaitut ene ahal guciaz Comunione saindu han içan dadin ene bckhatuen barkhamendutan ; eta eguin deçan , ene baithan ere , gracia hartcen duten arimetan egüiten duen ikuusgarri bera.

Orai ongi eguin en duçu othoitz aberax hunen erraitea :

## INDULGENTCIA PLENARIOA

ERATCHIKIA OTHOITZ HUNI.

HUNA non naicen, ô Jesus ona eta gueiz amulxua ! çure aitcinean belhaunico emana. Othoizten çaitut eta arrakeritcen ene arimaco khar guciaz, ene bihotcean sar araz dietçatçun fedezco , esperantçazco , eta caritatezco sendimenduric bicienac, ene bekhatuen eguiazco urrikia, eta hetaric guehiago ez eguiteco borondateric hazcarrena ; izpirituan beiratcen eta gogoan erabiltcen ditudan demboran, amodio bici eta damu handi batekin, çure bortz çauri sacratuac beguien aitcinean emanez , ô Jesus ona ! Dabid profetac çutaz cioena : « Cilhatu dituzte ene « escuac eta ene oinac ; khondatu dituzte « ene heçur guciac. »

Cofesaturic eta comuniaturic othoitz hau erraiten duenac gurutcefica baten aitcinean , bortz *Gure Aita* eta bortz *Agur Mariarekin*, irabaz deçake indulgentcia plenarioa , eta libra Purgatorioetan den arima bat. (*Clem. VIII, Benoit XIV, Pio VII.*)

YESUSEN BIHOTZ SACRATUAREN  
OHORECATO  
LETHANIAC.

**J**AUNA, urrical çakizkigu.

**J**esu-Christo, urrikal çakizkigu.

**J**auna, urrical çakizkigu.

**J**esu-Christo, adi gaitçatçu.

**J**esu-Christo, entçun gaitçatçu.

**J**aincoa Aita, ceruetan çarena, urrical çakizkigu.

**J**ainco Izpiritu Saindua, urrical çakizkigu

**T**rinitate Saindua, hirur presunetan

**J**ainco bat çarena, urrical çakizkigu.

**J**esusen bihotça, içan eçaçu pietate.

**J**esusen bihotça, Birgina baten sablean formatua,

**J**esusen bihotça, berbo eternalarekin  
bat eguina,

**J**esusen bihotça, Jaincoaren egon le-  
khu sacratua,

**J**esusen bihotça, Trinitate Sainduaren  
tabernaclea,

içan eçaçu pietate.

esusen bihotça , Saindutasunaren  
templua ,  
esusen bihotça , eternitate guncian  
emanen diren gracia gucien ithur-  
burua ,  
esusen bihotça , cztitasunez eta hu-  
militatez bethea ,  
esusen bihotça , amodiaren suzco la-  
be sacratua ,  
esusen bihotça , eguiazco contricio-  
nearen ithurburua ,  
esusen bihotça , coinetan baitire cer-  
ratuac cuhurtciaren tresor guciac ,  
esusen bihotça , ontasunaren ixasoa ,  
esusen bihotça , Jaincoaren miseri-  
cordiaren thronua ,  
esusen bihotça , berthute gucien  
molde perfeta ,  
esusen bihotça , Jaincoaren etche eta  
ceruco athea ,  
esusen bihotça , tresor ecin akhituz-  
coa ,  
esusen bihotça , coinaren bethetasu-  
netic guciac erreccibitu baititngu ,

İçan eçaçu pietate .

Jesusen bihotça , deitcen çaituztenen  
alderat aberax eta liberal çarena ,  
Jesusen bihotça , gure bakea eta erre-  
contciliacionea ,  
Jesusen bihotça , ostia bici , saindu eta  
Jaincoari agradatcen çayona ,  
Jesusen bihotça , gure bekhatuen bar-  
khaniedutan bictima yarria ,  
Jesusen bihotça , bethiereco bicitce-  
raino hedatcen den uraren ithur-  
burua ,  
Jesusen bihotça , ur bicigarrien ithur-  
ria ,  
Jesusen bihotça , Olibetaco baratcean  
tristecia handienean pulumpatua ,  
Jesusen bihotça odolezco icerdiz ahi-  
tua ,  
Jesusen bihotça , ahalkez eta afruntuz  
gure-gatic asea ,  
Jesusen bihotça , gure bekhatuengatic  
dolore bicienez porroscatua ,  
Jesusen bihotça , gurutce baten gai-  
nean heriotceraino obedient içan  
çarena ,

Içan eçacu pietate.  
Içan eçacu pietate.

Jesusen bihotça , lantça colpe batez  
cilhatua ,

Jesusen bihotça , gurutcearen gainean  
odolez hustua ,

Jesusen bihotça , bekhatoreen ihes le-  
khua ,

Jesusen bihotça , yustuen indarra ,

Jesusen bihotça , afliyituen conxola-  
cionea ,

Jesusen bihotça , tentacionez behar-  
tuac direnen sostengua ,

Jesusen bihotça , ifernuco izpiritu  
gaichto guciac , ikharatcen dituena ,

Jesusen bihotça , yustuei cure amo-  
dioan iraun arazten dioçutena ,

Jesusen bihotça , çu baithan hiltcen  
direnen esperantça ,

Jesusen bihotça , dohaxu gucien boz-  
carioa ,

Jesusen bihotça , bihotz gucien bihotça  
eta erreguea ,

Bekhatu gucietaric , beguira gaitçatçu ,  
Jesus ,

Bihotçaren gogortasunetic , beguira gai-  
tçatçu , Jesus .

İçan ecaçu pietate.

İçan ecaçu pietate.

**Heriotce bethierecotic, beguira gaitçatçu,  
Jesus.**

**Jaincoaren bildoxa, mundutic bekhatuac  
khentcen ditutçuna , barkha dieçagu-  
cu , Jauna.**

**Jaincoaren bildoxa, mundutic bekhatuac  
khentcen ditutçuna , entçun gaitçaçu ,  
Jauna.**

**Jaincoaren bildoxa, mundutic bekhatuac  
khentcen ditutçuna , urrical çakizkigu ,  
Jauna.**

**Jesús , adi gaitçatçu.**

**Jesus , entçun gaitçaçu.**

\* . Jesus , bihotz humil eta amulxua ;

¶ . Eguiçu neure bihotça , çurea beça-  
lacoa.

---

## **ANDREDENA MARIAREN LETHANIAC**

*Escuaraz.*

**JAUNA , urrical çakizkigu.**

**Jesu-Christo , urrical çakizkigu.**

**Jauna , urrical çakizkigu.**

Jesu-Christo , adi gaitçatçu.  
Jesu-Christo , entçun gaitçatçu.  
Ceruco Aita , ceina baitçare Jaincoa , urrical çakizkigu.  
Semea , munduaren Salbatçailea , ceina  
baitçare Jaincoa , urrical çakizkigu.  
Izpiritu Saindua , ceina baitçare Jaincoa ,  
urrical çakiskigu.  
Trinitate Saindua , ceina baitçare Jainco  
bakhoitz bat , urrical çakizkigu.  
Maria Saindua , othoitz eguiçu guretçat.  
Jaincoaren Ama Saindua ,  
Biryinen Biryina Saindua ,  
Jesu-Christoren Ama ,  
Gracia Dibinoaren Ama ,  
Ama guciz chahua ,  
Ama guciz garbia ,  
Ama hekhaturic içatu ez duçuna ,  
Ama tatcharic içatu ez duçuna ,  
Ama maithagarria ,  
Creatçailearen Ama ,  
Sabatçailearen Ama ,  
Biryina guciz prudenta ,  
Biryina ohoragarria ,

Othoitz eguiçu guretçat.

Biryina laudagarria ,  
Biryina puchanta ,  
Biryina amulxua ,  
Biryina leyala ,  
Justiciaren miraila ,  
Çuhurtcaren tronua ,  
Gure bozcarioaren causa ,  
Untci izpirituala ,  
Untci ohoragarria ,  
Arrosa misteriozcoa ,  
Dabitent dorrea ,  
Dorre borthitça ,  
Urrezco palacioa ,  
Bakearen arca ,  
Ceruetaco portalea ,  
Goiceco içarra ,  
Erien osasuna ,  
Bekhatoreen ihes-lekhua ,  
Doloratuen conxolatçailea ,  
Guiristinoen fagorea ,  
Ainguueruen erreguina ,  
Patriarken erreguina ,  
Profeten erreguina ,  
Apostoluen erreguina ,

Othoitz eguiçu guretçat.

Martyren erreguina , othoitz eguiçu guretçat.

Confesoren erreguina , othoitz , etc.

Biryinen erreguina , othoitz , etc.

Saindu gucien erreguina , othoitz , etc.

Thona gabe concebitu erreguina , othoitz eguiçu guretçat.

Jaincoaren bildoxta , ceinac khentcen baititutçu munduaren bekhatuac , barkha dietçagutçu , Jauna.

Jaincoaren bildoxta , ceinac khentcen baititutçu munduaren bekhatuac , entçun gaitçatçu , Jauna.

Jaincoaren bildoxta , ceinac khentcen baititutçu munduaren bekhatuac , urrical çakiskigu.

Jesu-Christo , adi gaitçatçu.

Jesu-Christo , entçun gaitçatçu.

## SAN BERNATEN OTHOITÇA

## ANDREDENA MARIARI.

Orhoit çaité , ô Biryina Maria , guciz ona eta urricalmenduxua ! ex dela egundaiño

aditu nihor çure-ganat ihes eguin due-nic , çure laguntça galdetu duenic , çure arartecotasuna bilhatu duenic , çutaz içan dela abandonatua. Nic erc fidantcia beraz gogoa sustatua , çure-ganat , ô Biryina , biryinen Ama loriosa , laster eguiten dut , çuganat heldu naiz ; auhen minetan , ni bekhatorea , çure oinetarat erortcen naiz : ez deçaçula , ô Berboaren Ama , ene othoitça arbuya , bainan adi çäçu fagorezki , eta cñtçun çäçu. Halabiz.

---

## MEDITACIONE SALBAGARRIAC.

---

### ABISU PREMIATSUA.

Meditacionea hasi baino lehen , eman çaitemanera bereci batez Jaincoaren presentcian : hastia çure bekhatu guciac : galda Izpiritu Sainduaren laguntça ongui baliatceco iracurteez , eta meditacioneaz : iracur Jainco Jauna bera mintço balautçu beçala errespetu , amodio handi batekin : bara memento bat guehienie hunkitcen çaituzten gaucen gainean ;

‘hec ongi har izpirituan eta bereciki bihotcean: azkenean gomenda andredena Mariari çure sendimendu eta chede onac.

*Meditacionea FEDEAZ.*

I.

FEDEA da Jaincoaren dohain bat coine-taz sinhesten baititugu osoki eta cinez Jaincoac Eliça ama Sainduari eracutsi dituen egua guiac. Fedea da berthute surnatural gucietan lehena , arimaren bici lehena: fedea da erreligione Sainduaren cimendua , Jaincoaren haurren seinale berecia. Oh ! çoin handiac diren sedearen ongiac ! Fedeac arguitcen du gure izpiritua hain bertce egua preciatuen eta beharren gainean ! Iguzkia gure beguien arguitceco baino nesesariago da fedea gure izpirituen arguitceco. Itsuac baino urricalgarriago guinitazke , ez baguindu sedearen argui miragarria. Ez ditugu gutiago preçatu behar fedeac gure bihotcetan eguiten dituen ongiac. Fedeac eçagutarazten eta maitharazten

deraucu berthutea, eçagurazten eta higuintarazten gaizkia, bekhatua, bicioa. Ah ! dohatsu miletan dohatsu gu, eguiazco fedeaz arguituac garenac ! Oh ! cer eskerrac ez ditugu bihurtu behar Jaincoari dohain bereci hunentçat gure bici gucian !

## II.

Hemen aiphatcen dugun feda osoki nesesarioa baitez-padacoa da salbatceco. Ez da berthute guiristinoric feda gabe. Combatenaz feda azcarrago, biciago baita, hambatenaz arima ederrago da Jaincoaren beguietan. Feda içan behar da azcarra, eta fedearen indarrac behar deraizeu garraitaraci gure arimaren et-sayac, mundua, debrua eta gure naturaleça gaichtoa. Feda ez du deusec ere cordocatu behar. Hain segura da nola Jaincoa. Hain bertce Martyrec eman dut beren bicia guc dugun fede hunen berarentçat. Guc ere nahiago içan behar du-gu bicia galdu ecenez feda. Feda gal, arima gal, oro gal. Gure feda içan be-

har da osoa. Sinhetsi behar ditugu fedezco eguiac guciac, Eliçac eracusten deraizcun beçala. Fedea içan behar da obrez seguitua: bertece naz sede hila da. Fedeac manatcen derautçu othoitçari yarraikitcea, behar duçu beraz othoitçari yarraiki: Fedeac manatcen derautçu etsayari barkhatcea, barkha beraz bihotcez etsayari. Fedeac debecatcen derautçu ebascoa, guiçon hiltcea; bada fede berac debecatcen derautçu orobat deshoneskeria. Beraz fede eguiazcoa edo salbacitçazkeen fedea nahi baduçu eracutsi. behar tuçu ebascoa, guiçon hiltcea beçala ebitatu lohikeriac, deshoneskeriac çure gogoetetan, çure hitcetan, çure manera gucietan. Fedeac manatcen derautçu Eliçaren manamenduen beguiratcea Jaincoarenac beçala. Eracuts çaru çure fedea yarraikiz Jaincoaren manamenduei beçala Eliçaren manamenduei, çure ahal guciez. Galda çaru, galda bethi Jaincoari fede azearbat, fede oso bat, fede eguiazco bat: Jauna, othoi, emenda çaru ene fedea.

III.

Bainan fede azcar, fede oso hori ez o-the da flacatcen ari, iraunguitcen ari gure artean? Gure aitçinecoac hain fede handitacoac, eta guc hain fede ttipia, hain flacoa, hain erdizcacao! Cerbait ikerki ondoan, cerbait entçun ondoan fedearen contra, erreligionaren contra, duda batçu nola nahi atchikitcen izpiri-tuan, eta horrela fedea colpatcen, fedea hausten: fedeac manatu obligacione batçu aski arthoski bethetcen; bainan bertce obligacione batçu fedeaz orobat manatuac, debalde uzten: demendren irri, demendren trufa batentçat, ahal-guetcen fedeaz, erreligioneaz, bertcec beçala eguiten, bertcec beçala hain er-rechki hausten Jaincoaren edo Eliçaren manamendu bat edo bertce. Ah! cembat guisetarat ez dukeçu bekhatu eguin fedearen contra! Damu handi bat içam çäcu hutz horietaz: ebita çaitçu hartaric handienarekin. Nun nahi, cer nahi, no-ren ganic nahi, entçunic ere fedearen

contra , erreligionearen contra , ex deça-  
cula behinere halacoric sinhets. Erreligio-  
nearen contra , fedezco eguien contra  
erraiten diren guciac , bethi gueçurrac  
dire. Beraz , nun nahi , cer nahi , noren  
ganic nahi , ikhusiric ere , norc nahi cer  
nahi eguin deçan , erran deçan , çuc ,  
chistau maitea , içan caçu bethi errespe-  
turic handiena erreligione sainduarent-  
çat , Eliçaco aitçindarientçat , Eliçaren  
manu eta debecu gucientçat : beguira  
caçu bethi , çure fedea , çure sinhestea  
fermu , eta oso-osoa , behinere demendren  
dudaric atchiki gabe fedezco eguien gai-  
nean , behinere deusetaz cordocatcea utci  
gabe. Ez nehun , ez nihoren aitcinean  
ahalgue içan çure fedearaz , çure erreligio-  
neaz. Urricalmendu içan caçu fede  
gabecoez : othoitz eguin heyentçat. Jau-  
na , argui caçu ene fedea gueroago gue-  
hiago , azcar caçu , borthitz caçu : indaçu ,  
othoi , ene fedearen araberaco bicitcea ,  
bicitce bat eguiazki eta osoki guiristi-  
noa.

Iracurtce edo meditacione bakhotcharen ondotic, eguin deçakeçu othoitz hau Andredena Mariari :

Çure arartecotasunerat ihes eguiten dugu, ô Jaincoaren Ama guciz saindua : ez ditçaçula arbuya gure othoitçac gure behar orduetan : bainan beguira gaitçaçu lanyer guciataric, ô Birgina loriosa eta benedicatua ! Halabiz.

---

*Meditacionea CREACIONEAZ.*

I.

**C**ONSIDERA çacu Jaincoac eguin caituela. Ez du hain dembora handia munduan carela : cembait urthe baicen ez du bici carela ; ordu arthean non cinen ? Cer cinen ? Ezdeusean ; ezdeus bat çu ceroni. Iguzki hau bacen , ez ordean çure argiteco ; lurrac fruituac ekhartcen cituen , ez ordean çure hazteco ; mundu hau bacen , ez ordean çu huntan : ex cinen oraino diren gaucen artean lurreco har bat baino guechiago, hautsa eta herrautsa

baino chumeago, ezdeus phuru bat ci-nen : horra çure estatua nolacoa cen duela cembait egun, edo ilhabete aphur. Nola betbetan causitu çare munduan ? Norc eman darotçu içatea? Noren ganic duçu bicia? Ceroni ecin eguin cintezken; munduko creatura guciac ez ciren gai çure gorphutçaren formatceco, eta gu-tiago ciren capable çuri arimaren ema-teco. Jaincoac eguin çaitu beraz, haren escuen obra çare, hora da çure eguilea: Cer obligacione ez diocu Jaincoari eman darotçunaz gueroz içatea eta bicia ! Orai duela cembait urthe ezdeus bat cinela orhoitcen baçare nola çure ezdeustasuna ahantcirim supherbio içan othe çaitezke ? Munduko laudorio eta lausengu guciec nola cure bihotça altcha eta hant deça-kete ? Bihur çaitiçure herrautserat, eta ezdeussetaric eguin çaituen Jaincoari es-kerrac emanez, haren graciac çure bi-hotcean distiatuco du.

II.

Contsidera çacu nolacoa eguin çaituen

çure Jaincoac. Cembañ dohain ez darotçu eman guïçon eguin çaituenean? Gorphutz bat baduçu bere postura nobleaz, bere membro gucien edertasunaz eta empleguaz gaineraco creatura agueri direneta-ric distingatcen, eta hekien errengue eguiten çaituena. Jaincoac eman darotçu adimendua, çure baithan, çutaz campoan çu baino beherago, çu baino gorago di-ren gaucen, eta Jaincoaren beraren eça-gutceco gai dena. Eman darotçu memo-rio bat, mila gauça on eta probotchosez berthe deçaçukena. Eman darotçu bihotz bat Jaunaren maitatceco, Jaunaz goçat-ceco gai dena: eta holetan bere idurirat eguin çaitu. Eçagutu othe duçu cein ba-liosa cinen? Consideratu othe duçu cem-bat ohoratu behar cinduen çüre baithan Jaunaren iduria? Othe cinakien, bekha-tuac imagina huru nothatcen eta dese-guiten çuela? Helas! Jauna, aithortcen dut ene falta, condonatcen dut ene bu-rua, egun eçagutcen dut ongui maiz eta sobretan ene baithan belztu dudala çure

iduria ; eman dieçadaçu beraz bihotz urrikimenduz doloratu bat ; yan araz dieçadaçu nigarrezco ogua eta edan araz dieçadaçu abundantki ene nigarren ura.

III.

Contsidera çäcu certaco eguin çaituen Jaincoac. Beretçat eguin çaitu ; ez du bertce chederic içan çu eguitean , eta ecin çukan : Creatura bakotchari eman dio bere fina : cure azken fina Jaincoa da, Jaincoarentçat çare beraz. Cure izpiritua haren ecagutceco , cure memoria har-taz orhoitceco , cure bihotça haren mai-tatceco ; çu çaren gucia haren ohoratceco çare. Beguiac ikhusteco , beharriac adit-ceco ditugun beçala : ni ere gucia oso osoa Jaincoarentçat naiz. Obra bere egui-learena da, eta ni norena içan behar othe naiz ene Creatçalearena baicen ? Ez naiz lurrean onthasun biltceco , ez naiz münduan placeren edo aisien hartceco , bainan choilki eta bakharric ene egui-learen cerbitçatceco ; haren cerbitçatceco ez den gucia debecatua çait ; nic eguiten dudana

harentcat ez bada, ene eguimbidea haus-  
ten dut, hartaz landan bertce cer nahi  
dénentçat eguin deçadan, ohoinkeria  
bat, inyusticia bat da, ceren dudan gu-  
cia, naicen gacia, eguin ahal deçakedan  
gacia çor baidiot. Ah ! cembait humiliat-  
ceco suyet ez dut ikhusten ene baithan !  
Cembat ohoinkeriaz, ceinbat inyusticiaz  
ez naiz hobendun ene Jaincoaren aitci-  
nean ! Jaincoaz, eta haren araberaco  
gaucez entretenitu othe da bethi ene me-  
morioa ? Jaincoaren eta Jaincozco gaucen  
maitatcen haritu othe da bethi ene bi-  
hotça ? Jaincoaren cerbitçuan emplegatu  
othe ditut ene demborac, indarrac eta  
onthasunac ? Ene eguiteco bakharra içatu  
othe da Jaincoaren cerbitçatcea ? Hala  
behar cen ; ez da ordean halacoa içatu  
ene bicia. Ezdeuskeriei eman diotet ene  
haurtasuna, erhokeriei ene gaztetasuna,  
inutilkeriei ene gaineraco dembora. Dos-  
tetec, axeguinec, eta maiz bekhatuzcoec  
occupatu dute ene bicia. Banitateari,  
gueçurrari gaichtakeriari eman diotçatet

ene Creatçaileari çor niotçan arima eta  
gorphutça , arimaco eta gorphutceco  
ahal guciekin. Daimu dut, Jauna , ene  
inyusticia iraganaz , hartcen dut erreso-  
lucionē fermu bat hemendic harat çure  
cerbitçuan emplegatceco ditudan guciac ;  
kharxuki cerbitçatuco çaitut azken haxe-  
rainocoan.

---

*Meditacionea guiristinoaren dignitateaz.*

I.

JAINCOAC gracia eta fagore handia darot-  
çu bathaioaz guiristino eguin çaituenean.  
Cer cinen munduan aguertu cinean? Cer  
cinen çure amaren sabelean contcebítua  
içan cinen instant berean! Aita-Adame-  
ren bekhatuaz belztua , lepra huts egui-  
na , çauri beltz batez estalia , Jaincoaren  
exaia , Cerutic desterratua ; etcen Jain-  
coa çure Aita , Cerua ez cen çure pri-  
mantça , orduan hil bacine , çureac eguin  
çuken , eta eternitateco galdua cinen ,  
Jaincoaren presentciaz eta gloria ez cinen

seculan goçatuko. Jaincoa cen bakharric  
gai bekhatu originalaren notha beltcetic  
çure garbitceco, eta bckhatuac çure bai-  
than deseguin çuen imagina ederraren  
erreberitceco ; ez cinuen merici orduan  
pena baicen : cembañ haur ez dire dese-  
guiten bere amen sabeletan ! Cembañ ez  
dire hilac sortcen , edo baithaiatu gabe  
hiltcen ! Çu sorthu çarenean cembañ  
bertce haur ez da sorthu Juduen , Paga-  
noen Turcoen ganic ! Hec bada çu beçala  
Jaincoac eguinac dire ; çu beçambat gosta  
çaizco Jesu-Christori , eta çu hec gücie-  
taric hautatu çaitu , misericordiaric han-  
dienaz çorigaitz hartaric beiratu çaitu.  
Cer esker , cer laudorio ez dioçu beraz  
çor hain fagore handarentçat !

## II.

Bathaioaz ardietsi cinduen dignitate-  
ric , edo goratasunic miragarriena. Jain-  
coaren ume eguin çare , Jesusen membro  
maite , Izpiritu sainduaren templo bici ,  
Ceruco primu. Aitac behatu darotçu bere  
haur bihotcecoari beçala ; çure Alta da

graciaz, cu haren ume çarebihurtua: Jesusen haurride, primu lagun, membro bici; Jesus da çure buruçaguia, cu haren gorphutz mysticoaren pharte eta portcione maitea. Izpiritu sainduac çure bihotcean sincatu du bere egoitça, haren templu bici eguin çare. Cerua da çure herria, çure primuça; çucen duçu Aita Cerucoaren erresuman, eta orduan hiltceco çoriona içan bacindu, deuzec ez cintuen guibelatuco instant batez ere Jaincoaren gloriaz goçatcetic. Cein mai tagarria ez cinen Jaincoaren beguietan! Nola distiatcen çuen çure arimac! Dohainez gucia birriguindua, graciaz gucia beztitua, Ceruco tresorez gucia aberastua cinen. Norc ongui eta aski estima deçake guiristinoaren dignitatea: bainan eçagutu othe dut ene noblecia? Ohoratu othe dut ene cthorki handia? Marcatu ere othe diot haimbat maitatu nauen Jaincoari ene eçagutça.

### III.

Çure dignitatearen, edo goratasuna-

ren araberacoa içan behar da çure bicitceco moldea. Jaincoa da çure Aita, beraz huru ohoratu behar duçu, huru maitatu behar duçu, hari obeditu behar dioçu, huru çure ahalaz imitatu hebar duçu, huru saindu den beçala çu ere saindu içan behar çare. Hala içatu othe çare? Examina çure burua eta ahalca çaito orhoitcean cein laster galdu cinduen çure baithaioco innocentia. Jesu-Christoren membro çare, beraz hari lothua egon behar çare, deusec ez çaitu behar sepharatu haren ganic; harc estimatu eta maitatu duena estimatu eta maitatu behar duçu, harc mezpreçatu eta hinduinduena mezpreçatu eta higuindu behar duçu: humil, ehti, pacient içan behar çare, çure guticia güciac mortificatu behar tutçu. Hala eguin othe duçu? Hellas! ez othe da eguia, eguin behar nueñaren contrarioa eguin dudala? Ez dut Jesus seguitu; mundua, haraguia, placa, horra nic bilhatu eta seguitu ditudan nausiac. Izpiritu sainduaren templo

çare; beraz çure arima eta gorphutça garbi içan behar dire, bekhatuac ez du çure baithan lekhuric causitu behar. Cer afruntu ez dioçu beraz eguin Izpiritu sainduari haren plaçan eman duçunean ilhumbetaco printcea? Guiristino beçala Ceruco primu çare, beraz hura desiratu behar duçu; haren ardiesteco ahal guciac emplegatu behar tutçu; munduari çure desterruco lekhuari beçala behatu behar dioçu.

Nihoiz ere desiratu othe duçu Cerua? Ez othe çaitçu lakhetu çure desterruan? Ohoratu othe duçu çure icen handia? Ez, ene Jauna eta Yabe soberanoa, ez dut orai artean ongui eçagutu cer cen guiristino içatea; ahantz çatçu ene eskergabetasun eta errebelamendu guciac; promes ematen darotçut, çu, ô! Aita Jaincoa, mai-tatuco çaitudala ene Aita beçala; çu, Se-me guiçon eguina, seguituco çaitut ene buruçaguia beçala: çu, ô! Izpiritu Sain-dua, ene bihotcean ekharrico çaitut ene Jauna beçala: ô! Ceru maitea! ô pri-

muça dohaxua! çure ondoan ibilico eta  
trabailatuco naiz ene bici gucian.

---

*Meditacionea bekhatu mortalaz.*

I.

**E**z guiçonec , ez Ainguueruec ecin neurt  
deçakete bekhatu mortalac Jaincoari  
eguiten dioen aſruntuaren hedadura.  
**J**aincoa da mezpreçatua, eta nortaz? Gui-  
çonaz, bere creaturaz, bere escuen obraz,  
lurreco har eta chichari ez deus batez.  
**J**aincoa mintço da, Jaincoa, bere legueac  
eman ditu. Ez othe du çucen guri manat-  
ceco ? Ez othe du arraçoin gure obedien-  
tciaren igurikitceco ? Ez othe da gure  
**J**aun soberanoa , gure içatea , bicia ,  
ahala eman darocuna? Bizkitartean haus-  
ten dugu haren leguea , osticatcen dugu  
haren manua , eta mihib erraterat au-  
sarta ez quintezkena , obraz erraten du-  
gu, ez dugula nahi cerbitçatu. Erregue  
gucien Erreguea, Jaunen Jauna da guc  
mezpreçatcen duguna ; Jainco handi

hura bere beguien aitcinean ofensatcen  
dugu, berac ikhusten gaituela dakigun  
demboran, haren manuac osticatcen di-  
tugu; gue, bai guc, ez deus batcuec,  
dugun hain ausartcia harrigarria! O Ce-  
ruac! espanti çaitzete eta lurra ikhara  
bedi; horra nolacoa içatu naicen! Ni bai  
ni, Jauna, çure contra altchatu naiz.  
Nor çare çu? Eta nor naiz ni? Çu guciz  
gora, eta ni ezdeustasuna bera. Norc eça-  
gut deçake çure handitasun mugarri ga-  
bea? Eta beraz norc neurt deçake be-  
khatu mortalaren malecia infinitua? Nor  
da monstro hunen dorphetasun gucia  
compreni deçakena? Nola hain crudelki  
tratatu dudan Jaincoac utci darot bicia?  
Nola ez nau Ifernuco lecean hondatu?  
Nola nagoke nigarrez eta dolorez urthu  
gabe?

## II.

Bekhatu mortalac Jaincoa eskergabe-  
tasunic beltcenaz pagateen du; bekhato-  
reac bere egualea, bere Aita, bere adis-  
kidea ofensatcen du; guicona Jaincoaren

emaitcez berez baliatcen da bere ongi  
eguilearen mezpreçatceco ; haren eca-  
gutceco duen izpirituz, hartaz orhoitce-  
co duen memorioz , haren maithatceco  
duen bihotçaz , haren laudatceco duen  
mihiaz , haren cerbitçatceco duen osasu-  
naz , podoreaz , carguaz , demboraz ; gu-  
ciez cerbitçatcen da haren desohoratce-  
co : ez da eguaia , hautaz guciez , edo hau-  
tarie cembaitez baliatcen çarela bekhatu  
eguiteco ? beraz eguaia da , Jaincoaren do-  
hainac berac Jaincoaren contra emple-  
gatcen ditudala. Othe du ingratasun hu-  
nec bere pareric ? Nola deithuico dugu  
guiristino lacho baten eskergabetasun  
hau ? Hitça faltatcen , eta bihotçac escas  
eguiten darot , ô ene Jaincoa ! hain cru-  
delki tratatu çaitudala orhoitcen naice-  
nean. Oha beraz , ô ! monstro beltça ,  
aparta hadi ene aldaketaric ; ukho egui-  
ten doroat oraico eta seculaco , ez diat  
nahi hirekin pharteric.

III.

Bekhatu mortalaren etkergabetasuna

urrunago doha oraino; bekhatu mortala eguiten duenac ofensatcen du bere Jainco Jauna, ongi eguiten hari caion, eta guehiago oraino eguin nahi dioen dembora berean; instant guciez conserbatcen du, hazten eta bazcatcen du, Ifernutic beirat cen du, eta orduan berean mezpreçatcen du; aguinctcarie maitagarriennac eguiten diotça; Jaincoac prometatcen dio guiçonari, haren leguea beguiratcen badu, bere adiskidetasuna, bere laguntça, bere gracia, bere gloria, eta hori bethico, eternitate gucico. Sari handi hunec ez othe du hunkituco? Ez, aguinctea hautaz casu guti egninic bekhatu mortala eguin du; placer labur bat, axeguin iragancor bat hartcea gatic, cer diot? pasione brutal bat contentatcea gatic, ukho eguiten dio Jaincoaren amodiaari, Parabisuari; maiteago du instant batetaco satisfaccionea, Cerua, Jaincoa baino; trufatcen da Jaincoaz, Jaincoaren sagorez eta aguinctea guciez. Ah! Jauna ez naki en cer hari ninteen, ez nuen eça-

gutcen cein eztia eta salbagarria cen çure leguea. Orai arguitcen nauçu çure graciaz, orai idekitcen darozkidatçu beguiac, eta orai higuincten dut ene burua. Çuri eskerrac, eta eskerric handienac çor darozkitçut, ceren ez nauçun punitu ene insolencia eta ingratasunaren arabera. Mereci nuen Ifernua, eta oraino hemen uzten nauçu, garbituco ditut nigarrez ene faltac, eta bicico naiz çuretçat. Nahiaigo dut hil ecen ez çu bekhatu mortalaz ofensatu.

---

*Bigarren Meditacionea bekhatu mortalaz.*

I.

**B**EKHATU mortala da Jesu-Christoren burrego eguiazcoa; harc colpatu, sarraskitu eta eman du hain estatu urricalgarrian, harc hil araci du Juduen ezcuz, eta nic bekhatu mortala eguin dudan aldi guciez, erreberritu dut Jesusen Pasione sacratua. Possible da horren urrun yoan naicen! Nic ene Salbatçailea gurutcefica,

hambat on eta ontasun eguin darotan on-loan ! Hura ene gatic sor establia batean , hura pobre bici botica ilhun batean , hura nékha eta odolez icert ene onetan, hura hil bi ohoinen artean çauriz estalia , açote colpez larrutua , burutic pinetaraino odolztatua , arrantcez khoroatua , afruntu suerte guciez sasiatua , eta ene gatic haimbertce eguin eta sofritu duen Jainco guiçon hura berri berritan gurutcefica ; comprehenitu othe dut cer eguin dudan bekhatu mortalean erori naicenean ? Ah ! Salbatçaire adoragarria , çure sortceac , çure bicia eta heriotceac çagutarazten darot bekhatu mortalaren malecia beltça . Ah ! monstro latzgarria , higuintcen haut herioa , Ifernua bera baino guehiago : ez nauc guehiago enganatuco , sobra plaça utci daroat ene bhotcean , hire contra harmatua nagoc , bethi guduau harico natçaic eta esprantça diat ene Jaincoaren laguntçarekin batean bentçutuco haudala.

II.

Bekhatu mortala da guiçonaren exaic handiena eta arimaren burrego bakharrak. Graciak, Jaincoaren amodioak eguiten du arimaren bicia, eta bekhatu mortalac eguiten du arima haren heriotcea, gorputça arima gabe hila den beçala, arima gracia saindutzen duena gabe hila da. Bihotça bi erdi eguiteñ duen ezpata colpeac gorputceco bicia erainten darotan beçala, bekhatu mortalac arimaco bicia galarazten darot. Hil nahi ninduken exai bat ihes eguin nioçoke, eta Jaincoaren beguietan hil nauen bekhatusic ez naiz urrundu, bainan onhetsi, maitatu, bilhatu dut. Cer erhokeria! barbaria! cer crudelitate ez dut içan ene buruarentçat! Akhabo da, Jauna, eguidu, seculan ez naiz aski erho içanen bekhatu mortalaren eguiteco. Ez munduac bere aguincta, edo dichiduekin, ez Ifernuac bere fineria edo tromperiekin, ez eta pásioneec bere adrecia edo lausenguekin, deusec ez nau ekharrico ene ari-mari colpe mortalaren ematerat.

III.

Bekhatu mortalaren itsustasuna hobekiago eçagutceco , contsidera deçagun nola punitu duen Jaincoac dembora gucietan. Ainguerauc bere Creatçailearen contra altchatcen dire. Lucifer bere urguluaz guciz gora deitcen denaren tronuraino igan nahi da , eta gogoeta hau desira urguiluxu hau bet betan da garrazki punitua ; Cerutic da Ainguerau hain ederra bere lagun guciekin bethicotz desterratua , Ifernuco lecerat da condensatua. Gure lehembicico burhasoec yaten dute fruitu debecatua , eta betan galten dute , beretçat , bere ondoco gucientçat , gorphutceco eta arimaco bicia ; lurreco Parabisu maitagarritic khenduac dire , nigarretarat , nekhetarat condensatua dire ; bekhatu mortal haren ondoreac dire munduko pena , chagrin , goseste , guerlate , miseria , eritasun , atsecabeguciac , heriotcea bera harc soraraci du munduan. Nola guero usteco dut ezdeuskeria , dosteta , edo gauça gutia dela

bekhatu mortala , hain garrazki punitua  
ikhusten dudanean ? Cerc mundu gucia ,  
çortci presunaz landan , uholde yenera-  
laz ithoraci du ? Cerc suzco eta sufrezco  
uri batez erre eta contsumitu ditu Sodo-  
ma eta Gomorra bertce hiri dohacabee-  
kin ? Cerc bada ? Bekhatu mortalac . Erre-  
flexione haue ez othe dire gai içanen niri  
eçagutarazteco cein higuingarria den be-  
re creaturetan hain garrazki Jaincoac  
punitcen duen bekhatu mortala ? Cein  
gauça icigarria den monstro insolentiaz  
eta ingratasunez bethe hau ? Bai , ene  
Jauna eta ene Jaincoa , ikharatcen naiz  
ikhusteaz cein garrazki punitu duçun  
bekhatu mortala ; instant huntaric guerla  
declaratcen diot , eta çuretçat içanen  
naiz oso osoa : indaçu gracia , çuc inspi-  
ratcen darotaçun deliberacione hunen at-  
chikitceco , çure cerbitçuan bicitceco eta  
hilitceco .

---

*Hirurgarren Meditacionea bekhatu mortalaz.*

I.

BEKHATU mortalac calteric händiena eguiten dio gure arimari ; galarazten darozkigu onthasun gucietaric handienac , aberastasun eguiazcoac, Jaincoaren haur maite guinen , haren adiskide min guinen , haren erresumaco primu guinen , Jesusen haurride eta meimbro bereci guinen , Izpiritu sainduac gure ariman bere egoitça eguiten çuen ; gure bihotça cen harren templu bicia eta maitea. Trinitate adoragarriac bere tronutçat hattatu çuen gure arima ! Cembaç gracia eta fagore cembaç behatce ezti, cembaç consolacione ez othe çuen ichurteen gure bihotcetarat ! ez cen deus ere gure estatu dohaxuarekin compara çaitekenic , lurreco onthasunac , gure arimaco onthasunen aldean , balsa pusca batçuec beçala ciren munduko ohoreac , gure çoriona-

ren aldean , laido batçuec ciren sentsuen placerac , gure bihotceco goçoen aldean , kharastasun batçuec ciren. Oi ! ala gure dohaxuac , bethi beguiratu baguindu gure saindutasuna ! Ordean bekhatu mortalac bet betan misericordic handiene- rat aurdiki gaitu. Bekhatu mortalean erortcen garen pontutic , galteen dugu Jaincoaren amodioa , eta gure ganateen dugu haren higuintça gucia. Ez gare guehiago Jesusen membro , bainan bai Satanen esclabo. Ez dago gurekin Izpi- ritu Saindua , Debrua da gure bihotcen nausia eta yabea. Trinitate adoragarriac aborritcen gaitu , eta galdu dugu Ceruco primuça. Ah ! cer calte , cer bidegalbe gure arimentçat ! Nola behatu diot orai artean bekhatu mortalari ? Uste içan othe dut ene arimaren exai eta burrego ba- kharra cela ?

## II.

Bekhatu mortala eguin duen arimaren pobrecia osoki urricalgarria da. Ordu artean bildu ahal cituzken obra on guciez ,

merecimendu guiez bilhucia da. Baruric garratcenez , othoitcic kharxuenez , amoinaric handienez , mortificacioneric luceenez , communioneric sainduenez , hamar , hogoi , berrogoi urthe eta guehiagoz ere penarekin eguin cituzken irabaci guiez gabetua da ; aberatsa dauca bere burua , deusen beharric ez duela , dio bere baithan , eta bizkitartean erro mes eta miserable da , gauça gucien beharrean da. Norc explicatuco darocu harren pobreciaren hedadura gucia ? Bekhatu mortala su bat da , gauça guciac erretcerainocoan contsumitcen dituena , aire phoçoatu bat da , loreric ederrenac jhartcen dituena , ohoin crudel bat da , merecimendu guciac arrobatcen dituena . Oi ! beraz ala hire dorphea ! ala hire crudela , ô bekhatu mortala , betan hain miseria eta laceria handirat aur dikitcen naucanaz gueroz ! Gure burua , gure intresac , gure coriona maite badugu , nola bchatuco diogu hambat calte eguiten darocun bekhatu mortalari ?

III.

Anima caçu çure fede gucia, sar caite çure bihotcean barna, eta ikuhisco duçu certarat bilhacatcen duen bekhatu mortalac çure arima; obraric hoherenac, accioneric sainduenac, eta berenez baliosenac eguin baletça ere, bekhatu mortalac, hauei guciei eramatene diote Ceruco glorioaren merecitceco balioa. Baiki, bekhatu mortalean naiceno eguiten ditudan amoinac, barurac, othoitçac, mortificationeac sari gabe dire Jaincoaren erresuman. Senda banetça eriac, erna banetça gor eta mutuac, chuchen banetça mainguac, phitz banetça hilac; miraculu hautaz gucietaz ez neçakc mereci gloriaren graduric chumeena. Graciazco estatuan Jaincoarentçat eguin neçaken accioneric chumeena hain balios da, non mereci baidu Ceru gucia, eta bekhatu mortaleco estatuan eguiten diren obraric miragarrienec ecin dukete eternitatean sariric. Neroni hila naiz Jaincoaren aitcinean, eta beraz nic eguin deçakedanac

ez du bicitce eternalaren gainean çucecic. O! nombait bekhatu mortala hire higuingarria, gastatcen eta deseguiten du canaz gueroz berenaz hain eder eta balios laitezken obra sainduen merecimendua! Badakit hec eguin behar ditudala, eta noiz ditut beharrago nigarrac, auhenac, othoitçac, amoinac, mortificacioneac, bekhatu mortaleco estatuau naicenean baino? Hetaz behar dut, eta hetaz choilki ardiets deçaket ene Jaincoaren bihotça, hetaz ema deçaket haren colera; hei beraz lothuco natçaiote khartsuki, hetaz baliatuco naiz bekhatuac galaraci darozkidan onthasunen biltceco eta berri berrian haren umeen herruncan yartceco. Behatcen eta behatuco diot bekhatu mortalari ene Jaincoaren eta ene arimaren exai bakharrari beçala; hora da bakharra biguinduko dudana, ene miseriariic handiena beçala; eta gaineraco calte, atsecabe guciak besarcatuco ditut, hec preçatuco ditut ene onthasunac beçala, eta hetaz eguiñen dut ene placera.

*Meditacioneac bekhatu benialaz.*

I.

**B**EKHATU beniala da Jaincoaren legue saindua hausten duen hitz, obra, desira edo negligentzia bat, ez gauça handi batean, bainan gauça chume batean eguiten dena. Bekhatu bat da, beraz Jaincoaren ofentsa bat da, beraz Jaunaren borondatearen contra doha: bekhatu bat da, beraz Jesusi daimu eguiten dio; hala da, ez gaitu Jaincoaren exai eguiten, ez gaitu Satanen esclabo eguiten, ez gaitu Cerutic khentcen eta Ifernurat condenatcen; bainan hambat maite gaituen Jaincoari desplacer eguiten dio. Eritasunac, oinharceac, pobrecia, eta Iurrean yasan daitzenken pena suerte guciac baino gaitz handiagoa da bekhatu beniala; ceren hec caurtcen baidute creatura choila, eta hunc ofensatcen baidu Aingueruen eta guiconen Creatçairea. Nihoiz ez da cilhegui bekhatu benial baten eguitea: banaki

ere bekhatu benial bat eguiiteaz senda netçakela eri guciac , libra netçakela gatibo guciac, comberti netçakela munduco bekhatore guciac , saindu netçakela Judu eta Pagano guciac , Cerurat egor netçakela Purgatorioco arima guciac, Parabisuan sar araz netçakela damnatu guciac, ez laiteke permis bekhatu haren egui-tea ; beraz gaitz handi bat da eta haguitz handia bekhatu beniala , eta nic hala uste içan othe dut ? Hain gaitz handiarentçat iduki othe dut bekhatu beniala ? Eta nola bada hain antsicabeki eguin dut ? Nondic heldu da hartan ohitu bainaiz ? Esdeus-entçat condatu dut hain gaitz handia den bekhatua. Cer itsutasuna ! Iraganac iragan ; higuinduko dut bekhatu beniala , eta emanen diot Jaincoari berac eman darotan , eta beretçat choilki eguin duen bihotça.

## II.

Bekhatu benialaren malecia hobekia goçagutceco , contsidera çäçü nola puni-tuñ içan den bekhatu beniala. Lot yustu-

aren emaztea hunelaco bekhatu bat gatic gatcezco figura batetarat da bihurtua ; gatz da bera bilhacatua ; Betsameco berrogoi eta hamar milla presuna , curiositatezco bekhatu benial baten gatic hil gogorra dire eroriac. Moïse , Jaincoaren adiskidea , fidantzia escas arin bat dela causa , ez da sarthu Jaincoac aguindu , cioen lur prometatuau ; eta Maria , Moïsen arreba , murmuracione edo errencia baten gatic , lepraz da cargatua ; Ananiaz eta Saphira senhar-emazteac , gueçur baten gatic heriotce supituaz dire punituac. Horra nola Jaincoac behatcen dioen bekhatu benialari ; horra Yuye justu harc cein garrazki punitu duen bekhatu beniala. O ! beraz bekhatu beniala , ala hire higuingarria : hambat gaztiguz mundu huntan berean , eta milletan garrazkiago Purgatorioan punitua haicenaz gueroz ! Gaitcesten eta aborritcen haut ; orai eça-gutcen haut haicenarentçat , eta orai ukho eguiten daroat ; hainitz eta sobraldetaric sarthu haiz ene bihotcean , cu-

iostasunaz, ignorantciaz, negligentciaz,  
intencione escasez, mortificacione faltaz  
artru haiz ene ariman ; bainan akhabo,  
ez duc guehiago lekhuric causituco ene  
baithan, eta uste gabez nothatcen bada-  
rotac ene arima, nigarrez garbituco diat  
ene falta, eta khartsuki cerbitçatuco diat  
ene Jaincoa.

### III.

Bekhatu chumeez edo benialez casuric  
eguiten ez duena baratche baratche edo  
emeki emeki mortaletan erorico da. Ba-  
dakit hainitz bekhatu benialec ez deca-  
ketela eguin bekhatu mortal bat, bainan  
egua eternalac seguratcen nau bekhatu  
benialetaric iraganen naicela bekhatu  
mortalera. Nola hori? Ceren bekhatu be-  
nialetan ohitcen denac galtcen baidu ba-  
ratche mortalen higuintçat eta beldurra,  
flacatcen baidu bere baithan Jaincoaren  
amodioaren khar bicia, indarrac bere  
baithan ematen baidiotça bere exaiari,  
eta guisa hortan ematen bai da bekhatu  
mortalean erortceco arriscutan. Guti gu-

tiac dire colpe-colpe, eta betbetan sain-dutcen direnac : eta orobat bakharrat dire berehala bekhatu mortaletan erort-cen diren yustuac. Davit, Erregue hain saindua , Propheta hain arguitua , nola erori cen hain bekhatu itsusian ? Chede gaichtoric gabe, maleciaric gabe, behatce curiosegui bat aski içan cen hora faltaric handienetan erorarazteco : Yudas doha-cabea nola yoan cen bere Nausi maitea saltcerainocoan ? Lehenic maitatu çuen dirua , guero abaricios bilhacatu cen , finean dirutan bere Jauna eta Yabea tra-hitu çuen. Hora cer darraion bekhatu be-nialari ; hora cein eguiia den hetan ohit-cen dena , hetaz casuric eguiten ez due-na , erorico dela bekhatu mortaletan. Eçagutçarekin ez dut beraz bekhatu den chumeena eguinen ; guciei ihes eguinen diotet, ceren bakhotcha Jaincoaren ofen-sa , eta ene arimaren gaitz bat bai da, ce-ren garazki punitua bai da , eta maiz be-khatu mortalaz seguitua. Eguiçu, Jauna, crai hartcen dudan deliberacionea compli deçadan ene bici gucian.

*Meditacionea heriotceaz.*

I.

DEUS ere ez duçu heriotcea baino segúragoric. Hilen çare, horra écin den gutiena ere duda deçaçukena. Egun oroz herioarekin eta herioaren contra guduan hari çare. Yaten duçu, edaten duçu, beztitcen çare, certaco? Gosez edo egarriz, edo hotcez ez hiltceco. Inguratcen çaituzten, estaltcen çaituzten gauça guciec adi arazten darotçute bil behar çarela. Çure aitcinean içan diren/guiçon eta emaztekiac non dire? Cer bilhacatu dire sei mila urthe huntan, nor bere aldian, lurrean aguertu diren erregueac eta suyetac, handiac eta chumeac, aberatsac eta pobreac, sendoac eta eriac, borthitçac eta flacoac? Helas! cembait dembora laburrez ibili, mintçatu, dostatu dire, bere buruez mintçaraci dituzte yendeac, eta ondoan hil dire; hetaz eta çutaz gauça bera içanen da, gauça bera erranen da: espe-

rientciac eta arraçcinac beçala , fedear  
ere erraten darotçu hilen çarela ; possible  
othe da haimbertce aldetaric aditcen du-  
gun boçari gogorrarena eguitea ? Guciec  
erraten darocute hil behar garela , eja ez  
gare crhoitcen hiltceaz ? Heriotcearen  
erhoitçapena urruntcen dugu , herioa  
bera , hora ahantcric , urrun ahal bagui-  
neça beçala ! Hilen naiz beraz , eta laster ,  
bicitceric luceena amets bat da , dembo-  
rac thombarat banerama , chimista Ce-  
ruaren pharte batetaric bertcerac dohan  
baino lasterrago ; eta ez dut gogoan era-  
bilitcen herioa ! bethi bici behar banintz  
beçala nago ! Hau da erhoheria ! Hau da  
ixumendu auhendarria !

## II.

Eçagutu behar duçu ongui cer den he-  
riotcea , hartarat ongui preparatceco . He-  
riotcea da gauça' gucion akhabantça , in-  
guratcen çaituzten gucion fina . Gorphut-  
ça , mundua , dembora , gracia , Jaincoa-  
ren misericordia , horra cer duçun , edo  
cer içan deçakeçun lurrean ; bada hauc

guciac akhabo içanen dire heriotcean ; herioac hauc guciac çuretçat ezdeustatuco ditu. Akhabo gorphutça , herraut-setarat bilhacatuco da , chichariez estalia eta yana içanen da hambat artharekin aphaintçain cen gorphutz hura ; harren bazca dire eguinac hambat solhaz eguiten çuen mihia , hambat behatce eguiten çuten beguiac. Hora gorphutçaren çorthea. Certaco beraz huni hambertce atseguin eguinen diot ? Certaco , huni placer egniteco , galduco othe dut ene arima ? Hiltcean akhabo enetçat mündua bere onthasun , bere gloria , eta bere placer guciekin ; hauc guciec utcico naute egun batez , eta laster guciac utci beharco ditut ; certaco orai danic bihotcez ez ditut abandonatuco ? Certaco ez diotet orai beretic adio erranen ? Ala erhokeria handia baita khea beçala heriotcean suntsitcen diren ez deus batçuei lotcea !

Heriotcean akhabo dembora ; orduan hasten da behinere finic içanen ez duen eternitatea. Cer çorigaitz enetçat Jain-

coaren etsaigoan banaiz orduan ! ecen ez da orduan penitentciaric , ez da guehiago içanen graciatic , ez misericordiaric yusticiaren dembora ethorria daiteke. Orai dire salbamenduco egunac , ora dembora fagorezcoac , memento guciad dire orai preciatu ; baliatuco naiz beraz , egun eta oren guoiez , Jaincoac bicitce eternalaren irabazteco eman darotan demboraz ; ene nigarrez , ene plainuez , eta penitentcia garratcez urratuco ditut ene faltac ; leial eta khartsu içanen naiz Jaunaren cerbitçuan ; bide huntaz içanen dut beldur baino esperantça guehiago heriotceco oreanean.

### III.

Heriotcea hain segura duçularic arren , heriotcea hain lazgarri delaric arren , ez dakiçu ez non , ez noiz , ez nola hilen çaren . Non hilen naiz ? Etchean , ala campoan ? Herrian , ala atzherrian ? Ez dakit . Nic dakidana da , ni naicen lekhu gucietan ene heriotcea içan daitekela ; beraz lekhu gucietan bici behar naiz , lekhu

gucietan eta bakhotchean hil behar banintz beçala. Noiz hilen naiz? Aurthen ala ondoco urthean? Gaztetasunean, ala çahartasunean? Ez dakit. Nic dakidana, noiz nahi den hil naiteken oren eta instant guciac içan daitezkelə ene azkeneco orenac eta instantac. Nola hilen naiz? Yustuen heriotce preciatuaz, ala bekhatorearen heriotce icigarriaz? Ez dakit. Helas! Beraz ez dakit, ea mundu huntaric ilkhitcean Ceruan içanen naicen glorian, ala Ifernuan içanen naicen Deabruen artean. Cer eguiñen dut sainduki hiltceco? Bici behar naiz sainduki, bici onaren fruitu ordinarioa da heriotce ona. Nahi naiz beraz, Jauna, orai baliatu, hil ondoan inutilki galde neçaken, çure misericordiaz. Bici nahi naiz, egun oroz hil behar banintz beçala.

*Meditacionea bekhatorearen heriotceaz.*

I.

Ez da deus ere hiltcerat dohan bekhato-rearen estatu tristea baino dohacabeago-ric. Norat nahi den beha deçan , ez dut ikhusten doloratceco suyetic baicen. Bere bicitce phasatu gucia gogorat heldu çao, eta ordu artean ikuhi ez duen beçala ikuhi du bere arimaco estatua. Bekhatu bakhotcha bere circunstancia eta malecia guciarekin ikuhi du , eta ent-seiatcen delaric arren hekien ahanzterat, burrego crudel batcuec beçala , sarras-kitcen diote bihotça. Hainbat dembora gaizki , edo inutilki emplegatuac , ham-bat gracia mezpreçatuac , hambat inspi-racione , mobimendu , Jaunaren deitce ehti , dohatsu eguiteco gai cirenac , osti-catu eta galtcerat utci dituenac betbetan eta colpe-colpez presentatcen çazco , eta hec erreportchatcen dioscate bere bicitcc iraganeco gaichtakeria guiac. Hala da ;

badaki confesatu dituela bere falta gue-hienac eta guciac ere, ordean aithortcerat bortchatua da onerat combertitzen ez gaituen penitentzia, itchurazcoa eta agorra dela, costuma gaichtoekin egutien den confesioa, edo communionea bekhatu berribat dela, eta horra cere icitzen duen. Ah! orduan desiratzen luke bertcela phasatu balitz bere demborac, orduan nahi luke sainduki emplegatu balitu bere gaztetasuneco sasoinac; ordean hec iragan çavezco, eta badaki ez çavezcola bihurtuco. Cer tristecia! cer dolore! cer orhoitçapen bihotz erdiragarri!

II.

Phasatuac icitzen badu hiltcerat dohan bekhatorea, presenteco bere estatuac, eta Jaincoaren yuyamenduac osoki ikharatzen dute: bere ohearen gainean etçana, izpiritua alde guciataric penatua, bihotça mila chagrinez bethea, gorphutça edo sukhar batez ahitua, edo oinhace mincz ihartua, ikhusten du utci behar duela maite duen mundua; hambat pe-

narekin eta menturaz inyusticia , eta tromperiekin bildu dituen urre , cilhar , muble eta ontasun maiteac , bortchaz uzterat obligatua dela badaki , gathibo iduki duten creatura malurusetaric sepharatcera dohala sentitcen du. Cer dolore ez du , bihotça amarratcen dioten placer ohore , atseguin eta satisfaccion banoetaric separatceco ? Dembora aphur bat nahi luke , eta dembora errefusatua çao. Munduac khentcen du bere ganic , eta ikhusten du herioa bere dardo çorrotçarekin colpe mortalaren ematerat dohacola , eta bere crimen lekhuco içatu duen Jainco saindu , Yuye garatçaren aitcinean aguertu behar dela : contsideracione hunec ez othe du ikharatcen bekhatuan hiltcerat dohala dakien guiristinoa ? Ez othe da bada lazten ? Erradaçu ca cer dioen orai çure arimac ? Eta baldin hunkitua bada , certaco ez çare orai danic combertitcen ! Ah ! Jauna , ene combertitcea çure graciaren obra da ; eguiçu , othoi , ene fagoretian çure amo-

diozco miraeulu bat ; orai beretic has  
çaite ene gaztigatcen , hiltceracoan ez  
deçaçuntçat aurkhi hobenic ene baithan.

### III.

Hiltcerat dohan bekhatoreac ez du  
hurren soleimenduric batere , contsol-  
cione guciez casic gabetua causitcen da.  
**Batçuetan** , osasunean eguin cituen con-  
fesio eta communione gaichtoen puni-  
cionetan , ez du sacramenduen errecibit-  
ceco epheric , edo baldin astia badu , nola  
eguin othe deçake errechki hain gaitça  
den examina oso osoa , declaracione clar  
eta hedatua ? Nola bet betan içanen du  
dolore eta contricione hain baitezpada-  
coa , eta Jaincoac niholere çor ez dioena ?  
Bihotça descendantsuan , izpiritua errepau-  
suan , gorputça osasunean ere hambat  
penarekin eguin den lan handia nola  
eguinen du izpiritua flacatua , bihotça  
trublatua , eta gorputça gaitçaz chukha-  
tua duenean ? Jaincoac miraculu hatez  
gambia deçake , ordean miraculu hau  
hambat urthez mezpreçatu duen Jain-

coaren ganic igurikitcea erhokeria bat da. Antiochus , Printce gaichtaguina , hiltceracoan , ohoitcez çagocon Jainco- ari , ceinaren ganic ez baiçuen misericordiaric ardiesteco , eta yustu da , Jauna , çure gombidatce amulxuez osasunean trufatu denaz, cu ere trufa çaitcen haren heriotcean : nitaz denaz beçambatean baliatu nahi naiz eguin dudan meditacioneaz , çorigaitz berean ez erortceco ; yarraikico netçao penitentciarat deitcen nauen boçari , lothuco natçao çure graciarekin batean bicitce berri bati , complituco dut çure nahi saindua , beguiratuco dut çure legue gucia ; çuc çure gracia sainduaz lagun naçaçu ; ez deçaçula permeti hil nadin bekhatoreen heriotceaz , bainan eguiçu hil nadin yustuen heriotceaz.

*Meditacionea yuyamenduaz..*

I.

BERE bekhatuan hil den guiristinoa ahai-deez, adiskideez, hauçoez inguratua da; batçuec eta bertceac auheñetan, nigare-tan daudez, eta haren arima Jaincoaren tribunal ikharragarrian presentatua da; gorphutça lurrean ehortcia içanen da, menturaz pompa eta manificentciarekin, eta arima bere Yuye soberanoki mezpreçatu duenaren aitcinean aguertuco da, gorphutcetic sepharatu den pontutic; orduan bera bakhar bakharra, lurrean cituen onthasunez, carguez, icen han-diez, creditaz, lagunez, adiskideez utcia. Nihor ez du ikhusten bere aldaketan, nihor berc inguruetañ, bera da choil choila bere Yuyearekin: gucia arguitua, bot'heretsua guciz-çucena; ecin aphece-gatuzcoa den, eta handiski mezpreçatu duen Yuye batec yuyatu behar duela ba-daki; ikhusten du, eta ecin itçul dakioke,

ecin ihes eguin dioçoke , nihorc ecin libra  
deçake haren escuetaric: non dire , erra-  
ten dio bere Jainco-Yuyeac , ene despit  
maitatu ditucan placerac , ohoreac , on-  
thasunac? Non dire ni utciric hartu ditu-  
can lagunac , adiskideac ? Hire Jaincotçat  
hartu hituen creaturac ? Ethor bekizkic  
laguntcerat , eman beheçate ene colpeen  
guericean ; ethorria duc ene eguna , or-  
dean hiretçat hain çorigaitcezcoa içanen  
dena. Cer beldur eta ikhara ez du orduan  
bekhatoreac ! Bere bici gucian eguin di-  
tuen bekhatu guciez da inguratua ; bere  
obrec seguitu dute Yuyearen aitcinerat.  
Helas ! Jauna ! aithortcen eta arbuiatcen  
ditut ene errebelamenduac , utcico ditut  
gauça iragancor guciac , maitatuco eta  
arthoski seguituco dut Cerurat guidatcen  
duen bidea , obra onez aberastuco dut  
ene arima ; hec içanen dire ene begui-  
ratçaille , sustengu , eta defendatçaille  
egun latzgarri hartan.

II.

Bekhatuan hiltcen den guristinoa çor-

rozki eta cheheki içanen da examinatua; bere bici guciaz, bicitceco instant guciez ihardetsi beharco du. Contu galdetuco çao ordu artean eraman duen demboraz; cer eguin duc? erranen dio Jaincoac, certan emplegatu duc hire osasuna, certan onthasunac? Cer eguin duc, ene eça-gutceco huen memoriaz, ene maitatceco huen bihotçaz? Ceri eman dioc hire arima? errac, mintçadi? Urguleriazco cembał pentsamendu! Mendecuzco cembał desira! Cembał accione criminaletan ez duc corrumpitu hire burua! Creaturez baliatu behar bidean ene maitatceco, hetaz cerbitçatu haiz ene desohoratceco. Ene deitce guciez ez duc casuric eguin, ene pacientiaz trufatu haiz, nic orai yuyatu behar ditiat hire obra iduriz onacre. Nola eguin dituc othoitçac? Espainez. Nola amoinac? Banitatez. Nola confesioac? Costumaz. Nola comunioneac? Bekhatuzco usantçan, bekhatua bihotcean. Nola entçun dituc meçac? Grimasaz. Ni nauc hire yuya, eta gucien lek-

huco içan naicena. Ah! cer lazturaz, cer trublez ez da bethea Yuye hain garratçaren aitcinean interrogatua den arima dohacabea ! Alabai dire urricaltceco, conscientzia erreguelatu gabe, Yuye ikerariaren aitcinean aguertcen direnac ! Othoitçaz eta nigarrez garbituco dutene bihotça; molde huntan confidentzia saindu batekin presentatuco naiz Jaincoaren tribunalean.

### III.

Jainco-Yuyeac bekhatorearen contra emanen duen arrasta icigarria içanen da : oha mandaricatua, erranen dio, apharta hadi ene ganic creatura dohacabea ; oha Deabruarentçat eta haren lagunentçat preparatua den su eternalean erretcen egoterat. Ah! cer ihurtçuri colpea ! hitz bakhotcha gai da bihotçaren arrailatceco : Oha madaricatua ; eta cer bilhacatuco da, Jauna, çuc mandaricatcen duçuna ? Cer içanen da çure ganic urruntcen eta desterratcen duçunaz ? Çu çare harren onthasun soberanoa eta

bakharra ; çure ganic urrun ecin daiteke soberanoki dohacabe baicen. Oha , eta norat? Sutan erretcerat , pena gucietaric handienetarat , suplicio gucietaric dorpheenetarat : eta norekin içanen naiz? Deabruarekin eta haren lagunekin. Helas ! cer compainia , cer adiskide ! Deabruen artean , Ceruan glorian içan behar cena ! Eta noiz artean sutan erreco da ? Cembañ dembora han egonen da ? Eternitate gucian. Ah secula ! ah eternitatea ! nore comprehenituco du hire hedadura mugarri gabea ? Bethico Cerua galdua , bethico Jaincoa galdua ; seculaco Ifernua , seculaco sua , eternitatecotz Jaincoaz madaricatua , seculan ez contsolacioneric , ez eztitasunic , ez descantsuric ; bethi instant guciez fin gabeko tormentac. Ah ! Ifernua , ala hire dorphea ? Bekhatua , ala hire icigarria ! Noiz higuinduo hautbada ! nola hardeçaket su eternalaz punitua den placer laburra ! Ah ! enc Jauna eta ene Jaincoa , çure yuyamenduen orhoitçapenac ikharateen nau ;

baliatuco naiz ceronec eñaten darotaçun ordenaz · yuyatuco dut corrozki ene burua , seguratua , ez nauçula yuyatuco çure coleran , ez punituco eternitatean.

---

*Meditacionea bi eternitateez.*

I.

Ez çare mundu huntan bethi mundu huntan egoteco : lurra desterruzco lekhu bat da , bertce bici bat içanen da hunen ondoan , iraganen dire urtheac , egunaç , orenac ; eta , helas ! cein laster ez othe dohaz ! eta ethorrico da eternitate behinere akhabatuco , iraganen ez dena ; çu ceroni ere eternitate gucicc çare , ez duçu finic içanen : çure gogoetac , desirac , hitçac eta obrac memento batez eguinac dire , ordean eternitate gucian iraunen dute ; eta nola ditutçu ? eta certaco eguiten ditutçu ? çu eguin çaituen Jaincoaren beguietan bethi eta eternitatean içanen dire çuc demboran eguiten ditutçun hitçac eta accione guciac . Ez othe laitke

contsideracione hau bera aski içan behar çutaz saindu baten eguiteco? Ah! Jauna, ikhusten duçu orai artean eternitateric ez balitz beçala bici içan naicela; handic bilhatu, desiratu eta maitatu ditut demboraco aisiac, placerac, ohoreac, atseguinac; bethi gogoan erabili dut, ea nondic edo nola goçoetan iragan neçaken bicitce iragancor hau; eta ez naiz penetan einan behinere iraganen ez den eternitateco biciaz: orai eçagutcen dut ene erokheria handia, barkha daçu, ô Jainco guciz ona! ene lachotasuna.

## II.

Badi**re** bi eternitate suerte, eta ez guehiago; bi eternitate suerte hautaric battean edo bertcean içan behar çare, ecin itçul çaitezke. Eternitate çorionezcoa, edo eternitate çoritgaitcezcoa; seculan dohatsu edo seculan dobacabe: bethi glorian penaric gabe, edo bethi tormentan goçoric gabe: fin gabe Ceruco erresuma maitagarrian, edo fin gabe Deabruarekin Ifernuco lecean. Bethi, ene

arima, goçatuko haiz eternitate gucian, Jaincoa Jainco deno, placer goço, eta bozcario guciez: edo tormentatua içanen haiz eternitate gucian, eta Jaincoa Jainco deno, suplicio guciez. Bethi Jaincoa laudatuco, adoratuco eta glorificatuco du Ceruan, edo bethi Jaincoa blasphematuco eta madaricatuco Ifernuco. O pentsamendu icigarria! O erreflexione ikharagarria! O secula, ô eternitatea! ala gaia bai haiz bihotcic gogorrenaren phorroscatceco! eta, helas, enea hunkitua othe da? Sinhesten othe dut eternitate suerte hautaric batean, edo bertcear içanen naicela? Sinhesten ez badut, feeda galdu dut, eta sinhesten badut nombait ongui sorhaiotua naiz, ez baniaz ikharatua. Orhoitcen othe naiz egui hautaz? Haukiel gainean ene bicia modatu othe dut?

### III.

Çure biciaren araberaco içanen da çuro eternitatea; çure hautuac eguin deçake çure çorion, edo çorigaitz eternala:

çure escuan duçu çure çorthea ; Jaincoac utci darotçu placer duçunaren hautat- ceco libertatea , eta berac eman darotçun bicitce labur hunec decidatu behar du çure dohatsutasun , edo çure dohacabe- tasun eternalaz ; oraino bi eternitate haukien artean çare , biciaren hari fla- coac gauzca dilindau : baldin herioac phicatcen balu ; cein eternitatetarat othe cindoazke ? Norat ere arbola erortcen bai da , han bethi egonen da ; cer ere estatutan hilen bai çare , hala eternitate gucian içanen çare , eta biciaren iduri- coa ohi da heriotcea : ez da biltcen ma- hatsa elhorrietaryc , eta lapharrec ez dute ekhartcen phicoric , çure obren arabera- coa içanen da çure fina . Examina çaru çure bicitce gucia ; nolacoac dire ene pentsamenduac , nolacoac ene desirac , nolacoac ene obrac , nolacoac ene amo- nac ? Cer estimatcen , cer bilhatcen , cer maitatcen dut ? Certaco nekhatcen , cer- taeo trabailatcen , certaco mintçatcen othe naiz ? Cer eguin dut orainocoan ,

eternitate dohatsuaren seguratceco , eta cer ez dut eguin eternitatean malurus içateco ? Helas ! hunelaco , edo halaco demboran , egunean , eta orenean hil banintz , segur naiz , eternitate gucian dohacabe içanen nintcela , ceren segur bai naiz , bekhatu mortalean nintcela ; et orai nola othe naiz ! Eta guero nolacoa içanen naiz ? O secula ! ô eternitatea ! nitaz hain guti eçagutua içatu haicena ! Orai danic hi hartu nahi haut ene bicia-ren erreguelatçat ; hire gainean moldatuco ditiat ene gogoeta , desira , obra , accione guciac . O eternitate , ô secula dohatsua ! çu desiratcen çaitut , çu bil-hatcen çaitut ; ukho eguiten diotet çuretçat on ez diren gauça guciei , bai eta maiteenei ere ; eta çuretçat on diren guciac , bai eta kharatsenac ere gogotic besarcateen ditu . Çuc , Jauna , arguitu nauçun beçala , borthitz naçacu , azken haxerainocoan deliberacione hunen se-guitceco .

*Meditacionea salbamenduco eguitecoaz.*

I.

JAINCOAC munduaren creatcean , bere Seme maitea guicon eguitean , gure corion eternalari behatu dio , gauça guciac eguin ditu gure salbatceco eta bere glorian gu biciarazteco. Ceruac , lurrac , Berboaren incarnacioneac , sortceac , bicitceac , heriotceac , guciec erraten darocute gu dohatsu eguiteco eguinac içan direla. Gure beharric ez cuen Jaincoac : gure gatic guicon eguin da , Belthelengo establian sorthu da , pobrecian , humiliacionean , gauça gucien escasean bici içan da ; Caïphasen , Pilatusen , Herodesen etchean causitcen dut afruntuz eta laidoz sasiatua , açote colpez larrutua , eta Calbarioco mendian ikhusten dut bi ohoinen erdian gurutcesficiatua eta hila. Certaco , Jauna , horrembertee ? Ene erosteco , ene salbatceco. Norc guero hotski behatuco dio bere salbamenduco eguite-

coari , Jaincoac hain eguiteco handiari  
beçala behatu dioenaz gueroz ! Horra ,  
ene Jauna , çuc cer eguin duçun ; eta nic  
cer ez nuke eguin behar salbatceco ?

II.

Salbamenduco eguitecoa da ene egui-  
teco bakharra , nic eguin beharra ; bertce  
nihore ecin enetçat eguin deçakena ; ene  
lurrac bertceec labora detçakete , ene  
tratuac bertceec eguin detçakete ordean  
ene arima ecin bertceec salba deçakete.  
Bertceen obra onac mortificacioneac ,  
saindutasuna, çoriona, ez dire encac ; hec  
eguin dute beretçat , eta nic eguin behar  
dudana enetçat utcia da : hec irakhatsi  
darotet nic neronec eguin behar dudala  
ene salbamenduco eguiteco handia eta  
bakharra. Baiki , hori da bakharra nece-  
sario dena , bertce guciad hunen aldean  
dosteta batçuec dire ; hortaco çare mun-  
du huntan eta ez deus bercetaco ; ez çare  
hemen hainitz biciteeco , onthasunen  
biltceco , edo placeren hartceco ; bainau  
**Jaincoa maitatuz**, salbatceco ; gaineraco

eguiteco guciāc ezdeuskeria batçuec dire  
edo cerbait badire, guciāc çūre salbat-  
ceco behar dire; non ez, utci beharrac  
dire, gauça inutil edo caltecor batçuec  
beçala. Eta nic nola behatu diot salba-  
menduco eguitecoari? Ez eguiteco bati  
beçala. Cer dembora, cer atentcione, cer  
artha eman diot? Casic batere. Bertce  
gauça gucientçat dembora, astia, grina,  
içan dut, eta ene eguiteco bakharrarent-  
çat antsicabe, ez acholatu, eta alfer içatu  
naiz, ez dut casic deusic eguin, edo hai-  
nitz guti eguin dut salbatceco. Othe da  
ene erhokeriaren pareric?

### III.

Salbamenduco eguitecoa gaizki egui-  
ten bada, calte hau ecin erreparatuzcoa  
da, hau behin faltatcea, seculaco faltat-  
cea da. Cerua behin galtcea eternitateco  
galtcea da. Cer progotchu da guicona-  
rentçat, dio Jesu-Christoc, mundu gucia  
beretcea, galtcen badu bere árima? eta  
certaz reparatuco du bere calte handia?  
Munduko gaineraco calte guebiñec ba-

dute cembait erremedio, edo contsolamendu, ordean arima galduz gueroz, ez da erremedioric, ez da contsolamendoric. Orai urthe agor bat badut, guero sa soin aberats bat uste dut, eri banaiz osasunaren esperantça badut; adiskide bat galtcen badut, bertce bat eguiten dut; ordean arima galtcen badut, ez çait guelditcen deus ere, Ifernuan naiz, eta han ez da soseguric, ez esperantçaric. Certaco bada ez naiz lehiatuco, dembora Jaincoac uzten darotano, haren ongui eta dohatsuki emplegatcerat? Certaco ez deuskerietan iraganen ditut bethi ene urtheac, ene egunac, ene orenac? Ez othe darozkit Jaunac ematen lan handi hunen ongui eguiteco? Certan nago nagi eta alfer? Nor da ene salbamenduko eguitecoan intresaturic ni baicen? Eta halaric ere dosteta bati beçala behatu diot orai artean. Ah! ene Jauna eta ene Jaincoa, atçar eta erna çacu ene arima bere lokhuma tristetic; eçagutaraz dio çocu bere eguiteco bakharra, eta hartan

occuparaz çäçü , menturaz yoan dire salbamenduaren eguiteco nituen demboraric ederrenac ; bainan orai hasten naiz khartsuki ene salbamenduko lanari lotcen ; maitatuco eta cerbitçatuko çaitut ; utcico ditut çure gogoraco ez diren gauça guciac , gostaric gosta salbatu nahi naiz ; eguidaçu gracia deliberacione hunen complitceco.

---

*Meditacionea damnatcen direnen nombre handiaz.*

I.

CONSIDERA eta astiroki medita çatçu egua eternalaren hitz hauc : hainitçac dire deithuac , eta gutiac hautatuac. Othe da deusere Jesusen erran hau baino hunkigarriagoric , eta gure baithan sararazteco gaiagoric ! Ala çabala eta largoa bai da heriotcerat, Ifernurat, guidatcen duen bidea , eta hainitçac dire hora hartcen eta seguitcen dutenac ! Eta ala hertsia eia nekhezcoa bai da bicitcerat, Cerurat, da-

raiman bidea , eta bakharrac dire hura hautatcen dutenac , eta hartan dohaccenac ! Bortcha çaitsezte hertsitic sartceco , ecen nic eraten darotçuet hainitcec cher-khatuco dute hartaric phasatcea , eta ez dute ahalic içanen. Horiec dire salbatçailaren hitçac , ceinetaz clarki adiarazten baidarocu , cein hainitçac diren damnatcen direnac , eta cein gutiac salbatcen direnac. Cerekin comparatuac dire Izpiritu sainduaz salbatcen direnac ? Adi çäcu , eta ikhara çaité. Gutiencan hamabi ehun mila Israeldarretaric , lür guciei prometatuian sarthu ciren , Josue eta Caleb , bi/guiçon choil haukiekin ; uholde yeneralean guiçon eta emazle gueien artetic arkha edo untei batean salbatu ciren çortci presunekin ; Sodoma eta Gomorra , eta gaineraco hiri dohacabe suzco eta sufrezco uriac consumitu cituenetaric beiratuac içan ciren laur presunekin. Helas ! cein chumea ez da beraz salbatcen direnen nombrea , eta cein handia damnatcen direnena ! Oz othe naiz lazten

eta ikharatcen Profetac eta Jaincoaren Semea hunela mintcatcen aditcen ditudanean? Nondic heldu da hain bakharrac baidire salbatcen direnac? Eta ni salbatuco othe naiz? Ene salbatceco hil nahi içan çaren Jesus maitea, eguiçu ez nadin guertha damnatuco direnen balxa handico.

II.

Jaincoac garen guciac salbatu nahi gaitu, ecin duda deçakegu haren borondateaz; hartaracotz creatu nau, hartaracotz conserbatu nau, hartaracotz bere Semearen odolaz erosi nau, hartaracotz guiristino eguin nau, eta bere Eliçan hambat lahuntçaren artean eçarri nau; ecin beraz uste içan deçaket Jaincoaren nahitic heldu dela hain gutiren salbatcea, eta hain hainitcen damnatcea. Nondic bada heldu othe da hori? Guiçonen ganic, ceren gutiac bai dire salbatceco necesario dena eguiten dutenac. Salbatuco denac beguiratu behar du Jaincoaren legue gucia, eta norc hora beguirat-

cen du? Cembañ manera diferentez ez da hautsia , eta osticatua Jaunaren legue saindua ? Salbatuco denac behar ditu gurutceficatu bere nahicara eta guticiac , eta guehiene contentateen , héc satisfacen dituzte. Salbatuco denac behar du garbiki contserbatu bathaioco inocencia , edo , bekhatu mortalaz galdu ondoan , penitenciaz cobratu behar du. Norc ez du galtzen , eta norc hura ardiesten du ? beraz gutiac salbateen , eta hanitcac damnatzen badire , hori heldu da guionen falta phurutic. Ene faltaz galdu behar naiz beraz , ene biciac behar du ene corthe eternala fincatu , edo Ceruan , edo Ifernuan ; eta horrec lazten eta ikharateen nau. Badakit , ô Jesus guciz maitagarria ! ene ganic galdezen duçun gucia dela ene bihotza ; maitatuco caitut beraz oraidianic finki eta gauça gucien gainetic.

### III.

Cer bide hartu behar dut beraz damateen direnen nombre handico ez iça-

teco , eta salbatcen direnen nombre chumeco içateco ? Ez bide da hau beçain deus ere importantic . Nombre handia galtcen da , ez beraz segui hekien bidea . Nombre chumea salbatcen da ; har çacu beraz hec daramaten bidea . Salbatu nahi çare ? Pratica çacu Ebanyelioac irakhasten da rotçuna ; sainduac salbatu dire , eta çu ere , hec beçala biciz , salbatuco çare ; maita çacu bakhartasuna , othoitça , mortificacionea ; hurbil çaité maiz eta arthoski sacramenduetarat , eguitçu eter-nitatearen gainean erreflexione usuac , eta bekhatu mortalaz galdu baduçu Jain-coaren amodioa , berehala penitentciarat laster eguiçu ; horra salbatceco eguin behar duçuna . Ordean nola bici içan naiz orai artean ? Seguitu othe dut bide hertsia ? Helas ! ikhusten dut dolorekin bide largoan ibili naicela , eta beraz dain-natcen ninduen bidean . Deusetan ez dut borchatu ene burua , bethi contentatu ditut ene pasioneac , bethi satisfatu ene guticiac ; iduritcen citçaitan guehiene

beçala eguitea , ongui cela , tropela han-  
diari yarraikitceaz ez nuela deus ere ar-  
riscatcen ; cnganatua nintcen , galcen ,  
hari nintcen. Çuc , ô ene Jaincoa , salbatu  
nahi nauçuna , ene errebelamendutic  
athera nauçu , eta çure ganat chuchen  
neçaken bide dohatsu eta segurean eman  
nauçu ; nombre chumearekin çu bak-  
harric cerbitçatuco çaitut beraz , dohat-  
suekin glorifica çaitçadan eternitatean.

---

*Meditacionea Ifernuaz.*

I.

IFERNUA da lece bat ilhumberic baicen ez  
dena , iguzkiaren arraioric ez da seculan  
sartcen presondegui hartarat , ez da han  
ez bakeric , ez descantsuric , guerlac eta  
nahasturac han erreguinatcen dute ; ez  
da aditcen marrumaric , hortz-carrasca-  
ric eta auhenic baicen ; desolacionea ,  
desesperacionea eta errabiamendua ,  
horra cer causitcen den Ifernuan. Gogo-  
rat ekhar çatçu pena eta gaztigu ahal

daitezken icigarrienac, gosetea, guerlatea, içurritea, oinhaccac, cachoteric ilhunenac, leceric phoçoatuenac : hauc guciac ifernuaren aldean itçál flaco batçuec dire, erdizcara ere hura ecin eçagutaraz deçaketenac : on gucien bilhuztasuna, gaitz gucien bilduma, horra cer den Ifernua. Han aitac haurren contra, haurrac aiten contra, lagunac lagunen contra, espresa esposaren contra daudez bethi burrholz eta madaracionez: ez dute ikhusten monstro beltz eta icigarriric baicen; Deabru guciac dire lagun, eta tormentatçaire, ô Ifernua! ala hire terriblea eta hire icigarrria.

## II.

Jaincoa bera damnatu hekien punitcen hari da; bethi yacartcen diote urri-calmenduric batere gabe; gorraena eguiten diote hekien nigar guciei, hekien auhen eta suspira minec ez dute hun-kitcen, cz berateen haren bihotça; bethi edaten dute ligarainocoan Jaunaren coleraren charroan, eta ecin agortuco dute

seculan ; gaitça gaitçaren gainean , tormentac tormenten gainean egortcen diotçate ; ez da nihoiz ere flacatuco bethi cehatcen dituen beso mendecaria. Lehenago bekhatoreen punitceco uholde bat egorri çuen, çortci yustuz landan , bertce guciac itho cituena ; hiri dohacabe batçuen funditceco Cerutic yauts araci çuen suzco eta sufrezco uri bat. Batçuetan lurra arrailatu du gaichtaguinen biciric iresteco, bertcetan itsasoan hondatu ditu bere exaiac hekien deseguiteco ; gaztigu different hauc guciac cer ciren, Jauna , Ifernuan damnatuei yasanarazten diotçutenen aldean ? Cembait çure yusticiaren chorta bakhar , çure coleraren itsaso ecin agurtuzcotic eroraraci cintuenac , ordean, cu Ifernuan damnatuen tormentatcen hari çare eta oso osoa , gueriçatcen dioçute damnatuei çure bisaya amulxua , eta bethi aguertcen çaizcote coleraz harmatua. Eguia hauc sinhesten othe ditut , ala cz ? Edo sinhets detçadan edo cz , ez dire gutiago eguiac :

eta sinhesten baditut , nola nagoke tran-  
kilki bekhatu mortalean ? Nola egon nai-  
teke damnateeco arriscuric clarenean ?  
Çer içanen da nitaz , baldin ez banau  
Ifernuren contsideracioneac hunkitcen,  
ikharatcen eta berehala combertitcen ?

### III.

Jaincoac damnatuuen erretceco bere  
coleran phiztu du , eta bethi phiztua  
dauca Ifernuco sua ; su bat da hain bor-  
thitça , non gure sua haren aldean itçal  
flaco bat bai da : su bat da , bethi erret-  
cen , eta nihoiz ere contsumitcen ez di-  
tuena ; su bat da gorphutçac beçala ari-  
mac ere erretcen dituena : su batda ba-  
khotchari bere falten arabera sofriaraz-  
ten dioena ; eta certaz ere bekhatu eguin  
bai dute , hartan guehienic erretcen di-  
tu. Finean , damnatuec ez dute ikhusten  
suric baicen , ez dute iresten suric bai-  
cen , berac dire sustatuac eta hurren su  
iarren itchindi batçuec. Criseila gorriac ,  
zaldera irakituac , burdinazco orratcen  
junta çorrotçac ez dire deusie Ifernuco

suarekin comparatuac direnean. Helas !  
gutaric norc hauts eta herrauts bilhaca-  
tu gabe , yasan leçake oren erdi batez  
guisulabeco sua , eta beraz guitaric cei-  
nac hautatuco du Ifernuco suan egotea ?  
Norc nahico du egon gar eternal hetan ?  
Ez nic , dio guitaric bakhotchac ; horra  
cer diodan , horra cer nioien , eta biz-  
kitartean hunela mintço nintcen denbo-  
ran bekhatu eguiten hari nintcen. Other-  
cen ene erhokeriaren pareric ? Bainan  
akhabo , ô ene Jauna , akhabo , hausten  
dut bekhatu guciekin , uzten ditut hain  
garrazki punituac diren placerac , ene  
placer bakharra içanen da ene erretcecc  
phiztu ditudan suen nigarric abundan-  
tenez iraunguitcea. Eskerrac bihurtcen  
darozkitçut , ô Jainco guciz ona , ceren  
ez nauçun condenatu Ifernuco lecerat ,  
ene bicitce gucian laudatuco , benedica-  
tuco eta maitatuco çaitut.

*Bigarren Meditacionea Ifernua.*

I.

DAMNATUAC berac eguiten du Ifernuan bere suplicioa; bera da bere buruaren burrego crudela, instant guciez bere burua tormentatcen du eguiten dituen erreflexione bihotz arrailagarriez: damnatura naiz, dio, eta ene faltaz; galdu dut ene aita maitagarria, galdu dut ene coriona, eta hemen tormentatua, hemen sutan erretcen nago. Jaincoaz eta haren gloriaz goçatceco nintcen creatua, erosia, guiristino eguina; eta hemen naiz ilhumbean dohacabeen artean; eta non ren faltaz? helas! ene faltaz, ene falta phuruz: hori badakit, hortaz seguratua naiz; salba ninteken: cembat laguntça handi ez nuen Cerurat yoateco! eta certaco ez naiz hetaz baliatu? Cembat exemplo on ez nuen beguien aitcinean? cer gatic ez ditut hec seguitu? Cembat instrucionne ez nuen aditcen? cer gatic ez

naiz hetaz baliatu? Cembañ aldiz ez daro  
tet erran bekhatuac hunat nindakharke  
la! eta trufatu naiz guciez. Haimbertc  
graciez Jaincoac gombidatcen ninduei  
bere ganat; banituen sacramenduetai  
sendatceco erremedioac; Jesusen odola  
garbi ninteken ene notha beltcetaric; ce  
nuen escas salbatceco? Deus ere; halari  
ere, eta halaric ere damnatu naiz en  
faltaz. Ene adineco, ene herrico, en  
oficioco hainitz Ceruan dire, eta ni ere  
Ceruan içan niudeken. Cer gatic ez du  
eguin hec eguin dutena? Aithortcen du  
ene faltaz, eta ene falta phuruz dohaca  
be, eta damnatu naicela. Othe da arim:  
batentçat erreflexione hau beçain deses  
peragarriric? Bai, luna bertce bat eta  
bethi eguiten duena.

## II.

Damnatuac oraino bere buruari erra-  
ten dio erretcen duten kharren erdiar  
ezdeusen gatic galdu dela: damnatuac  
naiz eta czdeusen gatic: ecen cergatic  
ofensatu dut ene Jainco ona? Cer bilhatu

dut edo causitu bekhatuan? Ezdeus bat : placer iragancor , eta kharastasunez betbe bat ; haicearen pare den ohorezco pontu bano bat ; onthasun aphur , eta funsgabeco bat , berehala ametsa beçala yoan den sentsuen satisfaccion labur bat. Horra cergatic bekhatu eguin dudan. Eta hauc guciac cer ciren ? Orai dakit ongui ; esdeus phuru batcuec. Cer guelditcen çait orai hetaric ? Doidoja dastatu ditudalaco orhoitçapen hiragarri beçain desesperagarri bat : horra gucia. Eta damnatua naiz , eta erretcen nago. Mundu gucia enetu banu lurreco othasun gucien yabetasuna ardietsi banu ere , placer suerte guciez goçatu banintz ere , guciez ohoratua , estimatua , adoratua içan banintz ere , cer ciren hauc guciac ? Itçalac , kheac , haice hutz batcuec : eta gucien ondoan orai ez dut ur ihintz bat ere , erretcen , tormentatcen nauen su huntan mihi puntaren frescatceco. Eta damnatua naiz. Ala eñe dohacabea ! ezdeusen gatic naiz soberanoki , eta erran

ahal deçakedan baino dohacabeago. Horra cer dioten Ifernuan damnatuec : eta horra cer nic ere erranen nuen baldin ene Jaincoac punitu banindu lehembi-cico bekhatuaren ondoan. Aithortuco nuen ezdeus gatic daimnatua nintcela ; eta orai nola naiz ? Herioa heldu balitçat , car estatutan causi othe nintçake ? Ah ! Jauna , çuc ikuisten duçu ene bihotça ; baldin cembait bekhatu gordez hila bada ene arima , eçagutaraz dacu ene hobena , eta indatçu haren auhendatceco graciac.

### III.

Finean , damnatuac eguiten du erre-flexione desesperagarri hau ; damnatua naiz , eta daimnatua içanen naiz eternita-tean. Oraino noizbait ilkhi behar banintz presondegui dorphe huntaric , oraino noizbait akhabatcen baiire ene penac , noizbait iraunguitcen balire erretcen nauten suac , cerbait laitcke , contsola nintek , ez netçake hurren senti tor-mentac , ez litezke hurren condatceco hemengo oinhaceac ; bainan badakit, se-

guratua naiz , ikhusten dut seculacoac direla, eternalac direla hemen alde guietaric pairatcen ditudanac. Mila urthe ; eta mila milium urtheren ondoan , ez dire laburtuko , ez eztituco hemengo suac. Itsaso gucian ur chorta beçambat , arboletan hosto den beçambat , milium menderen ondoan orobat içanen naiz , ene tormentec ez dute içanen seculan finic. O eternitatea , ala hire lucea ! ala hire ecin contcebitua ! Eta , ô eternitate dohacabea , ala hire desesperagarria ! Eternitatea , secula , certaco ez çarete ican nitaz bethi meditatuac ! Certaco ahantci eta bistatic galdu çaituztet ? Horra cer dioten Ifernuan damnatuec , eta probetchu gabe. Ni balia nadin hec eguiten dituzten erresflexioneez ; ez beitez ican enetçat agorrac ; hekien erhokeriac çuhur baneca , corthe bera dago enetçat hec beçala bekhatuan bicitcen eta hiltcen banaiz ; nolaco artharekin ez diot beraz iheseguin behar hain garrazki eta luceki punitua den bekhatuari !

---

*Meditacionea Confesioaz.*

I.

JAINCOAREN misericordiac , gure bekhatuen barkhatceco , eman darocu erremindio bat osoki indartsua eta erretcha. Bathaioan eguin darocun gracia handia galtcerat heldu garenean gure faltaz , ez gaitu uzten laguntça gabe ; eman darocu bide bat harekin erreconciliatceco , main-hu sacratu bat utci darocu , eta han Jesu-Christoren odol preciatuaz gure arimaco notha gucietaric chahutcen gaitu Cembat ere handiac eta çaharkituac badire gure bekhatuac , penitentciaco sacramenduan ardiets deçakegu guci-gucien barkhamendua. Othe da erremedio hau baino indartsuagoric ? Eta ez othe çaicu erretch húntaz baliatcea ? Ez da behar itsasoric pasatu hunen causitceco ez da diruric eman behar hunen ardies-teco , ez da arartecorie behar huntaz baliatceco ; dembora gucietan , sasoin gu-

cietan idekiac daudez graciaren ithurburu baliosac ; Jesu-Christoren Ministroec berec deitcen eta gombidatcen gaituzte gure sendateco ; aski dugu gure contcientcia examinaturic . gure bekhatu guciac dolore eta urrikirekin confesatcea ; bide hortaz içanen dugu barkhamendua. Othe da deus ere errechagoric ? Ifernua mereci duenari sobra galdetcen othe çaoiada, ordenatcen çaiionean bere falten higuintcea eta confesatcea ? Merkeago içan othe cecaken galdu duen gracia ? Cerbait guchiago behar balitz ere , ez othe luke gogotic bere bicia ere sacrificatu behar su eternalari ihes eguiteco , eta Ceruco gloriaren ardiesteco ? Bai , ene Jaincoa eta ene Salbatçaillea , gogotic eta lihotz onez ichur neçake ene odol gucia corigaitz eternalari ihez eguiteco ; balituco naiz beraz çuc ematen darotaçun erremedio indartsu eta erretchaz : mainhi sacratu huntan garbituco naiz ene bekhatu gucietaric çure odoł preciatuaz.

II.

Ez da posible behar den beçala , erran  
mihi da , Jaincoarekin baketceco on den  
beçala , bekhatuez orhoitcea Jaunare  
gracia gabe ; beraz othoitçaz behar gar  
lehenic entseiatu Ceruco arguien ardiest  
terat , eta horra cer hanitz gotic eguiete  
duten. Guero examinatu behar dugu gu  
re burua , ikhusi behar dugu ea certan  
bekhatu eguin dugun gogoz , hitcez  
obraz , edo negligentciaz ; hortaracot  
contsultatu behar dugu Jaincoaren le  
guea , beguien aitcinean eman behar di  
tugu Elicaren manuac , gogorat ekharr  
behar ditugu içatu ditugun occasioneac  
tentacioneac , lanac , eguitecoac ; ilha  
bete , aste , egun guciac bat banazca mi  
ratu behar ditugu , yakiteco ea non , noiz  
nola , eta certan eguin dugun bekhatu  
Guciz ez dugu arinki iragan behar gure  
estatuco obligacioneën gainean , ecer  
hetan eguiten diren faltac ondore triste  
enez seguituac ohi dire. Costumaz edo  
usantçaz eguin ditugunec atencione be-

ci bat galdetcen dute. Examina hau tha handirekin eguin behar da. Eguico importantagoric othe dugu munian hau baino? Eta nic nola eguin othe it ene examina? Cer artha hartu dut ne buruaren interrogatceco? Cer penac ne bekhatuez orhoitceco? Helas! hanitz rinki begui colpe bat haurdiki dut ene icitcearen gainerat eta ondoan berehala oan naiz Confesoraren oinetarat. Balima, Jauna, orai eguin gogo dudan con esiorat hobekiago preparatuco naiz.

### III.

Osoki eta clarki behar dire declaratu bekhatu mortal guciac, ecen bakhar bat re ahalkez, beldurrez, edo maleciaz gordetzen balitz, bekhatu mortal berri bat eguinic lioake haina bere etcherat, eta ez lecake ardiets bakhar baten bar-khamendua. Guciac beraz bat banazca confesatu behar dire bere circunstancia guciekin; oraino erran behar ditugu, berenez ez bekhatu içana-gatic, gue bekhatu dauzeagun guciac; segurki eguin

ditugula dakizkigun saltac, segurac beçala, dudazcoac ere; posible bada, nihor icendatu eta eçagutaraci gabe. Suerte bakhotcharen nombreaz ez bagare yustuki orhoitcen, bederen aphur bat gora behera uste dugun beçala contua eman behar dugu; ecen nola confesorac bertcela yakin en du gure estatua? Cer ordenatuco darocu? Cer conseilu edo erre-medio emanen darocu? Aithortcen dut, Jauna, ez naicela bethi aski artharekin preparatua hurbildu penitentciaco sacramendurat. Cembañ huts ez dut eguin beraz, huts gucien erreparatceco lekhuan? Damu dut guciez, hartcen dut deliberação fertru bat, hemendic harat, çure misericordiac eman darotan mainhu saindurat yoateco conscientia ongi examinaturic, han declaratceco eçagutaracico darozkidatçun bekhatu guciac: çure gracia sainduaren arraioez arguçañ ene adimendua, çure amodio sacra-tuaren kharrez susta çacu ene bihotça, çure contra eguin ditudan falta guciac.

eçagut, declara eta higuin detçadan; aithortcen dut ez dudala mereci çure misericordia, bainan, ô Jesus guciz ona! çuc enetçat ichuri duçun odol preciatuac ematen darot fidantzia oso bat; eta esprantça dut, sacramendu huntan emanen darotaçula ene bekhatu gucien barkhamendua, eta çu ez guehiago ofensatceco gracia.

---

*Meditacionea Contritioneaz.*

I.

BEKHATUEN dolorea, eta guehiago bekhaturic ez eguitéco deliberacione fermua baitezpada necesario da, penitentciaco sacramenduan ardiesteco graciá eta barkhamendua; urriki min eta deliberacione hau gabe ecin ilkhi gaitezke Jaincoaren exaitasunetic, ecin athera gaitezke bekhatuen esclabotasunetic: examina gucietaric seriosena eta arthosena, declaracione gucietaric compliena eta osoena ez dire aski errecibitceco absoluto.

cionea , oraino higuindu behar dire bekhatu mortal guciac , eta damu eguiazco bat içan behar da guciez . Contricione hau da penitentciaco sacramenduan gure ganic galdetcen den disposicioneric beharrena ; eta noiz penetan eman othe gare hunen içateco ? Cer eguiten dugu harekin Confesora ganat yoateco ? Idu ritcen çaicu examina ongui eguiten badugu , gure bekhatu guciac clarki confessacen baditugu , eta ematen çaizkigun penitentciac complitcen baditugu , behar den gucia eguin dugula ; content , ale guera goaz gure etcherat , Jaincoarekin adiskidetu baguine beçala ; eta , helas ! ez dugu ikhusten dolore min batec ez badu gure bihotça phorroscatcen , gure bekhatuekin garela , Apheça ganic errebitu dukegularic haren absolucionea . Finca çacu eguia hau çure izpirituan eta bihotcean , engana ez çaitecen hain materia importantean .

II.

Cein dire contricione on batec içan be-

har dituen condicioneac? Gure baitharic  
ecin dukegu, eta Jaincoaren graciac ins-  
pira deçakegu hain necesario den contri-  
cionea: Jaincoaren dohain bat da ni-  
hori çor ez caiona, beraz galdetu behar  
liogu othoitçaz, nigarrez, eta obra onez.  
Bihotça eta bihotz gucia dolore hunec  
behar du caurthu, arrailatu, phorros-  
atu, gambiatu eta berritu behar du ene  
bihotça; eta ez choilki ene hizcuntça edo  
campoa. Dolore hunec obligatu behar  
ian bekhatu mortalic maiteenen higuin-  
cerat munduko gaitz guciac, herioa,  
fernua bera baino guehiago-ere, gaitz  
guciataric handiena denaz gueroz bekha-  
ua. Chede on eta guiristinozco batez be-  
har dugu higuindu bekhatua, edo ceren  
nereci-arazten duen Ifernua, edo ceren  
gal-arazten darocun Cerua, edo ceren  
sensatu dugun Jainco guciz maitagar-  
ia; baldin bekhatua higuintcen baduçu  
eren gal araci darotçun edo osasuna,  
edo munduaren estimua, edo onthasuna,  
edo ohorea; chede hauc baicen ez baditu

içan cure doloreac , inutila , agorra , funtsic gabea içatu da. Interroga çäen cure bihotça , galdeguioçu ea cer egui duen dolore hunen Jaincoari escatceco , ea bekhatu mortal guciac , maiteenac ere higaindu dituen , ea cergatic eta nola higuindu dituen. Helas ! Jauna , gutiac dire eguaia saindu hauc meditatcen dituztenac urriki hunen concebitceco , gutiac dire bekhatuaren belztasunaren , eta osentsatcen duten Jaincoaren maitagarritasunen gainean erreflexione eguiten dutenac. Ni guti haukien nombreco içan othe naiz ? Ni guelienac beçala hautaz guti orhoiturie confesatu banaiz , cemba arraçoin ez du ikharatceco , eta ene confesioac inutilac direla uste içateco !

### III.

Nondic eçagut deçaket ea othe nituen disposizione hauc confesatu naicen gucian ! Huna marcac. Adıçacu atentcione-rekin , contsidera çatçu astirekin. Baldin confesatu ondoan apartatu baçare bekhatuzeo occasionetarie , Jaincoaren exai-

goan eroraraci çaituzten compainia, lekhu, placer, emplegu eta ocupacione guciei ukho eguiten badioçute, çure lagunekin erreconciliatu baçare, calte eguinac erreparatu baditutçu, hicitcea ghambiatu baduçu, eta çure eguimbideac arthoski complitcen baditutçu, çure confesioac onac direla uste içan behar duçü. Contrarat, baldin confesatu ondoan occasione beretan, usantça beretan, eta çure obligacioneen contraco bekhatu mortaletan berriz erori baçare laster eta errechki; helas! ikhara çaité; yuya deçaçuke çure confesioac inutilac, eta calteciorac içatu direla, behar cen urrikia eta deliberacione fermua ez cinduela; beraz confesio hec guciac erreberitu beharditutçula. Non edo nola naiz çurekin, ô ene Jainco Jauna? Nolacoac içatu dire ene confesioac? Preparacione eta disposicione haukiekin eguinac içatu othe dire? Beldur naiz ez ditudala bethi hauc içatu, eta horra cere obligatu behar nauen hemendic harat arthoskiago pre-

paratcerat. Eguidaçu gracia haukiekin bethi confesatceco , eta seulan ez hauc gabe.

---

*Meditacionea Combertsionearen luçamenduaż.*

I.

Ex deçaçula luça , egunetic egunnerat çure combertsionea , cuc ofentsatu duçun Jaincoac berac gombidatcen çaitul penitentciarat ; ez othe laiteke beraz hari daimu berri bat eguitea , çure bekhatuctan oraino bihar artean ere egotea ? Nolaguiristino bat egon daiteke , oren batez ere bere Jaincoaren exaigoan ? Lurrecc handi bat , printce edo erregue bat ofentsatu baguindu , othe guinduke soseguric hura facegatu artean ? Eta ez othe laiteke haren mezpreçatcea , baketceaz casuric ez eguitea ? Cer laiteke berac deitcen baguintu bere ganat ? Berac gombidatcen baguintu bere palacionat ? Berac aguincten balarocu bere adiskidetasuna , eta

harekin batean bere erresumaren erdia? Eta haimbertce harc egun ondoan ez baguindu eguiten urhatsic harekin basketceco? Gure ezacholamenduac ez othe luke mereci punicioneric garratcena? Horra bizkitartean nolazoaac gareñ gure Jaincoarentçat. Deitcen gaitu gu bekhatoreac bere ganát, aguintcen darocu barkhamendua, bere amodioa, bere erresuma gucia; eta nola gaudezke itçuli gabe haren ganat? Luçamendu hunec ez othe du marcatcen antsiaric ez dudala, ez Jaincoaz, ez Ceruaz; atseguin dudala ene bekhatuaz? Content naicela Deabruaren esclabotasunaz? Nahiago dudala egon Sathanekin, ecen ez Jaincoarekin? Othe da deus ere Jaun soberanoa guehiago mezpreça deçakenic disposizione hau baino? Damu dut, Jauna, ene luçamendu guciez, orai beretic ukho eguiten diot munduari, cerbitçatuco çaitut ene indar guciez, maitatuco çaitut enc bihotz guciaz: hori nahi dut, hori da ene guticia; compli çazu, othoi, ene ahal escasa.

II.

Çure intres eguiazcoac obligatu behar  
çaitu berehala combertitcerat, ecen cei  
care Jaincoarekin errecontciliatu artean'.  
Jaunaren exaia, bekhatuaren esclaboa  
Deabruaren gathiboa, Cerutic desterra-  
tua; eta Ifernuco surat erortceco mei-  
nean: horra çure estatua. Othe da estatu  
triste hortaric lehen bai lehen ilkitcea  
baino deus ere çuretçat baliosagoric.  
Bertce alde, çuc estatu dohacabe hortar  
eguin ahal deçaçuken guciac ez du sari-  
ric mereci Ceruan; Jaunac ez dairotçu  
cor errecompentsaric glorian, eternita-  
teco khoroa ecin irabaz deçaçuke heiez  
guciez. Helas, horra beraz gloriacotz gal-  
duac hambat obra, bekhatuan ez bacine  
hain balios litezkenac! Ez othe çare be-  
raz çure buruaren exai, hec hola galtce-  
rat uzten ditütçünaz gueroz! Certaco ez  
çare Ichiatuco ahalic lasterrena comber-  
titcerat, Cerucotz on diren obren çure  
ahal guciaz eguiteco? Çure burua maite  
baduçu, berehala bekhatutic athera be-

har care , berehala combertitu behar care.

III.

Erhokeria handia laiteke munduaren errankicunen gatic combertitu gabe ego-tea. Jaincoac manatcen darotçu , çure intresec galdetcen dute , comberti çaitela ; certaco entçunen ditutçu yendeen erasiac ? Eta hauc cer erranen dute , erran ahal guciac erranic ere ? Utcico ditutçun lagun libertinec usteco dute , cembait damu erreberituz , largatu ditutçula ; erranen dute estranio eta estrabagant bat çarela ; çutaz eta çure gambiantçaz trufatuco dire ; adimenduaz gabetu çarela erranen dute : ez easuric eguin hekien erasia gucicz; cohaz çure bide onean , ez çaituzte hec guibelatu behar hartu luçun deliberacionearen seguitcetic. Ez la espantitceco condenatcen bacaituzte çure bicitce berriaz , ecen çuc çure gambiantça dohatsuaz condenatcen duçu hekien libertinkeria. Tentacione hau garnait çagu , eta hunen contra eramanen

duçun bictoriac bertce hainitz irabacara-  
cico darotçu; cembat flaco bai çare ere,  
cerbitçatu gogo duçun Jaincoac borthiz-  
tuco çaitu ; ongui deliberatcean datça  
gucia, cincinez nahi bacare saindutu eti  
salbatu, saindutuco eta salbatuco çare  
Ah ! Jauna, ikhusten dut salbatu nah  
nauçula; dembora da ihardets dioçodar  
çure borondateari. Gombidatcen nauçu  
ni bekhatorea çure ganat : heldu nai:  
orai beretic. Barkha datçu, othoi, ene  
luçamendu iraganac; çure gloriaç, ene  
intres eguiazcoec obligatcen naute bere-  
hala combertitcerat, eta deusec ez nau  
guibelatuco, orai artean beçala, curi ene  
bihotça eniatetic. Çu çare onthasun eta  
çorion gucien ithurburua ; urrunduced  
dut beraz ene bihotcetic münduaren al-  
deraco yaidura sobraniazcoa, eta bethe-  
co ditut çure manu salbagarriac.

*Bigarren Meditacionea Combertsionearen  
luçamenduaaz.*

I.

ERHORKERIA hand bat da ethorkiçunaren gainean conditcea. Çuc çure buruari aguincten dioçun dembora guerocoa norcaguindu darotçu? Ez deçaçula erran heldu den urthean , edo hauci hau churitu ondoan , edo ezcondu ondoan , edo ene familia altchatu eta antolatu ondoan combertituko naiz ; ecen ez çare demboraren nausi , ez da çure escuan egun bakhar baten içatea ere : Jaincoac eman dioçoke placer duenari placer duen beçambat dembora ; nihori ez dio aguindu oren bakhar bat ere ; cembat ez da , uste çuten dembora baino lehenago hil? Eta çuri hei beçala guerthatcen baçaitçu , horra non , combertit u gabe , herioac atcemamen çaituen ; eta beraz bekhatuan , eta beraz Jaincoaren exaigoan , eta beraz damnatuco çare. Certaco nahi duçu gal-

tcerat utci oraino dembora baliosa eta segurki duçuna , dudazco , menturazco dembora batez baliatceco ? Arriscatcen duçu mentura baten gainean , eta cer Cerua , eternitatea , çure arima. Munduko eguitecoaz dohanean , badakiçu segur denaren hartccn , menturazcoac utcircic eta eternitateaz dohanean , arriscua har tuco duçu bada ? Erhorkeria bat da beraz , ethorkicunaren gainean fidaturic guerorat combertsionearen egortcea.

## II.

Erhorkeria handiago bat da oraino combertitceco necesario duçun gracia ren gainean condaturic , orai duçun Ceruco laguntca galtcerat uztea. Çuc nahiçatea ez da aski , dembora içatea ez da aski eguiazki combertitceco; oraino Jaincoac bere dohinez argitu eta borthiztu behar çaitu , Ceruco on den guisa bekhat tuen eçagutceco eta higuintceco. Bekhat eguiteco ceroni aski eta franco çare ; oidean öngui penitentcia eguiteco çu et Jaincoa bebar çarete. Eta noiz aguindu

dio Jaincoac , bere combertsionea luçat-  
cen duenari , nahi dueneco gracia ? Norc  
erran darotçu , placer duçunean , içanen  
duçula combertitceco laguntça huru ?  
Cein Propheta edo Ebangelista , cein li-  
buru edo lerrotan iracurri duçu , Ceruco  
dohain huru çure escuco , çure manuco  
içanen duçula ? Contrarat , cembañ aldiz  
ez çaitu Jaincoac dichidatu gracia bereci ,  
dohain handi huru errefusatuco darot-  
çula ? Çuc orai harren boçari gorrarena  
eguiten badioçu , harc ere ez duela adi-  
tuco çure oihu mina ? Bilhatuco duçula ,  
eta ez duçula causituco , eta guisa hortan  
çure bekkatuan hilen çarela ? Horra har-  
ren mehatchu icigarriac ; eta guero nola  
conda deçaçuke orai arbuiatcen duçun  
graciaren gainean ? Ez othe da yustu ere ,  
hambat aldiz mezpreçatu duçun dohaina  
ez dakiçun eman çuc placer duçunean ?  
Jaunac orai bere boça adi arazten darot-  
çu , ez othoi tapa çure arimaco behar-  
riac ; itçul çaita , comberti çaita Jauna  
ganat , beldurrez guero ez deçaçun içan  
combertitceco ahala .

III.

Uste duçu menturaz cure combertsio-nea luçatuz , guero erretchkiago utcico duçula bekhatua? Hclas , trompatcen çare. Ez dugu ikhusten , bekhatuan ego-nez , bekhatua onhesten dela? Hura on-hetsiz maitatcen dela, maitatuz nausitcen dela , eta guisa huntan emeki-emeki , penaric gabe , antsicabeki eguiten dela? Hortic heldu da , egarri denac ura beça-la , edaten bai du bekhatua ; lehembician penarekin eguiten cen falta , ondoan aise eta errechki eguiten da ; gueroago eta areago , bekhatutic bekhaturat goaz , lu-çamendu hunec infernurat garamatça. Lurrean egonago eta borthičago dohan arbola hurren impossible da erroetaric atheratcea ; eritasun çaharkitu batetaric sendatcea ala guciz gaitz bai da! Çuhar çahar makurra norc chuchenduco du? Balimba errechago da gazte deno haren plegatcea. Tira çäçu ceronec contsekent-cia ; beraz gaitçago içanen da , bekhatuan egonez , combertitcea , beraz orai beretic combertitu behar naiz.

Bai, Jauna, orai beretic combertitzen  
naiz, ceren ez bai dakit gueroric içanen  
dudan. Orai beretic çure ganat heldu  
naiz ceren ez bai dakit eia guero ahalic  
içanen dudan. Orai beretic bekhatuac  
uzten ditut, ceren ez bai dakit ea guero  
utcico ditudan. Dembora da ene salba-  
menduaz orhoitceco, sobra orai artean  
ahantci dut; ez dut nahi galdu instantic,  
orai beretic oso-osoa ematen natçaitçu,  
ordean hartaracotz çure laguntçac behar  
ditut; hel çakizkit, ô ene Jainco ona?  
Indaçu gracia, çuc inspiratu darotaçun  
deliberacionearen complitceco.

---

*Meditacionea Othoitçaz.*

I.

OTHOITÇA Jaincoarentçat glrios beçain  
ohoragarri da guretçat. Othoitcean lau-  
datecen dire Jaincoaren puchantça sobe-  
ranoa, ontasun mugarri gabea, çuhurt-  
cia handia, yakintasun infinitua, probi-  
dencia osoa eta hain maitagarria. Ecen

certaco othoizten dugu gure beharretan, leku gucietan, ocasione gucietan? Ceren bai dakigu bothere gucia baduela gure laguntceco, eçagutça gucia gure beharren ikhusteco: ordu beretic aithortcen dugu, haren ganic guciac uste ditugula, haren baithan dela gure fidantzia osoa, harc libra eta salba gaitçakela, horra, othoitça eguiten dugunean, nola ohoratcen dugun gure Jainco-Jauna. Certaco ez dugu beraz maitatuco othoitça! Eta guri cer on ez darocu ekhartcen? Guciz gora deitcen denarekin mintçatcea, Ainguueruec ikharaz bethericaco errespetu batekin adoratcen duten mayestatearekin familierki solastatcea, ceru Jurrer Jaun eta Yabe Bakharrarekin, adiskide bat bere maitearekin beçala, entretenitcea, ez othe da guretçat ohoric handiena? Eta horra cer abantail, cer çorion dukegun placer dugun gucian, dembora eta leku gucietan. Nola nagoke beraz othoitça maitatu gabe? Eta cer estimu orai artean hartaz eguin othe dut?

II.

Hain necesario duçu othoitça , non ez baiduçu deus ere ardietsico haren bidez baicen. Gucien escasean çarela badakiçu ; exaiez inguratua çarela frogatcen duçu ; tentacionez atacatua çarela sentitcen duçu ; itxu , flaco , cri , eta pobre çare ; beraz galdetu behar duçu arguia , indarra , osasuna , onthasuna ; ecen bertcela ez duçu deus ere içanen ; eta cer bilhacatuco çare hambat arriscu eta exaien artean , beguiac , besoac , eta bihotça hedatcen ez baditutçu , lagun , borthitz eta sustenga çaitçaken Jaincoaren ganat ? Nondic heldu dire çure behaztopatce guciac ? Non dic heldu da hain maiz epheltasunerat eta bakhaturat erortcen bai çare ? Nondic bada ? Othoitçaren ez eguitetic . Necesario duçun indar gucia causi cineçake othoitcean ; hau duçu laguntça gucien ardiesteco bide segura , eta hala ere uzten duçu ! Sainduec estimatu dute othoitça , ceren eçagutcen baiçuten haren beharra eta balioa , handic hain saindu handi

eguin dire. Eguiçu hec beçala. Dudan çare ez yakinez cer eguin ? Galde çoku Jaunari necesario duçun arguia. Tentacionez atacatua , arriscuz bethea eta inguratua çare ! Oihu eguiçoü çure aita onari , eta seguratua içan caite , ez çaitçula faltatuco laguntça eta behar duçun fagorea.

### III.

Othoitz hainitz orai artean eguin duçu , eta progøtchu guti tiratu duçu. Nondic heldu da hori ? Çure saltatic. Ez duçu çure othoitça eguin behar den beçala. Humiltasunekin , fidantciarekin eta pertseberantciarekin eguina den othoitça da Jaincoaz entçuna. Helas ! cer gare gu , eta cer da Jaincoa ? Contsidera deçagun gure sortcea , gucia da miseriaz bethea ; gure bicia bekhatuez cargatua ; gure gorphutcen ethorkia eta fina hautsa eta herrautsa ; gure arimac menturaz çauriz estaliac ; eta Jaincoa handitasun soberanoa , goratasun mugarri gabea. Ez othe da bada yustu humiliatuac , eta ezdeus-

tatuac aguer guitecen gure Jainco Jaunarekin mintço garenean ; ala gutitan disposizione hunekin aguertu bainaiz Jaincoaren aitcinean ! Fidantciaz harmatua içan behar da ene othoitça , eta huna cerc inspiratu behar darotan confidantcia hau. Jaincoaren misericordiac , ceren nahi bai darot eguin , nic merecitu gabe gracia ; Jaincoaren ontasunac , ceren bai dakit maite nabela , eta salbatu nahi nabela ; Jaincoaren leyaltasunac , ceren seguratu bai nau entçunen nabela , eta berre hitça atchikico duela : guciz Jesusen odol preciatuac eman behar darot esperantça gucietaric handiena , eta haren icenean galdetu behar dut gracia eta misericordia. Confidantcia hunen faltan , cembañ othoitz ez dire alferretan egui-nac ! Fincan , pertseberantciarekin eguin behar da othoitça : galda , ez behin , bietan edo hamarretan , bainan ardiets deçaüken artean : pobre beharretan denac beçala , esca çäcu duçaüken artean : çure galde husuez obligatuco duçu Jaincoa

gracia eguiterat , eta çuri gusta behai  
çaitçu , maitekiago goarda deçaçuntçat.  
Indatçu , Jauna , othoitcean baitezpad:  
necesario diren disposizione saindu  
hauc , çutaz entçuna içan nadintçat ene  
galde gucietan.

---

*Meditacionea Trabailuaz.*

I.

TRABAILUA edo lana da/guiçonaren çor-  
thea. Bethi bere inocentcian egon balitz-  
ere , trabailatu beharco cen. Lurreco pa-  
rabisua edo baratce dohatsuan eçarriac  
içan baciren ere gure lehembicico bur-  
hasoac , obligatuac ciren han lanean ha-  
ritcerat , eta orduco lanac nekheric ga-  
becoac içanen cirelaric arren , bethi tra-  
bailu baitcuec içanen ciren : ordean ,  
contsideratcen badugu guiçona bekha-  
tuaren ondoan , ikuhsico dugu clarki ,  
trabailürat condenatua içatu dela. Horra  
ofentsatu çuen Jaincoac Adami eta haren  
ondoco guciei eman dioten penitencيا.

Oguiac hacico caitu ; ordean yakin çäcu ,  
çure nekheaz eta icerdiaz irabaci behar-  
co duçula çure yanharia. Ez darotçu lur-  
rac ekharrico lapharric eta arantceric  
baicen ; çure trabailu continualaz behar  
duçu erakharri çuri hazcurriaren ema-  
terat. Trabailua da beraz Jainco berac  
guciei ordenatu darocun lan handia.  
Jesu-Christo bera nahi içan da trabaila-  
tu , charpantercoan haritu da san Jose-  
phen botican , eta oficio nekhiagarri har-  
tan cembat aldiz ez da icertu sainduen  
descantsua eguiten duen Jaincoa ! Nola  
beraz guc arbuiatuco edo higuinduko  
dugu Jesusec maitatu eta besarcatu duen  
lana ? Othe da lan continuala baino ho-  
beagoric tentacioneen bentçutceco ? Bethi  
ocupatua dena menturaz Deabru bakhar  
batez da tentatua , diote sainduec , or-  
dean alferric dagoena cazpi Deabruz eta  
guehiagoz ere atacatua da. Cembat arra-  
çoin ez dut beraz nic trabailuaren mai-  
tatceco , eta nihoitz cre alferric ez ego-  
teco ?

II.

Trabailua gucientçat hain necesariac eta probotchos delaric arren , guciac e; gare trabailu suerte beren eguiterat obli- gatuac. Jaincoac guciei lana ordenati darocu ; ordean bakhotchari guisa bate tacoa. Harc eguin ditu munduko condi- cione differentac , eta condicione bakho- tchari iratchiki diotça trabailu berec batçuec. Cein ere estatuian eçarri bainau Jaincoaren probidentzia bethi çuhur eta yustuac , hartan diren lanac eguin behar ditut ; ez dagot niri hautatcea , ez eta ere hobeagoaz baliatcea ; bainan niri dago- ene condicione eco eguinbideen bethet- cea. Laborari banaiz , lurreco lanac eguin behar ditut , tratuko presuna banaiz , ne- gocioaz behar naiz ocupatu : oficioco ba- naiz , ene oficioac eguin behar du ene lana ; sehi banaiz , buruçaguien conten- tatceac eguin behar du ene grigna oso osoa : munduan egoteco banaiz , hango trabailuac behar ditut besarcatu ; hitz batez , ez edocein lan , bainan cne con-

dicioneari darraiona eguin behar dut : hori da Jaincoac ene ganic galdetcen duena. Cemba aldiz bizkitartean alferke-riac edo amodio propiac enganatu naute hobearen , edo debocionearen itchura faltso batez ! Cemba aldiz Jaunac ene ganic galdetcen cituen eguimbideetaric cerbaitetarat aldaratu naute. Certaco ba-da hauc utciric bertcei lothuco natçaiote ? Certaco hobeago baten itchuran gure çoriona arriscatuco dugu ? Maita çagun gure bocacionea, gaudecen fermuki gure condicionean , eta eguin detçagun Jain-coac hartan galdetcen darozkigun lanac.

### III.

Cure estatuco eguimbideac bethe be-har ditutçu , lehembicoric Jaincoaren amodioan ; haren gracian eta adiskideta-sunean eguiten denac balio du Ceru gu-cia : condicione hau ez badute , helas ! gloriacotz galduac içanen dire , ez dute eternitatean sariric içanen. Duçun beraz artha bethi graciazco estatuan egoteco. Bigarrenecoric , eguitçu cure lan guciac

Jaincoarentçat ; edo haren obeditcece  
edo haren laudatceco , edo haren mai  
tceco , edo hartaz goçatceco , edo har  
yusticia satisfatceco chedearekin. Finea  
eguitçu guciac bozcario eta alagrantc  
rekin , gogotic eta bihotz onez , ez la  
ki , costumaz , degustu edo herabeta  
nekin ; berdin hec eguin behar ditutç  
certaco ez ditutçu beraz eguin atseg  
nekin ? Orhoit çaité Jaincoa beha dag  
çula , Jaincoac errecompentsa eman n  
darotçula. Nekhatua çarenean , orl  
çaité Jesus çuretçat nekhatu dela : ic  
tua çarenean , Jesus çuretçat icertu de  
eta yunta çatçu çure pena chumeac  
ren pena handiekin ; helas ! Dohacabe  
cer ez duçu galdu artha hori içan salt  
Ah ! Jauna , orai artean ez dut eçag  
trabailuaren necesitatea eta haren bali  
ez dut yakin çuc eçarri nauçun condic  
neco lanez ohoratu behar cintudala  
ez dut comprehenitu nola hec balios err  
da netçaken ; orai , Jauna , arguitu n  
çu ; orai causiarazten darotaçu tre

preciatu bat ene estatuko eguiimbideetan , eguidaçu gracia hetaz aberasteko çure beguietan.

---

*Meditacionea Jaincoaren amodiaaz.*

I.

Guciz handia eta eztia da Jaincoaren maitateeco dugun obligacionea; hau da legue saimdua, manamendu handia eta ene lehena, hau galdetcen darocu Jaincoac ; nahi du gutaz içan maitatua , eta gaztiguric ikharagarienez dichidatcen gaitu , ez badugu maitatcen ; bainan certaco mehatchuac ? Ez othe da gureiçat çorion bat hur a maitatcea ? Eta çorigaitcie handiena ez othe laiteke hur a ez maitatcea ? Legue hunen complitcerat gu hertchateeco die gaineraco manamendu guciac. Ez du guiconac deus ere beharragoric hau baino. Bethi gare eta eternitate gucian içan behar gare Jaincoaren maitatcerat obligatuac : gaineraco eguimbide guciac akhabo içanen dire gure bi-

ciarekin ; ordean Jaincoaren maitatcerat obligatcen gaituen leguea , Jaincoa bera beçala , eternala da. Fedeac ez du Ceruan lekhuric , ceren iκhusten bai da sinhesten cena ; esperantçac ez du han lekhuric , ceren igurikitcen cenaz goçatcen bai da ; amodio phuruac bethi han erre-guinatuco du , ceren bethi maitatuco bai da bethi maitagarri çaicun Jaincoa. Cer-taco beraz orai beretic ez dugu hasicc eternitatean eguin beharco dugun oficioa ? Certaco ez dugu orai eguinen beth gure çoriona eguinen duen lana ? Maita deçagun beraz gure Jaincoa , eta hartar causituco dugu gure contsolacione osoa Bake eguiazcoa da Jaincoa maitatcear darraion fruitu preciatua. Cer eztitasun cz dugu içanen hora maite duguno Amodioa den lekhuan ez da nekheric , ez kharastasunic , eta nekhe edo kharasta-sunic bada , guciac maitagarri causiaraz ten ditu amodioac. Cer erhorkeria bera Jaincoaz bertcetan gure descantsuare bilhatcea ! Eta nola bici gaitezke Jaincoa maitatu gabè ?

II.

Eçagutcen baguindu ongui cein maitagarria den bere baithan Jaincoa , handizki maita guineçake : nola guti eçagutcen baidugu , hargatic hain guti maitacen dugu. Cer dire creaturetan ikhusten diren maitagarritasun guciac Jaincoaren maitagarritasunen aldean ? Ezdeus batçuec. Ez da edertasunic harenekin compara daitekenic ; gucia da saimdua eta saindutasuna bera ; ona da , eta ontasun soberanoa ; manificoa eta manificentia bera ; handia eta handitasun infinitua , botheretsua , aberatsa , liberala , çucena eta çucentasuna bera : gogorat ekharatçu perfeccione suerte guciac , eta haren baithan causituco ditutçu escasic batere gabe. Creaturaric complienac hutsac dire huru gabe ; haren ganic dute , duñen ontasun , edertasun , eta maitagarritasun gucia. Ah ! ikhusten baguindu bere baithan den beçala ! Gure bihotçac haren ganaco amodioaz sustatuac laitezke ; cer diot ? Ecin nahi beçambat maitatuz ,

amodioaren kharrez akhaba laitezke. Jaincoa da ; erran nahi da , perfeccione gucietan infinituki perfet den içate guciz maitagarria. Nola nagoke beraz hura maitatu gabe ? Susta çacu , Jauna , çure amodioaren kharratz ene bihotça , bera çacu ene bihotz gogorra ; urth çacu ene bihotz hormatua. Khen çatçu ene bihotcetic bertce amodio guciac , eta eguiçu çure amodioac bakharric erreguina deçan ene baithan. Ochala banitu mila milium bihotz , guciac çuretçat nintuke ! Bat eman darotaçu ; eta hau guci-gucia oso-osoa bethicotz , seculacotz ematen darotçut.

### III.

Jaincoa bere baithan hain maitagarria ; çure amodio guciaz digne bada , edo beraren gatic maitatu behar baduçu çuretçat gucia ona delaco orhoitçapenac obligatu behar çaitu soberanoki haren maitacerat. Gure Jaincoa da , creatu gaitu eta bere idurirat eguin gaitu , gu contserbatcen , hazten , gobernatcen , lagun-

teen gaitu, eta gu dohatsu eguiteco deus-  
sic ez du guphidesten. Ceru lurrac gu-  
retçat eguin ditu, eta gu esclaboentçat,  
gu bekhatoreentçat, gu creatura misera-  
ble eta dohacabeentçat, bere Seme bak-  
harra eman du. Miletan beiratu nau  
Ifernucō lecetic, miletan barkhatu da-  
rozkit hambat bekhatu handi, eta berte  
hambat nic baino bekhatu gutiago eguin  
çutenac damnatu dituen demboran, niri  
eguin darot gracia eta misericordia; eta  
hauc gucien ondoan hazten nau bere  
gorphutz sacratuaz, sasiatcen nau bere  
odol preciatuaz. O caritate mugarri ga-  
bea! ô amodio infinita! Noiz ene bihot-  
ceco amodioac ihardetsico othe darotçu!  
Nola nagoke çu maitatu gabe! Ene intre-  
sec, çure maitagarritasunec, eta enelçat  
eguin ditutçun amodiozco miraculuec  
obligatcen naute çure maitatcerat. Çu  
çare, ene Jauna eta ene Jaincoa, ene  
ona, ene ontasuna, ene bicia, enc gu-  
cia; maite çaitut ene bihotz guciaz.

*Bigarren Meditacionea Jaincoaren amioaz.*

I.

Oso-osoa galdetcen çaitu çure Jaincoac, deus ez da çure baithan escatcen ez darotçunic. Çor dioçu çure bihotceco eta bihotz gucico amodioa; maitatuco duçu çure Jainco-Jauna çure bihotz guciaz, ceren bihotz hura gucia berac eguin bai du, berac erosi bai du, eta berac contserbatcen bai du; bihotçaren yelos da, ecin contenta daiteke pharte batez, ez erdiaz, ez guehienaz, ez hurren guciaz; oso-osoa galdetcen du: erran nahi da, hura maitatu behar duçula gauça guciac baino guehiago; onthasunac, ohoreac, placerac, ahaideac, burhasoac, haurrac eta çure burua baino guehiago, eta hauc gucien gainetic. Hain eguiazcoa içan behar da gucien gaineco amodio hau, non prest egon behar bai çare hauei guciei ukho eguitera Jaincoaren amoreac gatic:

guchiago behar duçu preçatu eta estimatua Jaincoaren maitatcea , ecen ez mundu guciaz goçatcea : lasterrago galdu behar duçu duçun gucia , ecen ez Jaincoaren amodioa. Horra cer aditcen dugun galdetcen çaicun bihotz gucizco amodioaz. Ordean , nic nola maitatu othe çaitut , ô ene Jainco Jauna ! Cer ahalketceco suyet ez dut , orhoitcen naicenean , ezdeus batçuec çu baino guehiago maitatu ditudala ! Placer labur baten hartcea gatic , onthasun aphur bat biltcea gatic , haicearen pare den ohorezco pontu bano baten gatic , eguin çaitan damu chume baten gatic , ahantci , abandonatu , mezpreçatu çaitudala ; cer diot ? Crudelki tratatu cta guretceficatu çaitudala. Nola erran deçaket beraz maite çaitudala ene bihotz guciaz ? Othe da ene ausartzia baino handiagoric.

## II.

Çure izpiritu guciaz maitatu behar duçu çure Jainco Jauna ; hura eçagutu behar duçu , hartaz orhoitu behar çare ,

hari behar diotçatçu eman çure gogoeta eta pentsamendu guciac. Gogoan erabili behar ditutçu haren maitagarritasunac, haren ongui eguin guciac. Gogotic behar duçu egon hartaz orhoitcen, placerekin aditu behar duçu hartaz mintçatcen; ceroni ere maiz hartaz mintçatu behar care: estimatu behar ditutçu haren legueac, maximac eta contseiluac; ecen hori da izpiritu guciaz Jaincoa maitatcea. Ala urrun içatu bai da ene gogoa amodio hortaric! Galdetcen çautanetic, deus ere, edo haguitz guti baicen ez diot eman, eta horrec doloratcen nau. Guti penetan eman naiz ene Jaincoa eçagutceco, gutiago haren maitagarritasunen consideratceco: bertce gucietaco demborá aski eta sobra hartu dut, eta behar nueneco, behinere hastiric aski ez nuen: ene gogoefac munduco gaucen ikhasteco, hetaz mintçatceco, hekien gustatceco içatu dire: unhatcen nintcen ene Jaincoaren presentcian, nekhatcen hartaz mintçatcen çaizkidancan, khechatcen

haren perfeccioneac eta maitagarritasunac aiphatcen çauzkidatenean ; bertce combertsacione guciac agradatcen citçakidan , Jaincozcoac bethi lucegui causitzen nituen. Ah , lachotasuna ! Ah , sorhaiotasuna ! Ala higuingarria bai da ene conduitia !

### III.

Cure indar guciez maitatu behar duçu cure Jainco Jauna. Cure lan , pena , icerdi , sofricari , hitz , obra eta accione guciac eman behar diotçatçu. Haren baithan , haren graciaz , haren laguntçaz bici , nekhatcen eta trabailatcen gare ; yustu da haren ganic dugunaz gueroz dugun gucia , guciac harentçat içan daitecen : edo yan eta edan deçadan , edo trabaila , edo phausa nadin , edo atçarria edo lo egon nadin , cer nahi den eguin edo sofri deçadan , guciac Jaincoaren gloriaren ohoretan içan behar dire. Atseguietan eta atsecabeetan , abundantcian cta gabetasunean , osasunean eta eritasunean , ohoretan eta laidoetan , ontha-

sunetan eta miserian , bicitce labur hunta  
taco ocasione gucietan , Jaincoa guciez  
behar dut benedicatu , guciac harentçat  
behar dire ; onetan eskerrac , gaitcetan  
sumisione çor diot, eta hori, ceren behar  
baidut ene ahal guciaz maitatu. Ala or-  
dean urrun içatı bainaiz disposizione  
hain guiristinozcoetarie. Helas ! Jauna ,  
erran deçaket cu benedicatu behar bi-  
dean, bistatic galdu çaitudela : miletan  
murmuratu ere naiz çure probidentcia  
amulxuaren contra ; bainan barkhamen-  
du escatcen darotçut ; errecibi çäcu ,  
othoi , ene bihotz guciaz , ene izpiritu  
guciaz , ene ahal guciez eguiten darotçu-  
dan ofrenda : gucia nahi naiz ahitu eta  
contşumitu çure amodioán , çure gracia  
sainduarekin batean.

---

*Meditacionea lagun proximoaren amòdioaz.*

I.

**G**UCIZ hertsia da lagun proximoaren  
maitatceco dugun obligacionea. Adi çäcu

Jesu-Christo : maitatuco duen çure proximoa , hau da ene mañua : manamendu berri bat ematen darotçut , eta hura da elkarren maitatcea : ene discipulu çare-tela yuyatuco dute elkar maite baduçue : içan çaitzete guciac bat amodioaz ni ene Aitarekin Jaincotasun beraz bat naicen beçala. Ikhusten duen bere anaia maite ez duenac , nola maita deçake ikhusten ez duen Jaincoa ? Dio Jondoni Joani Ebangelistac : leguearen bethetasuna amodian datça. Salbatçailleac bere plaçan beçala utci darozkigu gure proximoac ; cer ere eguiten bai dioçute hauei , hura hari berari eguitea da ; berac guciac hekien presunetan errecibitcen ditu. Nola gaudezke elkar maitatu gabe , hain clarki eta hain maiz Jesu Christoc hortarat obligateen gaituenac gueroz ? Iduritcen çait fedea galdua nukela ez banu errespeturekin aditcen hain haltoki mintço çaitan Jaincoa ; eta adimendua ez othe neçake gal ez banu maitatcen ene laguna ? Nola nuke bekhokiric Jaincoari erra-

teco , gure Aita , baldin ez banitu mait  
bihotcez guiristino ene anaiac ? Examin  
deçadan beraz orai ene burua , consult  
deçadan ene bihotça : goardatu othe du  
manamendu handi hau ? Artha içan oth  
dut ene proximoaren maitatceco ? Ikhus  
ten othe dut ene baithan Jesusen dici  
pulu cguiazcoen amodio hau ?

## II.

Nor da maitatu behar dugun prox  
moa ? Ez çaitela , othoi , engana . Guiçon  
guciae , eta hetaric bakotcha da çuc mai  
tatu behar duçun proximoa . Cein nah  
den herritaco , ala condicionetaco ; cein  
· nahi den hizcuntcetaco , edo erreligione  
taco den , bethi çor dioçu amodioa , ce  
ren hala Jaincoac manatcen baidarotçu  
ceren guciac haren obrac , haren iduri  
rat eguinac , çire iduricoac baidire , eta  
çu beçala eternitate dohatsuaz goça ba  
ditezke . Horra cer gatic guciac maitatu  
behar ditutçun ; ordean manera berec  
batez maitatu behar ditutçu guiristind  
çure lagunac ; hec dire çure anaiac .

Eliça beraren umiac; çu beçala dire Jesusen primu lagunac, legue beraz argituac, artçain beraz gobernatuac, ur beraz bathaiatuac, mahain berean haciec, yanhari beraz haciec. Sortceac, onthasunec, carguec edo herriec eman deca-kete çuen artean diferentzia aphur bat, ordean hau da oso-osoa achaleticacoa, fedearen eta erreligionearen beguijetan ez da batere diferentciaric: eta maiz larrua agueri dabilan pobre eta mezpreçatua, onthasun pean bici dena baino oho-rezcoago eta baliosago da Jaincoaren ait-cinean. Ez beraz beha campoari, ecen trompa çaitsezke; contsidera çäçü fedea, eta ikuhisco duçu maitatu behar ditut-çula eta bihotcez guciac eta beregainki çure guiristino lagunac. Amodioa bera çaren Salbatçaire amulxua! guïçon guientçat ichuri içan duçu çure odol adoragarria: eguiçu beraz guciac maita det-çadan, eta bihotcez.

### III.

Maitatu behar dut ene lagun proxim-

moa, Jesusec ni maitatu nauen beçala hala dio berac; beraz amodio esetuzco batez, ez hitcez edo mihib, bainan obraz eta eguiaz. Hala maitatu othe dut? Gose eta egarri cirenei yaterat ematea, bilhuciac cirenен beztitcea, afluxituen contsolatcea, ignoranten instruitcea, bekhatuan erorien alchatcea, arriscutan cirenен abertitcea, horra cer den maitatcea. Hori eguin othe dut? Eta ene faltaz hec utci'haditut sofritcerat, eta hauc galtcerat, nola erran deçaket maite nituela. Jesu-Christoc ni maitatu nauen beçala! Maitatu behar dut oraino ene laguna end burua beçala: beraz amodio khartsu batez, amodio bethiereco batez, cren halmaite bai dut ene burua: ene ganid ahala gaitz guciac urrutcen ditut, on guciac ene ganatcen ditut; gauça berai eguin othe dut ene lagunarentcat? Helas! ala huts handitan erori bainaiz pontu hunen gainean! Ikhusi dut beharretan, cta ahala nuclaric, ez dut lagundu; ikhusi dut calumniatua eta medicentziaz

larratua , eta ez dut hitz bat erran ez erran araci , eta halere erran dut maite du dala ene burua beçala. Ahantz çaitçu , Jauna , orai artean legue saindu hunen contra eguin ditudan falta guciac ; eguiçu hemendic harat eguiazki eta efetuzki maita deçadan ene lagun proximoa.

---

*Meditacionea exaien maitatceaz.*

I.

JAINCOA mintço çaitçu , harc manatcen darotçu çure exaiaren maitatcea ; ez othe du bada çure gainean çucen yustua , placer duen leguearen çuri emateco ? Gogor çaitçu gaizki eguileari ongi eguitea ; ordean orhoit çait Jaincoac manu eman daroçula , Jesu-Christoc bere exempluaz ikhasi daroçula , sainduec bere bicitceaz marcatu daroçutela , eta gure intresec hortarat obligatcen gaituztela : eguiten çaizkigun gaizkiac bihotcez ahanzten , eta gaizki eguilearac maitatcen baditugu , gure bekhatuen barkhamendua ardietsi-

co dugu ; ez ordean bertcela. Gure exaiac maitatcen baditugu , Jaunaren graciac eta fagore berecienac merecitcen ditugu, Jaunaren haur maite gare ; bertcela ez dugu haren erresuman pharteric iguri-kitceco. Nola ere gure lagunac tratateen bai ditugu , halaber gu Jaincoac tratatu-co gaitu : barkhatcen badiogute barkhatu-co darocu ; maitateen baditugu maitatu-co gaitu ; horra leguea ; horra manamendua , eta horra nic ongi eçagutu ez dudan obligacionea , horra nic seguitu ez dudan bidea ; eta cer gatic ez dut seguitu ? Helas ! ceren sobra aditu baidut ene burua , sobra contentatu bai dut ene pa-sionea , sobra satisfatu bai dut ene amo-dio propia. Cer calte , cer bidegabe ez diot eguin ene buruari ! Cer ofentsa ene Jaincoari !

## II.

Funtsgabeac dire herratsu eta mende-cariec ekhartcen dituzten arraçoinac exaigoan egoteco. Diote deus ere egui-gabe afruntatu eta desohoratu dituztela ;

hori hala baliz ere , horiec dire maitatu  
 behar diren exaiac ; eta çuc Jaincoa , ala  
 Jaincoac çu ofentsatu cintuen ? Eta nahi  
 cinduke ez balieçaçu barkha çure bekha-  
 tua , ez balieçaçu eman bere gracia eta  
 Cerua ? Bada çuc hora arraçoinic batere  
 gabe , eta arraçoin gucien contra mez-  
 preçatu duçu . Diote oraino handieguia  
 dela errecibitu duten afruntu edo caltea ;  
 ordean gucietaric handiena da arima eta  
 Cerua galtcea , eta horra cer eguiten du-  
 çun çure exaia maite ez baduçu . Ereman  
 darotçute calumnia beltcez ohorea ,  
 ohoinkeriez çure ontasuna , tratamendu  
 crudelez laburtu darotçute bicia ? Gaizki  
 eguiten dute , eta çuc gaizkiago eguin ci-  
 neçake herran egonez , ceren gal baicine-  
 çake nihore ecin galaraz dieçaçuken Jain-  
 coaren amodioa , gracia eta erresuma .  
 Finean , diote exaiei barkhatcen badiote  
 gaizkiago tratatuac laitezkela , gaichoago  
 bilhaca laitezkela , on dutela cehatuac  
 içatea : ordean Jaincoari çao erreserba-  
 tua mendecua , yakinen du gaichtoen pu-

nitcen , cure pacientcieren saristatcen. Areago bilhacatuco dire , dioçunaz ; trompateen çare. Ongua bei maiz egui-nez , bere baithan hobeki sarthuco dire , eta onthuco dire ; eta guciarekin ere gai-chtacen badire , hori hekien falta bat içanen da , cuc barkhatuz cure obligacio-nea eguiten duçu. Cer contsolacione cu-retçat yakitea , Jaincoari placer eguiten dioçula maitatuz cure exaia !

### III.

Ez da aski gaizkirie ez eguitea cure exaiari , ez da aski ez mendecatcea , oraino maitatu behar duçu ; on eta onthasunac desiratu behar diotçotçu ; haren atsegui-nezañseguin , desplacerez eta penez damu içan bahar duçu , gose bada yaterat , egarri bada edaterat ; billhucia bada ar-ropac eman behar dioçu ; hitz batez , cure burua beçala maitatu behar duçu , ez hitcez bainan obraz efa efetuz , beraz ma-nera suerte guciez marcatu eta eçaguta-raci behar dioçu , harc lehenic cu ofent-satu bacindu ere , ahantci duçula harc

eguin darotçun gaizkia ; prest çaudela hari atseguin eguiterat, eta maite duçula : beraz salutatu behar duçu, beraz ocasio- netan mintçatu behar çainco , beraz ha- ren compainian guerthatcen çarencahan egon behar çare ; beraz hartaz eta harenz estimurekin mintçatu behar çare ; ecen hori da legueac manatcen duena, amodioac galdetcen darotçuna. Examina çäcu çure burua ; nolacoa içan çaren orai artean. Ez othe çare contentatu gaizki eguin darotçunari gaizkiriç ez eguiteaz ? Ah ! Jauna , aithortcen dut ene falta , idu- ritcen citçaitan aski cela ez mendecatcea, ez aspertcea ; orai eçagutcen dut cerbait guehiago galdetcen cinduela ene ganic , nahi ditut beraz ene exaiac maitatu bi- hotcez, obraz eta çure gatic.

---

*Meditacionea Humiltasunaz.*

I.

HUMILTASUNA da berthute bat , ceinac eçagutarazten bai darocu gure ezdeusta-

suna , aithorarazten dugun gucia Jaincoaganic dugunaz gueroz , guciez hari laudorioac çor diotçagula. Humil denac badaki bere baitharic deus onic ez duela, bere funxetic miseria bera dela , eta mezpreça arazten dio bere burua ; ikhusten du sortcez pobrecia bera , bekhatuan contcebbitua , Jaincoaren exaia , Cerutic desterratua cela , cta horrec ezdeustasunean barna sararazten du. Humil denac contcebbitcen du bere bekhatu nombre gabecoez galdu duela Jaincoac misericordiaz eman cioen bathaioco inocentcia eta edertasuna ; herriz Satanen gathibo eguiten dela , eta eternitateco suan erreteñ egotea mereci çuela , eta horrec arbuiarazten dio bere burua. Humil denac eçagutcen du , deus ere onic badu edo gorphutcean edo ariman , haue guciac hambat dohain direla Jaincoac eman eta intresarekin galdetuco diotçanac ; bethi bere buruari cerbitçari inutil bati beçala behatcen dio , eta guciez Jaun soberanoari eskerrac emanez , ez bere obretan ,

bainan Jaincoaren misericordia handian  
ecartcen du bere confidantzia gucia. Hu-  
mil denac onhesten ditu mezprecioac , ez  
dabila laudorioen bilha , hei ihes egui-  
ten diote ; ez du hartcen ohorezco plaça  
edo herrunca , Jaunaren borondateari  
sumetitceco baicen ; eta bere condicio-  
neaz bertceac baino gorago alchatua ba-  
da , bihotcez guciac baino aphalago eta  
ezdeusago dauca bere burua. Horra no-  
lacoa den humila , horra cer den humil-  
tasuna. Othe da hunelaco hainitz guiris-  
tinoen artean? Fedea duten guciec ait-  
hortcen dute disposizione horietan içan  
behar direla ; ordean cembatec othe di-  
tuzte bihotcean ?

## II.

Humiltasuna berthute necesario eta  
baitezpadacoa da ; hunec sorarazten di-  
tu , hunec conserbatcen ditu , hunec  
berritcen ditu , hunec coroatcen ditu  
berthute guciac! Hau gabe ez da berthute  
eguiiazcoric , eta hau bethi da berthute  
guciez seguitua. Jaincoac contra eguiten

diote supherbiosei , eta placerekin beheratcen diote humilei; urruntcen da bere buruac cerbaitentcat dauzcatenetaric , eta bere buruac ezdeustatcen dituztenei ematen diotçate bere graciac. Publicano humilaren othoitça entçuna da , Pharisaum arrogantarena mezpreçatcen duen Jaincoaz ; bere baithan alchatcen direnac beheratuac dire Ifernuco çolaraino , eta humiliatcen direnac altchatuac dire Ceruco tronuraino. Ah , humilitate maitea ! çu içan behar çare ene phartaia , çutaz eguin behar dut ene onthasuna , çu maiteki conserbatu behar çaitut. O Jesus humila ! O goratasun soberanoa beheratasunic handienetarat yantsia ! eguiçu ! humiliat çare gurutcean enetçat hiltcerainocoan ; eguiçu beraz , maita deçadan çuc hambat maitatu duçun humiltasuna.

### III.

Humiltasuna hain berthute necesarioa

delaric arren hartaz estimu guti eguin duçu. Condatu othe duçu berthateen arthean? Haren içateco cer eguin duçu? Jaincoari galdetu dioçu? Harc eman deçake. Humiliacioneac onhetsi dituçu? Hec soraraz deçakete. Çure baithan maiz sarthu çare? Horrec inspiratuco çarotçun. Ez othe duçu çure burua sobra estimatu? Çure miseriac ez ditutçu contsideratu, eta Jauna ganic cintuen onez hantu çare. Ohoreac, carguac desiratu, lehembicico plaçac bilhatu; munduaren estimua maitatu duçu, eta creaturen laudoriez eguin duçu çure çoriona. Cer cen bizkitartean laudorio hura? Khe bat çure çoratceco choilki gai cena, eta nicholere mereci ez cinduena. Nola behatu dioçute mezrecioei, laidoei, afruntuci? Eta ez othe ditutçu higuindu cembait damu eguin darotçutenac? Çure buruaz hartua, pretentcione erhoez bethea, uste içan duçu guciec çor çarotçutela atencioneric osoena: horra çure pintura naturala. Bai, Jauna, horra ni oso-osoa,

horra ene potreta. Eçagutu banu cne burua naicen beçalacotz, ikuusico nuen czdeus arbuyagarri bat nintcela, eta mireci nuela laidoa, desohorea, eta confusione osoa. Eguiçu hemendic harat ez nadin engana; aphal içan nadin çure beguietan; ezdeustasuna da ene tokia, han egon nahi naiz bethi, hura da ene centroa, harc eguin deçake ene arimaren çoriona; orai danic eta bethicotz besarcatcen dut humilitasuna.

---

*Meditacionea Castitateaz.*

I.

**C**ASTITATEA berthute preciatu eta guciz baliosa da. Hari dagoco sentsuen place- ren erreguelatcea eta modératcea, arra- çoinaren eta fedearen arabera; berthute hunec santificatcen dita atseguin ino- centac, eta condenatcen ditu cilhegui ez diren guciac; hunec, yustu den beçala, gorphutça arraçoinari, haraguia izpiri- tuari, sentsuac fedeari sumetitcen diot-

ça, gorphutcez eta izpirituz guri adora-razteco gucia saindu eta garbi den Jain-coa : condicione gucietan debecatua da beraz damnacionearen penan , haraguia-ren esclabo içatea , edo haren guticia deserreguelatuen seguitcea. Mende gucietan Jaincoac garraztasun handienarekin punitu du lohikeria , eta bicio gucien artean ez da nekheçago barkhatu duenic ; hunec urrun khentcen du Jaincoaren izpiritua , itsutcen eta sorhaiotcen du guicôna , halaco maneraz non ez bai du sentitcen ere bere hobenaren icigarritasuna. Nola beraz aski higuin eta abhorri deçakegu lohikeria ! bainan nola aski maita eta preça deçakegu garbitasuna ! Nolaco precocioneac hartu behar ditugu hatsic mendreenac nothatcen eta histen duen berthute hunen beguiratceco ! Hunen balio gucia eçagutcen duenac hau colpa deçaketen occasione urrunnenei ere ihes eguiten diote , bertce sentsuco presunen hitz lausenguzcoac , escaintça onhestac ere , mundutarren dibertimen-

duac eta compainiac , inocentac diruritei curiostasunac , adiskidetasunac , eta sol hasac berac perilosac çavezco , eta icitcer dute ; garbitasunari hunkitcen çavezcoi gaucen gainean , guciz beldur içan behar da; ascoc , ceren ez diren beldur içatü beren herbailtasunaz experientcia doloragarri bat eguin dute.

Jesus , birginen esposa , amatçat birgina bat bereci duçuna ! indaçu garbitasunarentçat amodio handi bat , ardiets dieçadaçu garbitasunean bicitceco hair baitezpadacoa den ene buruaren beldur hura ; eta tresor preciatu hunen arthosk eta maiteki beguiratceco gracia .

## II.

Castitateac baditu hirur grado , bata baino bertcea perfetago direnac , eta hirur estatutan causi daitezken presunetan ediren behar da ; esconductan causitu behár da eta bei irakhasten diote sacramenduaz duten çucenaz sainduki baliatcen , eta ezcontçaren finaren contra dochacen , cdo haurren içateco gai ez litez-

ken libertate suerte guiei ihes eguiten. Alhargunetan continentzia deitcen da , eta hura datça , Jaunac eman cioten es- posaz Jaincoaz beraz gabetuac içan on- doan, bere buruac Jesusi contsecratcean, debecatuac diren placerei, ita cilhegui litcacotenei ukho eguinic. Hau perfeta- goa da ezconduena baino. Nihoiz ere gor- phtceco garbitasuna colpatu ez dutene- tan deitcen da birginitatea , eta hau edi- reten da Jesus bakharra behin bethicotz bere espostçat hautatcen dutenetan , edo bederen bethi bere buruac garbi cont- serbatcen dituztenetan. Hau da berthute hunen perfeccioneeric haltoena. Ez da obligacionezcoa ; ez da salbatceco baitez- pada necesarioa , cilhegui denaz gueroz ezcontcea ; bainan ez othe da clar , ber- thute hau gucia maitagarria , gucia pre- ciatua eta Jaincoarentçat ohoragarria de- la. Eman biocate mundutarrec estatu saindu hau besarcatcen dutenei placer duten icen laidotsuena , bethi Jaincoaren beguietan agradagarria içanen da birgi-

nitatea, bethi hunec choratuco du Jaincoa, ceren hari sacrificatuco bai dio ez bere dirua, bainan bere burua oso-osoa placeric inoceutenenkin batean. Ala beraz dohatsuac bai dire lurraren gainean berthute huntaz birriguinduac diren arimac, eternitatean içanen dute bildots notha gabeari yarraikitceco coriona.

### III.

Handiac eta nombre gabeac dire birginitatearen abantailac. Cembañ arriscutaric campoan ez dire birgina daudecenac? Arriscuac causitcen dire lurrean espos bat hautatu gogo denean, eta nolacoac ez dire arriscu hec? Jaincoaren gogora eguiten othe da hauta hau? Consultatcen othe da harren borondatea? Cembañ arriscu handi ezcon artean? Cembañ ezcondu ondoan? Cembañ espos batekin? Cembañ familiarekin? Cembañ haurren guristinoki aitchatceco? Cembañ bertce, barnetic eta campotic? Hauc gucietaric libro eta segurean da Jesus bere espostcat hautatu duena. Ezconduen bihotça

phartaiatua da bere esposaren eta Jaincoaren artean , huni cor dio amodio osoa , eta hari placer eguiterat obligatua da. Errech othe da bi eguimbide haukien bethetcea eta bethi eta dembora gucietan eta gogotic eta hil arterainocoan ? Ordean , birginaren lan bakharra da , bere Jaincoari placer eguitea , bere Jaincoari laudorioen errendatcea , bere Jaincoa maitatcea. Ah , birginitate preciatua ! lore mimbera beçain ederra ! ala maitagarria bai çare ! ala desiratcecoa bai çare ! eta guciarekin ala guti maitatua eta eçagutua ere bai çare munduan ! çutaz nic eguiten dut ahal beçain estimu handia. Placer nuke , Jesus maitea , cuc hala nahi bacindu , çutaz bertee exposic ez içatea , çure baithan ene gucia causitcea : cer nahi galde dieçadaçun , prest naiz çure borondatearen complitcerat , promes ematen darotçut , seculan ez dudala . Ieus ere eguiñen , ez errañen , ez permetituco castitatearen berthutea ene baithan , edo bertceren baithan culpa deçakenic.

*Meditacionea Communioneaz.*

I.

Guciz handia eta soberanoa da Jesuse guretcat duen amodioa. Bere amodi phuruz causitcen da aldareco sacramen du sainduan, eta cemba amodiozco mi raculu ez du eguiten hartaraçotz? Betai causitcen da ceruan eta lurrean, gloria eta abachamenduan, Aitaren escuincan eta aldarearen gaincan; betan hostia sacratu gucietan, eta hetarie bakhotchean eta hostia bakhotcharen pharteric chumecanean. Humiliatcen da, oguiaren idurien azpiran bere burua ematerainocoan humiliatcen da guicon baten boçari eta hitçari obeditcerainocoan : humiliatcen da, bere Jaincotasuna beçala, bere guicontasuna osoki gobeltcerainocoan : humiliatcen da, nombre gabeco affruntuac plenitu gabe, hitz bakhar bat erran gabosofritcerainocoan. Cer ainodio ! cer samurtasun ! Ala ordeau ! Jauna, guti eça-

gutua, guti maitatua bai çare gutaz! eta  
guti ohoratua bai çare hambat maite di-  
tutçunez! Deus ez duçu guphidesten gu  
maitatceco; eta guc cer eguiten dugu  
çure ohoratceco? Noiz heldu gare çure  
ohoratcerat? Egunaz cta gabaz caude al-  
dareco sacramendu sainduan, eta ni ez  
gabaz ez egunaz ez naiz çutaz orhoitcen.  
Othe da eta içan othe daite nacioneric gu  
garen baino ohoratuagoric? Bainan othe  
da guiçon gucien artean ni baino lacho-  
agoric? ni baino hotzagoric?

## II.

Jesu-Christoc aldareco sacramendu  
sainduan haci nahi gaitu bère gorphutz  
sacratuaz; eta bere odol preciatuaz; hor-  
ra certaco dagon gure aldareetan. Jain-  
coa ene yanhari, Jaincoa ene edari dut.  
Nahi nau bazcatu, eta guicendu bere  
gorphutz sacratuaz, bere odol precia-  
tuaz, Hala berac seguratcen nau: har-  
çue, eta yan çäçue; hau da ene gor-  
phutça, hau da ene odola, ene araguia da  
eguiazki yanhari, ene odola da eguiazki

edari ; ni yaten nauenac communionean bere baithan du bicitcea , ni harren baithan bici naiz , eta hora bici da ene baithan , ni ene Aitaz bici naicen beçala hora ere nitaz bici da , ni yaten nauena , ene baithan dago , eta ni haren baithan nago : horra Jesusen hitçac , horra Jesusen erranac . Nahi du beraz communionean eguin gurekin alientciaric hertsiena , unioneric handiena , batasunic perfetena ; ethorri nahi da gure ganat , ez aphur batetaco , bainan bethieo ; egon nahi da gurekin seculaco ; berekin bat eguin nahi gaitu , gutaz (hunela erran badaiteke) haimbertce Jesus eguin nahi du : gombidatu nahi gaitu bere ganat ; bere idurico eguin nahi gaitu ; communionean berekin gorphutz eta odol bera eguin nahi gaitu . O amodio mugarri gabea ! ô caritate soberanoa ! ô samurtasun sobraniozcoa ! Non da artçaina bere sorphutcaz bere arthaldea bazcatcen duena ? Non da ama bere odolaz bere haurra hazten duena ? Çu care , Jesus artçain ona gu

çure ardiac cure gorphutçaz naurritcen  
gaitutçuna. Çu çare, Jesus, Aita samur-  
ra, çure umeac çure odol preciatuaz sa-  
siatcen gaitutçuna. Nola aski estima de-  
çaket eguin darotaçun emaitça handia!  
Nola aski adora çaitçaket, ô ene Yabe  
soberanoa! Sustenga çacu, Jauna ene  
içate gucia, ez deçadan pentsa, ez deca-  
dan erran, eta ez deçadan eguin deus ere  
çure arabera baicen; eguiçu, ô amodioz-  
co Jaincoa! çutaz, çure baithan eta çu-  
rekin bat eguiña bici naicen beçala, cu-  
retçat içan nadin oso-osoa.

### III.

Ez noicean behin, bainan maiz nahi  
gaitu Jesusec haci communione sainduan  
bere gorphutz sacratuaz eta odol precia-  
tuaz; hartaracotz dago egun oroz gure  
aldareetan; hartaracotz erraten darocu,  
bere placerac ematen dituelä guiconen  
umeekin içatean; hartaracotz bere burua  
ecarri du oguiaren eta mahats arnoaren  
idurien azpian; hargatic dior, haren ha-  
raguia yanhari dela. Desiratcen du beraz,

gutaz maiz erreccibitua içatea , ez erre-medioa hartcen den beçala , bainan naur- rimendua hartcen dugun beçala , maiz eta husuki. Ah , Jauna ! aski eta sobra ohoratua içanen nintcen çu bethi adorat-ceaz. Nic igurikitceco nuen gracia baino handiagoa eguinenc cinarotaçun urthean edo bician behin ere çure içatea niri emateaz : oraino çure chedea da , maiz haz nadin çure gorphutz sacratuaz ; biz-kitartean contentatu naiz urthean behin çu errecibitceaz ; eta orduan cre nola ? Menturaz bortchaz ; menturaz munduan- ren errankicunen gatic ; menturaz pre- paracione gutirekin , menturaz çure her- ran eta exaigoan nintcelaric. Barkha dat- çu , Jauna , orai arterainoco falta guciac ; indatçu ceronec nigar goço eta baliosac , auhenda detçadan çure amodiozco sacra- menduan eguiñ darozkitçudan afrun- tuac ; promes ematen darotçut eguiaz eta izpirituz adoratuco çaitudala maiz ; eta sainduki errecibituco çaitudala : eguida- çu gracia promes hunen complitceco.

*Bigarren Meditacionea Communioneaz.*

I.

HANDIAC dire maiz communitatceco ditutçun arraçoinac. Helas ! çure burua maite baduçu, maiz Jesus çure baithan errecibituko duçu. Cer çorion ez da çuretçat çure Jaincoaz husuki haztea , çure Jaincoa maiz çure bihotcean ostattatcea ! Ohoratua cintezke çure Erregueren mahinean maiz yartceeo libertatea bacindu; eta beraz cer gloria , cer çorion ez da çuretçat Erregue gucien Erregueaz çure buruaren bazcatcea ! Nolaco onac eta onthasunac ez othe darraizco communione saindu bati ! Cer içanen da communione husuaz ? Communione on batec facegatcen eta flacatcen du gure pasione gaichtoen bicitasuna ; ematen darocu Deabruaren tentacioneen contra indarra, conserbatcen eta beritcen du gure baithan graciaren bicia ; fincatcen du fedea , borthizten esperantça , sustatcen eta he-

datcen caritatea ; hora da pena eta nahi-gabeetan gure contsolamendua, eta phizte glorios baten bahi preciatua. Cer ez du beraz Jesusec eguin en gure arimetan fe-de bici batekin , confidentzia oso batekin, amodio khartsu batekin , huinilitate eguiazco batekin , saindutasun eta garbitasunekin maiz errecibitzen dugunean? Eguiçu experientzia, eta ikhasico duçu cein on den maiz eta sainduki communitatcea : costuma dohatsu huntan behin ematen baçare lehembicico guiristinoac beçala, çure dolore bakharra içanen da communiatu gabe egun bat iragataea. Çure intentionea da, ô ene Salbatçaille maitea ! maiz gure ganat ethortcea, eta ariñaco intresee ere hertchatzen naute husuki çure ganat yoaterat , ethorrico naiz beraz maiz , eta aldi guciez bihotz chahú batekin : berthute guciez ene ahalaz birriguinduko dut ene arima , gai içan dadintçat çu errecibitceco , ô Jesus , ene amodioa , ene bicia , ene gucia ? Çure graciaz , esetuzco errenda çatçu oraico ene deliberacione hauc.

III.

Funtsgabecoac dire communione hutsitic guibelatu nahi cintuzketen atcekiac. Ez da combeni, diote batcuec, mundupean bici behar dena hain maiz mahain saindurat hurbiltcea. Cergatic ez? Cerbada commentuetan bici direnac baicen ez dire Jesusec gombidatuac? Mundupean dagoenac ez deçake bada higuin bekhatua, eta maita Jaincoa? Mundupean dagoenac ez deçake garbi contserba bere irima? Lan, occupacione, eta eguiteco handiac ditut, dio bertce batec; eta nic diot: beraz maiz communiatzi behar duçu. Certaco? Çure eguitecoetan ongi yoateco, çure lana balios Cerucotz errendatceco. Ez naiz, dioçu finean, ez naiz aski perfeta hain maiz communiatceco, eta bada maiz eta sainduki communiatuz ardietsico duçu desirateen duçun perfeciona; mahain saindutic urrunduz ez çare perfetago bihurtuco; nor borthizten eta guicentcen da yan eta edan gabe egouez? Nahi badut gauça guciez balia nai-

teke , ô ene Jesus maitea , cu errecibitcerat preparatceco ; bekhatu choila da çure ganic urrun neçakena , ukho eguiten diot orai beretic eta bihotcez , eta hasten naiz çuri yarraikitcen ; garbi neçaçu bekhatuaren notha gucietaric , indaçu gucien gaineco higuintçaric handiena eta çure ganaco amodioric khartsuena.

### III.

Maiz communiatceco ukho eguin behar dioçu bekhatu mortalari ; ecin nihoiz ere ecin communia deçakeguke bekhatu mortalean gure condenacionetan baicen ; ordean maiz , hala nola astean behin , communiatu nahi duena içan behar da , ez ustegabeco , edo flakeciazco falta chumeric gabe , bainan bai bekhatu benialaren ganaco afeccioneeric gabe , erran nahi da , gaitcetsi , higuindu eta aborritu behar dituela bekhatu benial guciac . Ecen maiz Jesusen mahainean yartceco , haren adiskide min eta maitea içan behar da ; beraz hari damu eguiten dioten bekhatuen amodioa eta afeccionea gahe

causitu behar da: horra maiz communitceco behar den disposicionea, eta norc guibela neçake hunen içatetic? Oraino desira khartsu bat içan behar dut Jesusen erreccibitceco, gose eta egartsu handi bat ene arima hartaz naurritceco, guticia handi bat hartaz bicitceco, lehia handi bat haren ohoratceco eta berthutean aitcinatceco. Sobra galdetcen othe çait? Oz othe du bada mereci Jesusec niri escatcen çaitan desira, egartsu, guticia eta lehia saindu hura?

Ah! Jauna, laço içatu naiz eta antsicabe orai artean, ez dut eçagutu ene burua, gutiago eçagutu dut çure ontasuna; bainan orai arguitcen, orai atçartcen nauçu; nahi naiz baliatu çure amodioaz eta misericordiaz, çu erreccibitceco maiz ene bihotcean, çu conlserbatceco mai-teki ene ariman.

*Meditacionea Meçaco sacrificioaz.*

I.

Ez da guiristinotasunean deus ere meçaco sacrificioa baino errespetarriagoric; han ofritcen da eguiazki eta errealki Jesu-Christo oguiaren eta arnoaren idurien azpian : creatura gucien Creatçailea , guiçon eta Ainguueruen Jauna , Ceruaren eta lurraren Yabe soberanoa bere Aitari çao ofrendatua: behin choilki gurutcearen gainean eguin duen ofrenda , egun oroz erreberritcen du Apheçaren escuz aldareen gainean. Guiçonec eta Ainguueruec bere obraric khartsuenez baino guehiago eta guehiago ohoratcen du Trinitate saindua meçaco sacrificio bakhar batęc, ceren balio infinitu bat bai du hemen ofritcen çaoen Jesu-Christoc : bere burua innolatcen du Jainco guiçon hunec gure phartez içate soberanoaren adoratçeo , eguin daroskigun nombre gabeko on eta ontasinez eskerren emateco ; guc

eguin diotçagun ofentsa eta afrontuen barkhamenduaren galdeguiteco , eta hain necesario tugun gracia eta lagunteen es- catceco. Horra cer hari den Jesu-Christo aldareen gainean , eta hauc guciac egui- ten ditu enetçat , ene salbatcecotçat. Cer obligacione ez diot , cer errespetu ez diot çor ! Nola egon behar nindeke Eliçan meçaco sacrificioan ! Nola unha naiteke aldareetan ene Jesus dudanean ! Nola lucegui causi othe deçaket bethi labur- regui iduritu behar çaitan dembora sain- dua !

## II.

Sacrificio hunen handitasunaren araberacoac içan behar dire çure sentimen- duac. Han çare lekhuco beçala , beraz han cer iragaten den yakın eta contside- ratu behar duçu. Hau çure moldean Apheçaren escuz sacrificioa ofritcen du- çu , beraz sainduki han egon behar çare , beraz humiltasunekin eta errespeturekin meça entçun behar duçu , çure esperant- çä eta confidantcia phiztu behar ditutçu.

Han çure burua, Jesusekin batean Aita Cerucoari sacrificatcen dioçu ; beraz çure bekhatuac higuindu behar ditutçu , hetaz Jesusen icenean misericordia galdeguin behar duçu ; hitz batez , Calbarioco mendiaren gainerat bacindoaz beçala yoan behar çare Eliçarat meça entçuterat. Hortic yuya çäcu nolaco debocionea, atencionea eta errespetua galdetcen duen meça sainduac. Ikhus çäcu nolaco kharrarekin yoan behar çaren nolaco artharekin han egon behar çaren , certaz han entretenitu behar çaren. Ainguueruec berec ikharaz bethericaco errespetu batetkin adoratcen dute Jesus aldareen gai-nean , eta nola çu egon çaitsezke errespeturic gabe ? Helas ! Jauna , aithortcen ditut meçaco dembora sainduan eguin ditudan huts guciac : enetçat ofritcen duçun sacrificioan maiz berritu ditut urratu behar nituen bekhatuac , eta hirritatu dut facegatu behar nuen çure colera ; barkha dietçadatçu beraz ene hobenac , eta garbi çäcu egun ene arima bere notha guciatarie.

III.

Meçaco sacrificioa hain errespetagarria delaric arren , gutiac dire hari çor çaison ohorea ekhartcen diotenac. Nolaco khar-rarekin lehiatu othe çare meça entçuterat? Artha içan othe duçu , ahala cinduen gucian , sacrificio hain errespetagarrian causitceco ? Ez othe duçu phasatu astea oso-osoa laçotasun phuru batez meça entçun gabe? Eta han causitu çarenean nola egotu othe çare? Yoan çare obligacionezco egunetan ere costumaz eta usantçaz , ez fedeaz eta debocioneaz animatua. Jaincoaren adoratcen , Jaincoari eskerren ematen , Jaincoari barkhamen-du escatcen , Jaincoari graci en galde tcen emplegatu othe duçu bethi meçaco dem-bora laburra ? Hala behar cen ; ordean hala eguin othe duçu? Orhoitu othe çare non cinen , certan cinen eta certaco Eli-çarat yoan cinen? Ez da eguiia miletan çure izpiritua barraiatura egon çarela , alde gucietarat beha egon çarela , pos-tura imodest batean egon çarela , Jesus

aldareen gainean cela ahantcirie, sahct-secoekin solhasean egon çarela, gorphut-cez Eliçan, izpirituz campoan; belhau-nico lurrean, gogoz munduko eguiteco- etan; arrosarioa edo liburua escuan, eta bihotça compainietan occupatua, ez nola meça entçunen cinduen, bainan ea noiz, cein laster meça akhabatuco cen? Ez othe da hau içatu çure meça entçuteco moldea? Ez othe çare bethi hunelaco içatu? Menturaz yoan çare elicarat, ez Jaincoaren adoratcerat, bainan hunelaco edo halaco presunac, bertcetan errechki ikhusico ez cintuenac, han ikhusterat, eta hetaz ikhusia içaterat. Hortacotz menturaz arrimatu çare, eta aphaindu idola bat beçala. Ahalcacen naiz, Jauna, orhoitcen naicenean Eliçan inecaco dem- boran eguin ditudan huts handiez; gu- ciez misericordia galdetcen darotçut, promes ematen darotçut hemendic harat ahal beçain maiz meça entçunen dudala, eta alhal beçain sainduki han causituco naicela.

*Meditacionea Jaincoaren misericordiauz.*

I.

Juciz handia eta hedatu da Jaincoaren nisericordia. Sofritzen ditu bekhatorosic iandienac; bere ganat deitzen ditu gaich-aguinic errebelena; gombidatzetan ditu hesi dabiltsanac, barkhamendua pronetatzetan diote bere exaiei; oihuz daho-ote, eta besoak hedatzetan diozate galt-erat dohaçinei; berac escatzetan diote erac eman bihotça; eta behin, bietan, iruretan gorraena eguinic ere, ez da uibela yoaten: harc gu ofentsatu ba-uintu beçala, gure cherkha dabila; bilatzen gaitu, gure beharra balu beçala. Artçain ona beçala (eta ez othe da artçain na hura)? Gu errebelatuen ondoan abi-tzetan da, ez du guphidesten nekhea eta cerdia, ez ditu condatzetan urhatsaç; eta ausitzetan gaituenean, bozciariatzetan da, naiteki eñaten gaitu bere sorbalden ainean, guidatzetan gaitu bere heirat.

eta eçartcen gaitu bere ardi leyalen , ber  
re adiskide minen herruncan. Ceru guci  
alegrantcietan da ; placer guehiago d.  
Aingueruen artean , bekhatore comber  
titu batez , ecen ez bethi prestutasuneai  
egotu diren lau hogoi eta hamar yustuz  
eta seme prodigoac bere falta aithort  
cean , haren Aitac içatu çuen bozcarioa  
erdiscara beçala eçaguitarasten darocu  
Aita Cerucoac , gu humiliatuac bere ait  
cinean ikhusteaz , duen placera. O Jain  
coaren misericordia mugarri gabea !  
amodiozco gaindidura ecin comprehenituz  
coa ! eta nola nagoke bekhatusan ! nola  
memento batez ere luça deçaket bekh  
tutic atheratcea ! Baliatuco naiz , Jauna  
çure deitce ezti , gombidatce amultsuez  
damu dut ene luçamendu eta eskergabe  
tasun guciez , utcico dut bekhatusa , eta  
itçulico naiz çure ganat ene bihotz gu  
ciaz.

II.

Çure bicitce phasatua examinatu ba  
duçu , Jaincoaren misericordiaren efetu-

rje miragarrienac çure baithan causituco ditutçu. Nolacoa içatu çare haurtasunetic lekhora ? Nolacoa gaztetasunean ? Cer eguin duçu causitu çaren lekhu eta emplegu differentetan ? Helas ! cembał bek-hatu handi gogoz , cembał hitcez , cembał obraz , cembał neglientciaz ! Cembał bertcei eraguin araci othe dioçute çure arinkeriez , çure aire libroez , çure dos-teta erguelez , çure cantu imodestez ! Norc condatuco ditu çure falta guciac ! Norc eçagutuco du çure çaurien handitasuna ! Norc çundatuco ditu çure bihot-ccco gaitz çaharrac ! Nola çare oraino munduan ! Nola ez othe çare Ifernuan ! Orduan hil bacine , non içanen cinen orai ? Erraçu ? Helas ! damnatuen artean , Deabruen baltsan , erreprobatu gucien compainian . Norc beiratu çaitu hain çorte icigarritic ? Norc bada ? Jaincoaren misericordia handiac . Estatu 'dohacabe hartan ere cembał aldiz ez çaitçu mintçatu Jain-coa bere inspiracione sainduez , bere ministroez , eritasunez , çure lagun gaich-

taguinen heriotceaz, edo bertce batçuen combertsioneaz: hauc guciac maite cintuen, eta salbatu nahi cintuen Jaincoaren boz batçuec ciren. Hauei guciei gorraena eguin diocute. Hartu duçu maiz combertitceco desira, deliberatu duçu, bekhatua utci, bicitcea ghambiatu behar duçula; ordean bethi ber bera egon çare; mereci cinduen beraz Jaincoaz abandonatua içatea; halaric ere egun berri berritan deitcen, herchatcen çaitu. O misericordia, ala çure handia! Norat nahi den beha deçadan, gucietan ez dut ikhusten çure onthasunic baicen. Cer laiteke nitaz, oraino uzcur banindago, oraino guibela banindago? Ez, Jauna, orai beretic heldu naiz çure ganat, orai beretic progotchatu nahi naiz hain arraiki eta generoski ofritcen darotaçun misericordiaz. O Jesus guciz urricalmendutsua! Ene bekhatuec ikharatcen naute; bainan çure icenac berac animatcen nau; bekhatoros naiz, eta bekhatorosic dohacabeena; bainan çu ene Salbatçaillea çare.

III.

Jaincoari afrunturic handiena eguin cinoçoke dudatcen bacindu haren misericordiaz. Çuc ofentsatu duçun Jaincoa ona eta ontasuna bera , leyala eta leyal-tasuna bera da ; seguratcen gaitu , eta yuramenturekin ez duela nahi bekhato-rearen heriotcea ; ez da egundaino , ha-ren baithan fidatu denic galdu ; eta ez , hura behartu duenic , laguntça gabe guelditu : Jaincoari damuric handiena eguitea laiteke beraz , haren baithan ez fidatcea : hori laiteke Caïn dohacabaren seguitcea ; hori laiteke çure bekhatu gu-ciac baino handiagoco crima bat ; hori laiteke odol hotcean daminatcea. Ah ! dioçu ordean , ene bekhatuac handie-guiac , ene çauriac çahartegua dire , eta nihorc ez du nic beçambat eta nic beça-laco gaichtakeriaric eguin. Çure bekha-tuac handiac dire ; ordean Jaincoaren misericordia handiagoa da. Çure çauriac çahartuac dire , eta nihorc ez du çuc be-çambat , ez çuc beçalaco gaichtakeriaric

